

## Amezketak

### Hiztegi biografikoa

*Sarrerako oharra*

Hiztegi Biografiko honi heldu zaio. Bere asmoa oso xamurra da: Amezketan jaiotze, bizi edo hil eta gure herriarekin lotura izan zuten persona zenbaiten aipamena egitea. Arrisku handia du berekin, hau da, bat baino gehiago baztertzekoa. Seguru asko oker horretan eroriko gara. Hala ere, bidea urratzeari heldu diogu.

Zer ikusi ahal izango duzun lan honetan? Batzuetan, apunte laburrak. Besteetan, artikuluen sailean sartu beharreko lanak.

Interneten egindako lan hauek zuzentzea ere ez da oso lan zaila. Beraz, eskura etortzen zaizkigun zuzenketa guztiez baliatuko gara Hiztegi hau, baliosoa ez ezik, zuzena ere izan dadin. Beraz, gaizki idatziak barka eta ongi daudenak gogoan har...esaera zaharrak eskatzen digun bezala.

Zuzenketaren bat egitea nahi duenak jo beza helbide honetara:  
*jotermin@telefonica.net*

**-Agirre Jose. Amezketako azken erretore propioa.**

Behar adina apaiz ez eta, don Jose Agirrek erretiroa hartu duenean, erretore propiorik gabe geratu da Amezketak. Interinoak ere ezagutu ditu Amezketak, baina azken bospasei mendeotan beti izan da *erretoretzaren* ardura eramaten zuen elizgizonen bat herrian. 2009-2010ean eten da lokarri hori. Amezketak izan duen azken erretore propioa da don Jose Agirre.

Ibarrako *Etxezarreta* baserrian jaio zen 1933an. Aztarrika asko egindako elizgizona da don Jose. Laburldurik haxe litzateke bere biografia:

*“Urte luzez Alkizako parroko izana, idazle eta itzultzaile lanetan Joxe Alkiza goitizenez ezagunagoa, 1965ean antzestu zen Donostian berak euskararaturiko Ibsenen Andere etxe antzerti lana.*

*Zeruko Argia aldizkarian astero idatzi zuen nekazaritzaz, eta hain zuzen alor honetan lan izugarria egin zuen gure baserritarrentzat ganadu nahiz baratzari buruzko oinarritzko materialak euskaraz eratzten”.*

Don Josek itzuli zuen *Andere-etxea* obra *Egan* aldizkarian dago, 1980-1981ko aletan.

Beste alderdi bat ere badizu don Josek. Bertso-paperak egiten oso txukuna da. Urtero kantatzen ditu alde zuzenetik prestatutako bertsoak. Noiz, zein tranpaldotan aritu ohi da galde dezake norbaitek? Udaberria aurreratuxe dagoenean, Donostiako azken gotzaiak apaizgintzan 50 urte egin dituzten apaiz eta erlijiosoekin bildu izan dira. Horrela egiten zen don Jose Maria Setienek garaian eta bide bera egin zuten don Juan Maria Uriartek ere. Egun horretantxe jarduten da don Jose kantuan.

Ez da don Jose Amezketak ezagutu duen lehendabiziko erretore bertsolaria izan. XIX.mendeko urteetan Don Juan Ignazio Urretabizkaiak ere dohain hori bazuen, eta bikaina gainera. Don Jose Agirre ere dotore moldatzen da bertso-paperak egiten. Hona hemen esaten dugunaren ispilua:

*(Doinua: Basatxoritxu mokoluzia)*

Abixu batzuk etorri zaizkit  
gaur kantatzeko bertsuak,  
argitasunik ematen badit  
gure Jaungoiko ahaltzuak.  
berrogeita hamar urte luzetan  
egindako zerbitzuak  
ixtimatuak daude ta izan  
guztiok zorintzuak

Irailean bere eguna  
Arantzazuko Ama Birjinak,  
Meza Nausia ematen zuen  
Don Jaime gure gotzainak  
urte hartako nombramentuak  
uzten zituen eginak,  
mudantza franko ekarri zuten  
orduak sobre urdinak.

Orain Gotzaiak estutzen gaitu  
Eliza berritzearekin  
ta ez dakigu nola asmatu  
pastoral barrutiakin.  
Ai, Nikodemo, zure galdera

hemen daukagu geurekin:  
“Ta berriz jaio behar al degu  
ia laurogei urtekin”?

Zahartzaroan izan zazuen  
Eliz amaren epela,  
jakindu degu Don Juan Mariak  
asmo eder bat duela:  
diruak diru kostatu arren,  
beste gauza asko bezela,  
laster martxan da Donostiako  
Jubilatuen hotela.

Herriko plazan aukeratuak  
Nagusi errukiorrak,  
goiz-goizetikan landuituzue  
mahasti eta alorrak.  
Mila zorion, apaiz ta fraile,  
zuek bai langile gogorrak!  
Denario bana jaso zazue  
ta orain hartu oporrak.

Don Joseren bertsook 2006ko maiatzaren 9koak dira. Gaur egun, bertsoak esaten duen *Jubilatuen hotel* horretan bizi da Donostian. Ez dauka bazterturik, ordea, Amezketako herria.

**-Agirre Ramon. Kargajasotzailea.** Seguru asko, Santos Iriarte Errekartetxo ez baina Ramon Agirre bedaioarra izan zen lehenengoa *Albitzuri Haundi* harri famatua bizkarrera altxatzen. 1947ko abuztuaren azken egunetan izan zen hori. Atzetik barrena jaso zuen. Apika horrengatik, garai hartan atzetik egitea onartzen ez zelako, baliorik gabe geratu zen jasoaldia baina,

argazkiek erakusten dutenez, Ramon Agirrek bizkarrean nibelatu zuen. Beraz, berari aitortu beharko litzaioke *Albitzuri haundi* harri sonatua lenendabiziko izan zela.

XX.mende erdi aldera, Sautseko Esperanza Soledad Andruina Dominguezekin ezkondu eta Argentinara joan zen Ramon Agirre. Asko saiatuta, hotele baten jabe egin zen Ramon. Nahikoa gazterik hil zen Argentinan.

#### **-Agirrebarrena Olasagarre Felipe. Alkate bi bider izana.**

Felipe 1871ko martxoaren 29an jaio zen. Gurasoak: Juan Martin Agirrebarrena Balda eta Mikaela Olasagarre Goikoetxea.

Ezkondu 1901eko azaroaren 26an egin zen Josefa Antonia Agirrezabala Gomendiorekin.

1924an, Fernando Amezketarrari eskaini zitzaion omenaldia Felipearen lehengo legegintzaldian egin zen.

1932ko ekainaren 19an, Iruñeko Gaiarre antzokian, Euskal Estatutua bozkatu zenean, Felipe Agirrebarrenak zeraman Amezketako ordezkaritza. Estatutoaren aldeko boza eman zuen.

1936ko abuztuaren 10ean, Gipuzkoa Francozaleen indarrek mendean hartu zutenean, Felipe Agirrebarrena izan zen berriro ere alkatetzan, Amezketan.

#### **-Agirrezabala Altuna Teresa.**

1935an jaio zen Teresa. Bere hitzak *Ahotsak. com* atarian daude jasota. Honela aurkeztu dute Teresa:

*“Amezketako Galartzegi baserrian jaioa. Bi gurasoak amezketarrak. Eskolan matematiketan iaioa, baina ez eskola zalea. Margarita Etxeberria Murua bere eskolako lagun minarekin hamaika bihurrikeri egina”.*

Azken urteotan hutsik dago bere jaiotetxea Arrondon.

#### **-Agirrezabala Ignazio. Salinen izozturik hildakoa.**

Gerrate ondoko urte zailetan, estraperlo lanean zebilela, Salingo parajea hil zen *Aintziarbeko* Ignazio Agirrezabala. 1949ko abenduaren 10ean gertatu zen hori. Medikuek hau idatzi zuen bere txostenean:

*“en el paraje denominado Salin, falleció en la Sierra de Aralar, a causa de la parálisis respiratoria debida a la congelación”.*

Hil zen parajea burdinezko gurutze txiki batek gogorazten digu Ignazioren oroitzapena.

#### **-Agirrezabala Pagola Juliana. Idazlea.**

Juliana Agirrezabala 1854ko abuztuaren 17an jaio zen Amezketan. Bere gurasoak: Juan Frantzisko Agirrezabala Garagartza eta Josefa Joakina Pagola Mendizabal. Hauek hamar seme-alaba izan zituzten; bigarrena zen Juliana. Bere haurtzaroa Amezketan egin ondoren, Bilbora joan zen bere senide guztiekin.

Maistra izan zen Bilbon. Eta idatzi ere sarritan egiten zuen. Gaztelaniaz oso txukun idazten zuen eta baita euskaraz ere. Oso artikulua estimagarria idatzi zuen XX.mendearen hasieran Amezketako Erromeriaz. Ordurako berrogeita hamar urtetan zebilen. Bere gaztaroko oroitzapenak datozkio burura:

### **AMEZKETAKO JOLASAK**

*La verdad es que los niños en sus juegos son siempre y todas partes encantadores, los mismos los que Selgas veía jugar en el Prado de la Corte formando distintos y variados grupos, que se le antojaban ramilletes de rosas cortadas, como los que se divierten á la "Kinkiliñera" en cualquiera de nuestras aldeas, v.g. en la anchurosa plaza de Amezketa tapizada de verde alfombra y parapetada por el erguido Aralar.*

*Allí he jugado en mi niñez á las "biciketas" ó "echekoandresketas" unas veces, al corro, otras entonando el sonoro cantar:*

*Antonio Josepe*

*Erregea dator, dator*

*Jarri belauniko etc.,*

*o en fraternal consorcio con los chicos corriendo por riscos y prados con esa grata actividad que hace latir el pulso y dá vigor y salud á todos los órganos eximiéndoles así de la desgracia de ser sacrificadas por muerte prematura y por respeto á las apariencias al "Molock" de la vanidad material, que diría Spencer.*

*Y allí he bailado los domingos por la tarde en los corros de las niñas que con febril entusiasmo se agitaban cual satélites del corro magno que la gente moza formaba al son de la pandereta, manejada con gabro y maestría por los flexibles de una morena Vissenta, feliz poseedora de una privilegiada garganta y de una memoria repleta de cantares como el siguiente:*

*Baratzako pikuak*

*Iru churten ditu*

*Orrako mutill orrek*

*Ankak arin ditu.*

*Alguien dirá que esto es lo que los franceses llaman un "cog-á-l'ane"; pero ¿qué entienden los que tal dicen de cosas de mi tierra, ni cómo pueden sacar el jugo y la gracia á las*

*canciones de Vissenta si no han vivido la vida de la aldea? ¿Cómo pretender que con esos tales sean capaces de encontrar el chiste y agudeza que yo encontraba á esta otra copla:*

*¡Ah! mutill bekok illun*

*Begia lo gure*

*bayetz uste dek baña*

*ez nauk ire gure.*

*Ni como pueden descubrir la filosofía que para mí encerraba esta*

*Churiak eta belchak*

*mendian ardiak*

*Zuz(zuk) ere ez dituzu*

*bentaja gukiak(guztiak)*

*Y para que se tenga muestra de la riqueza del repertorio de Vissenta y de la variedad de géneros que cultivaba, he de citar algunas que huelen á idilio:*

.....

*Goiz datorren lorea*

*Berez bada piña*

*sendo itsatsitzeko*

*izango du griña*

*Chertu onetik gogoz*

*Badator egiña*

*Arren alea(k) ez du*

*izango samiña.*

*Ale gozoak ere,*

*eldu gabetanik,*

*gogoz jan, da gaitz egiñ,*

*Ykusten ditut nik.*

*Dala erre, egosi ero (oro) bat gordiñik*

*Alako janariak*

*ez lezake onik.*

*Eldu gabeko naia*

*Baldin banitzake*

*Ez nuke idukiko*

*Biotza ain triste....etc.*

*La historia es larga; pero contada ó cantada por la graciosa Vissenta que sabía acompañar cada estrofa con distinto repiqueteo de su mágica pandereta cuajada de cascabeles, despertaba en el corro de bailarines fruición siempre nueva aunque hebdomadariamente repetida.*

*La copla final de la tarde que siempre llegaba antes de que se cansaran mis entonces ágiles piernas, decía:*

*¡Ea bada gazteak*

*Ariñ ariñ, ariñ!*

*Laster illuna data*

*Alegiña egiñ.*

*Y efectivamente, obedecían todos al mandato redoblando el empeño en cumplir bien con el cometido, para luego obedecer también al primer toque de Angelus, que despejaba instantáneamente la plaza.*

*¿Y el tamboril? ¡Ah! no tenía la villa para esos lujos; solo una vez al año, en obsequio al gran San Bartolomé, patrón del pueblo se contrataba á Chamboliñ, de Villafranca, que era recibido á su llegada por todos los rapazas del pueblo, que espontáneamente y llenos de un no fingido entusiasmo, saltan á recibirle á distancia de tres kilómetros de la última casa.*

*Y á la alborada con que nos regalaba la mañana del 24 de Agosto, colocaba en mi concepto á Chamboliñ á la altura de la gentil Vissenta mereciendo los dos por igual mi voto para los honores de la apoteosis.*

*Juliana de Aguirrezabala*

*Bilbao, Julio de 1906*

Oso artikulua aparta da hau. Modu egokian erakutsi digu Juliana Agirrezabalak XIX.mendearen bigarren erdian nola libertzitzen zen Amezketako jendea. Eskaintzen duen informazioa paregabea da. Nahiz eta hirian bizi, gogoan ditu Amezketako ohiturak.

Euskaraz ere ongi moldatzen zen gure Juliana. Grazi ederreko euskara erakusten du. Hona hemen bere idatzietako bat:

*"Austriako enperadore Frantzisko José eta Sajoniako erregea joan omen ziran beiñ, beste askotan bezela, eizera. Illunabarrian arkitu ziran oso nekaturik; beren jantziak autsez estali eta, praketatik eta chamarretatik zatia zerariela arantzak eta laarrak zizkioten merioz, itz batean, arkitu ziran planta guziz eskasean.*

*Ontan ikusten dute baserritar bat bere burdi chiqui edo burchoe batekin, eta jaun andi aiek alkarri begiratzuz diote:*

*-Eizean, eizean bezela; gizon onek nahi badu, goazen burdi char ortan.*

*Esan da egin, baserritarrak baimena emanik, iritxi ziran urira. Zakelan eskua sartu zuan enperadore jaunak arri bere mesedea gaiñezka saritu naian, eta esaten dio:*

*-¿Badakizu, gizonchoa, zein geran gu?*

*-Ez nik.*

*-Gu gera Sajoniako erregea eta Austriako enperadorea.*

*-¿Eta zuek badakizute, dio baserritarrak, ni zein naizen?*

*-Ez; ¿zein zera zu?*

*-Bada ni naiz Persiako Sha.*

*Au esatearekin batean jotzen du zaldia oju egiñaz:*

*- Ez daukate ni toriatzeko gogo charra arlote bi oiek!*

*Aitorren Alaba*

*J. A.*

Amezketak eman duen lehenengo emakumezko idazlea ez ote da gero Juliana Agirrezabala Pagola? Bai, seguru asko.

**-Agirrezabala Migel Ignazio.** Amezketako eskribau izana: 1810-1847. Jaiotzez Bedaiokoa, baina Amezketako eliza nagusian bataiatua. Ikaztegietan ere luzaroan eskribautzan jarduna.

**-Agirrezabala Lasa Joakin Migel. Medikua Guallegayn.**

Jaiotzez madrildarra bazen ere, jatorriz Amezketarra zen. Bere gurasoak gure herrian jaiotakoak ziren.

Joakin Migel Madrilen jaio zen 1860an. Medikuntzako ikasketak bukatu orduko Ameriketara joan zen. Amezketar gehiago bazen Gualleguy deitu hirian ordurako: Jose Maria Pagola Mendizabal doktorea, don Martin Jose Pagola Maiz apaiza...



Honela dio *El aporte inmigratorio Gualeguay 1765-1900* liburuan bere egileak, Olga G.de Massonik:

*“La comunidad de Gualeguay tuvo la suerte de recibir en su seno en el año 1880 al Dr. Joaquin Aguirrezabala. Nacido y educado en España, a poco de su entrada en Argentina revalidó el título de médico y desde entonces dedicó su fecunda vida a los intereses de la vecindad gualeguayense. En 1895 cuando el cólera azotó a nuestra ciudad, su espíritu humanitario se prodigó sin ahorrar sacrificios. Durante años atendió con la misma presteza al rico y al pobre, en ciudad y campaña. El pueblo de Gualeguay agradeció y reconoció su empeño en favor del semejante. Un importante monumento erigido en plaza pública recuerda al hombre de bien que fue el Dr. Joaquín de Aguirrezabala”.*

Joakin Agirrezabala doktorea Ernestina Laurenzena Garcia Durañonarekin ezkondu zen 1896an.

1916 aldera hil zen, 56 urterekin. 1920an monumento bikaina eskaini zioten Gualeguy hiriko bizilagunek.

#### **-Agorreta Imaz Migel Jose Lorentzo. Meatzaria.**

Amezketan jaio zen 1758ko abenduaren 17an. Ana Frantziska Gorostegirekin ezkondu zen. Arritzagako Meategiarekinn gauza onik ez zegoela ikusi zuenean, Venezuelara joateko aukera sortu zitzaion; baita joan ere. Honelaxe eskatu zuen baimena bere emazteak:

*“En la L. y N. Villa de Amezqueta a diez de Septiembre de mil setecientos noventa y dos, Ante mi el infraescrito escribano de S. M. Rl. y del numero de la villa de Alzo y testigos que de Yuso se diran pareció presente Ana Francisca de Gorostegui muger legitima de Miguel Joseph de Agorreta, natural y vecina de esta dicha villa de Amezqueta. Y dijo que dicho su marido yntenta pasar a la Provincia de Benezuela, obteniendo permiso Real, para emplearse en el oficio de refinador, en una mina de cobre que en el partido llamado los Zerros de Cocorote en Aroa Arriba de dicha provincia tienen y manejan a medias Doña Francisca de Sagarzazu viuda y Don Francisco de Recalde, vecinos de la ciudad de Caracas, para cuio efecto ha sido llamado por Don Carlos de Errecalde Padre de dicho don Francisco, que de un año a esta parte reside en la citada Provincia, habiendo pasado a ella con el designio de promover y poner en planta corriente dicha mina y su fabrica, mediante la falta de vista con que se halla el referido don Francisco de Errecalde su hijo y conociendo como reconoce la otorgante las ventajas y utilidades que han de resultar a la misma, a sus hijos y familia de trasladarse dicho Joseph Miguel su marido a la nominada Provincia de Benezuela colocándose en calidad de refinador de la expresada Mina de Cobre y su Fabrica por el tenor de este instrumento de su libre y espontanea voluntad, sin fuerza ni inducimiento alguno, Concede su permiso y licencia al dicho Joseph Miguel de Agorreta su marido para que facilitando el Real permiso necesario, pueda pasar libremente a la referida Provincia y mantenerse en ella por el tiempo que le acomode sin que nadie le ponga ni le pueda poner embarazo alguno, ni tampoco mientras quisiese mantener en la referida Provincia de Benezuela; pide y suplica a los señores Gobernador y Capitan general, y demas señores Jueces y Justicias de ella, no le pongan estorbo en ello al*

*citado Joseph Miguel de Agorreta su marido; Y se obliga con todos sus bienes y rentas á estar en reconocimiento de este instrumento que otorga con todas las clausulas requisitos y circunstancias necesarias en derecho, y no firmo por decir no sabia escribir y por ella y a su ruego firmo uno de los testigos que por tales se hallaron presentes Juan Ignacio de Otermin, Joseph Antonio de Aguirre y Martin Antonio de Arizmendi vezinos de esta villa, y en de lo sobredicho y de que conozco a la otorgante firme yo el escribano.*

*Testigo Juan Ygnacio de Otermin. Ante mi Juan Antonio de Lanz”.*

#### **-Aierbe Bixente. Mendizaleen laguntzaile fina: 1911/1984.**

Amezketako herriak bere txokoa badu euskal mendizaletasunaren historian. Aitorpen hori zor zaio. Nahiz eta San Migel aldetik Aralar mendietako gainetara erosoago igo, Gipuzkoako mendizale askok Amezketatik gora igotzea nahi izaten zuten. Horretarako Tolosa nahiz Alegiara trenez etorri eta, Ignazio Zubeldiaren autobusean igotzen ziren mendizaleak Amezketara.

Gorakoan ez bazen, beherunzkoan mendizale gehientsuenak Bixenteren Aterpean (**Albergue Bixente**, paperetan) gelditu ohi ziren: erropaz aldatzeko, bokadu bat ahoratzeko, atsedena egin indarberritzeko...Hantxe izango zuten gure Bixente eskatutako laguntza emateko, eta gogo onez gainera beti.

1911ko urtarrilaren 17an jaio zen mundura *Urretanea* esaten zitzaion etxean. Bere gurasoak: Migel Ignazio Aierbe Saralegi eta Maria Kaietana Agirrezabala Sarelegi. Hauek 1903ko azaroaren 18an ezkondu ziren Amezketako eliza nagusian. Ezkondu eta *Urretanean* jarri ziren bizitzen. Egia esateko, izen gehiago ere izan ditu etxe honek bere historian. 1790ean bukatutako da. 1940an, bere etxabea ostuta modura erabiltzen hasi ziren Aierbetarrak. Irabaziak ere urri eta, zer egin ez zekitela, Jose María Pezina mendizale ezagunak argitu zien zer egin. Ostatu ez baino mendizaleen aterpe izan zitekeen lokal hura. 1952ko urriaren 19an aitortu zitzaion kategoria hori.

Aurreko urteetan bai, baina gerozkoetan ere milaka eta milaka mendizale fin eta sasi-mendizale pasatu zen Bixenteren aterpetik. Ezaguna egin zen oso Bixente, eta baita bere familia osoa ere: aitona Migel, arrena Maria eta honen senarra, Jose Altuna Sarasola.

Omenaldi eta errekonozimendu asko jasotakoa zen Bixente. Azkena, 1975eko azaroaren 30ean eskaini zitzaiona izan zen. Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatu zuen egun hura. Ez zen batere haserre gure Bixente!

1984ko uztailaren 29an hil zen Mendizaleen Aingeru esaten zitzaion hura. Mendizaleei makina bat lagundutakoa zen. Oraindik ere bizirik dago askoren baitan Bixenteren oroitzapena.

-Aierbe Joxe Ramon. Pilotaria.

**-Aierbe Martin. Pilotaria eta aguazila.**

**-Aierbe Etxeberria Jose. Pilotaria.**

Amezketako *Juan Lopezenea* etxean jaio zen 1944ko martxoaren 18an. Aita Joxe Ramon pilotari ona zuen, osaba Martin ere bai, ez da harritzekoa beraz Joxek berak ere zaletasun hori izatea. Afizionatu mailan punta puntakoa izan zen. 1968ko maiatzean Espainiako Txapelketan finala irabazi zion Tripita errioxarrari. Sestaon jokatu zen partida. Hurrengo egunean primerako festa eskaini zitzaion herrian: dantzariak, txistulariak, udal gorporazioaren ongietorria. Aho-gozagarriak ere izan ziren.

Aierbe Etxeberriak ez zuen zorte bera izan profesionaletan. Osasunak ere ez zion lagundu aldi batean, eta ez zituen lortu espero zitezkeen emaitzak.

Gaur egun Villabonan bizi da bere familiarekin.

-Aierbe Etxeberria Pedro. Katedraduna.

**-Aierbe Galartza Manuel.**

*Etxaiz barrenekoa* semea. Korrika apustutan parte hartutakoa bere gaztaroan.

**-Aierbe Saralegi Frantzisko Ignazio.** Jaio: 1883-10-21. Gurasoak: Bartolome Aierbe Agirrezabala eta Mikaela Josefa Saralegui Otegi. Heriotza: 1897-02-09. Hona hemen nola eman zuen 1897ko La Baskonia astekariak bere heriotzaren berri martxoaren 20ko alean:

*"Comunican de Amézqueta que habiendo encontrado un revolver en la posada de dicho pueblo un hijo de los dueños de la casa llamado José Joaquín Ayerbe Saralegui soltero, de 20 años de edad, se le disparó el arma, con tan mala suerte, que causó, con el tiro, la muerte a su hermano Francisco".*

-Akulodi Frantziska.

**-Altuna Garmendia Jose. Pilotaria. Soinujolea.**

Jose Altunak bi afizio, zaletasun zituen gaztetan. Batetik, pilotarakoa. Bestetik, eskuetako soinua jotzekoa. 1930eko urtarrilaren 5ean jaio zen, Amezketako *Sasturain* etxe-tabernan. Umetan, triple izan zen Amezketako koruan.

Soinua asko gustatzen zitzaionez, bat erosi eta Jose Tarragonarekin ibilizen ikasten. Etxeko tabernan jardun ohi zen batipat; kalean, noiz edo noiz. Kuadrilakoentzat ere asko jotzen zuen Josek.

Joseren aita, Joakin Altuna Labaien, pilotaria izan zen bere gaztaroan. *Irigoien* izengoitiz ezagutzen zuten pilotazaleek. Ez da harritzekoa, beraz, seme Josek ere zaletasun hori izatea. Aurrelari fina zen.

Gero, bi seme izan ditu Josek erremontean asko nabarmendu direnak: Imanol eta Garikoitz. Zenbat partidu ez ote du ikusi Josek Galarretan eta Euskalen?

**-Altuna Guadalupe. Andereñoa.**

Maisu-maistratzan, andereño-irakasletzan urte asko jardundako profesionalak ezagutu ditu Amezketak. Horien artean ipini beharko genuke Guadalupe Altuna. 1973-1974ko ikasturtean etorri zen Amezketara, eta 2007ko urtarrilaren 25ean hartu zuen erretiroa. Omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion. Jendeak estimatzen zuen seinale.

**--Altuna Martin. Abaltzisketako Erretorea 1630 aldera.**

Aberatsa zen elizgizon hau. Besteak beste, bereak ziren Amezketan Zabal goena, Garaikoetxea, Loiola, Etxaiz barrena eta Bitorrrena esaten zitzaiona. Azken honen berri zehatzik ez dugu.

Amezketako herriak Tolosarekiko loturak 1615ean apurtu zituenean, diru asko behar izan zuen Erregeari jasotako mesedea ordaintzeko. Lur-sail dezente atera behar izan zen enkantera. Erosketa handiak egin zituen don Martin Altuna apaizak.

**-Altuna Atxaran Jose.** *Oteitzakoa.* Bere hileta 1938ko abenduaren 12an egin zen. Jose Ramon eta Ignaziaren 26 urteko semea zen. Castellongo frentean hildakoa. Barracas izeneko herrian ehortzi zuten.

-Altuna Ambrosio.

-Altuna Antonio

**-Altuna Karlos.** 1802ko urtarrilaren 5ean atxilotu zuten Bilbon. Ramon Antonio Oreja izan zitekeelakoan zeuden Bizkaiko agintariak, baina egiaz, Karlos Altuna zen itzalean zeukatena. Hala ere bere burua *XX Goñi* bezala aurkeztu zuen bere burua eta Iruñean jaiotakoa. Beste amezketar batek argitu zien agintariei atxiloturik zeukatenaren nortasuna: Karlos Altuna.

1802ko azaroan Gasteizko espetxean zegoen. Bost egun egin zituen bertan. Arabako agintariak 7 erreal eman zizkien, ahora eramateko zer bait izan zezan. Eguneko *a real y medio diario a cada uno*. Agiriak argitzen duenez, hilabete horretan irtengo zen Gasteizko espetxetik. Han egon zen egunetan beste amezketar bat ere ezagutu zuen giltzapean: *Mendiko* baserriko Frantzisko Zabala.

-Altuna Manuel.

-Altuna Antonio Maria. Aguazil hogeita hamabost urtetik gora.

**-Altuna Aierbe Garikoitz. Erremontista.**

**-Altuna Aierbe Imanol. Erremontista. Aurrelaria.**

2008ko urriaren 4an jokatu zuen bere azken partidua Galarretako pilotalekuan. Bere atzelaria Migel Mari Urrutia izan zen, eta arerioak Iñigo Lekunberri eta Iñaki Lizaso. Hauena izan zen garaipena: 40-35. Nahiz eta partida galdu, oso maila egokia erakutsiz joan zen Imanol. Hogeita bat tanto egin zituen azken plazaratzean. Berrogei urte beterik zebilen.

Imanol 1968ko uztailaren 31an jaio zen. Oso gazterik egin zuen debuta: 19 urterekin. Oso ibilibide luzea egin zuen erremontean: 21 urte.

Bi bitako Txapelketa Nagusian txapeldun egokitu zen 2002an Jon Eizagirre atzean zuela. Hala ere bere markarik aipagarriena zera da: zazpi bider ailegatu zela finalera. Urteak: 1992, 1993, 1994, 1995, 2001, 2006 eta 2007. Lau bider irabazi zuen San Fermin Torneoa: 1994, 1999, 2001 eta 2005.

Oso pilotari estatimatua zen erremontezaleen artean.

#### **-Altuna Labaien Joakin. Pilotaria.**

Guretzat, *Sasturaingo Joakin*. Amezketako Kontsejuan jaio zen Altuna Labaien 1901eko martxoaren 17an. Amezketako Kontsejuak bazuen bere sarreran, *Kontsejupe* esaten genion umetan, pilotaleku txiki bat. Neguan batipat bere estimazioa izaten zuen. Hantxe ikasi zuen Joakinek pilotan. *Irigoi*en izengoitiarekin zen ezagunagoa pilotazaleen artean.

Katalina Garmendiarekin ezkondu eta Sasturain etxe eta tabernan eman zuen bere mundualdia. 1979ko maiatzaren 8an hil zen.

#### **-Altuna Jesus. Aguazila eta postaria.**

#### **- Altuna Sagastume Jose. Azken gerratea hildako gaztea.**

*Liñabiagakoa*. 1939ko otsailaren 12an lurra eman zitzaion Frantzisko eta Leokadiaren 18 urteko seme honi: *“Según comunicaron de fecha de 5 de febrero pasado ingresó cadáver en el Hospital Militar de Sigüenza, día 4 de febrero pasado, á consecuencia de tiro en la cabeza. En el acto del fallecimiento se encontraba soltero y soldado en el Regimiento San Quintín número 25”*.

- **Altuna San Sebastian Hilario**. 1938ko martxoaren 30ean ehortzi zuten 20 urteko soldadua. Ramon eta Mariaren semea zen. Frenteko ekintza batek ez baino bronkitiak eraman zuen mundu honetatik Gasteizko hospitale batean.

#### **-Amezqueta Bartolome. Eskribaua Tolosan.**

#### **-Amezqueta Frantziska. Serora.**

Oso agiri egokia daukagu Frantziska honi buruz. Hala ere, ez dakigu noiz jaio zen. Dakiguna da hil 1699ko urriaren 11an hil zela. Hona hemen berari buruzko xehetasun batzuk bere anaia Bartolomek esanda:

*“Sepan quantos esta publica escritura vieren como yo Bartholome de Amezqueta escrivano de Su Magd y del numero de la Villa de Tolosa y vecino de esta Villa de Amezqueta, digo que por quanto Don Juan de Heraso señor de las casas de Amezqueta, Heraso y Murguinduetta Patrono unico merelego de la Yglesia parroquial de san Barholome desta dicha*

*Villa de Amezqueta ha nombrado por serora de la dicha parroquial a Francisca de Amezqueta mi legitima hermana y ella ha ofrecido en dote para la dicha iglesia cien ducados de moneda de vellon pagados en dos plazos a la orden y disposicion del dicho Don Juan de Amezqueta y Heraso, e yo por acomodar y hazer buena obra a la dicha mi hermana me quiero obligar a pagar a la dicha Yglesia la dicha cantidad a los plazos y segun sera declarado, y poniendolo en efecto, por la presente otorgo y conozco que me obligo de dar y pagar y que dare y pagare realmente y con efecto a la dicha Yglesia parroquial de San Bartolome desta dicha Villa de Amezqueta, o a la persona que en su nombre los huviere de haver según la orden y disposicion del dicho don Juan de Heraso los dichos cien ducados de moneda de vellon de suso referidos, es a saver los cinquenta ducados mitad de los dichos ciento para el dia y fiesta del Apostol San Barholome deste presente año, y los otros cinquenta fin de paga para el dia de año nuebo del que viene de mil seiscientos y sesenta cinco sin mas dilación".PT1043*

#### **-Amezqueta Frantzisko.**

Amezketako Torrea esaten zaion etxekoa zen Frantzisko. 1653an bere testamentua egiten ari zen Tolosan Frantzisko Amezketa. Jaiotzez amezketarra zen. Oso garbi dauka lurra non ematea nahi duen:

*"Mando que mi cuerpo sea sepultado en la iglesia parroquial de Santa Maria de esta Villa, en la sepultura nueva donde esta enterrada Doña Ana de Munita mi primera muger y algunos hijos mios y trasladado el cuerpo del sr. Don Francisco de Munita Vicario que fue en ella".PT1054.*

Bere borondatea Tolosan ehortzea bazen ere, testamentua arakatzen hasi ezkeru, gure herriari buruzko aipamena ugari dira:

*"Yten mando para la luminaria del Santisimo Sacramento de la parroquial de San Bartolome de la Villa de Amezqueta dos ducados".*

Hurrengo pasartean bere buruaz hitz egiten du:

*"Yten digo que la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipzcoa me honro con el oficio de Sindico Procurador de la redempcion de la limosna de los dichos cautivos en la Junta General que se celebrou en la Villa de Motrico por noviembre del año de mil y seiscientos y cinquenta y uno(¿)".*

Ikusten denez, ezagun samarra edo zen Frantzisko Amezketa hau garai hartan. Buru argikoa dela erakusten du testamentuaren txatal guztiak zehazterakoan:

*"Yten digo que por el año de mil y seiscientos y veinte y siete me case con la dicha Doña Ana Maria de Munita mi primera muger de quien tengo quatro hijos llamados: el Sr.don Francisco de Amezqueta presvitero, Bartolome, Francisca y Maria Josepha de Amezqueta y por tales los nombro y por mis herederos legitimos.*

*Y por que al presente no me allo con disposicion de hazer mejora de tercio y quinto ni otra partición y división de la poca hacienda que tengo, por lo qual y por que tengo entera satisfacion en el dicho mi hijo Sr.don Francisco de Amezqueta y Don Juan de Amezqueta mi*

*hermano presvitero abad de Ugarte y en el capitan Don Martin de Jauregui Barria vecino de la Villa de Amezqueta, a los quales y en falta de los unos a los otros doy poder y facultad y comision en forma para que como mejor les pareciere hagan entre los dichos mis hijos la eleccion de heredero mejorándole en el tercio y quinto de mis vienes, uno, o dos dellos o hazer la division y partición dellos entre todos igualmente”.*

Bi bider ezkonduakoa zen Frantzisko. Lehengo emaztea 1645eko martxoaren 6an galdu zuen. Bigarren emaztea: doña Çizilia de Eleyçalde. Tolosarra zen hau ere. Ez zuten seme-alabarik izan.

Frantzisko Amezketaaren arrebetako bat, Ana Maria zeritzana, Migel Galartzarekin esposatua zengoen:

*“Yten digo que el año de mil y seiscientos y quarenta y nueve casados el dicho Miguel de Galarça y Ana Maria de Amezqueta mi hermana a la qual por su dote legitimas que le pertenecian en la casa solar de la Torre y su pertenecido me obligue a darle una casa que tenia en la plaça de Amezqueta, como en efecto se la di y mas en dinero ducientos ducados pagados a çiertos plaços, que el ultimo se cumplió por Navidad del año de mil y seiscientos y cinquenta y dos”:*PT1054

Frantzisko Amezketa, testamentu egin eta handik hilabete gutxira hil zen: 1653-11-12.

#### **-Amezketa Juan. Erretorea.**

Torre etxean jaio zen. Familia onekoa zen. Amezketa erretorea izandako hau 1671ko azaroaren 14an hil zen.

Bere aitorpena da hurrengoa:

*“Como yo Don Juan de Amezqueta clérigo presvitero Rector de la Yglesia parroquial de San Bartolome de esta Villa de Amezqueta y Abad de la Yglesia rural de Nuestra Señora de Ugarte estando en cama de enfermedad corporal y sano de juicio y entendimiento...*

*...mando que despues que yo fallesciere sea sepultado en la Yglesia Parroquial de San Bartholome desta dicha Villa en la sepultura de la casa solar de la Torre sita en esta Villa que esta al lado de la sepultura de los sacerdotes a donde estan sepultados mis Padres hermanos sacertos y demas difuntos de la dicha Casa”.*PT1045.

#### **-Amezqueta Juan de. El Quijote argitaratzeko baimena eman zuena.**

Zalantza franko sortarazitakoa da Juan de Amezqueta deituraz ezagutzen den hau, batez ere bere jaioterriari buruz dagokionean. Zenbaitek dioenez, Bergaran jaiotakoa da. Badira, ordea, Ordiziako semea dela esaten dutenak ere.

Bergarako zela esatearen aldeko arrazoiak. Badira herri honetan, XVII.mendearen bigarren erdian jaiotako bi Amezqueta. Donostiako Elizbarrutiko Artxiboan ikusi ahal denez, lehenengo Juan hori 1556ko otsailaren 4an jaio zen. Eta esaten da: *Madre: Maria Perez Amezqueta. Hijo natural de padre desconocido.*

Bada beste bigarren bat ere. Hau, Joanes Amezqueta. Jaio: 1571eko apirilaren 14an. Ama: *Maria Peres Amezqueta. Hijo natural de padre desconocido.*

Egia da Bergaran ezkondu zela bertako neskatxa batekin. Madrilen gertatu zen hori 1600ko urriaren 23an:

*“Avyendo se casado en la villa de Madrid, siendo testigos don Antonio de Muxica y don Andres de Eguino y Mallea...”.*

Bergaran jaso zuten, aldiz, elizaren bedeinkapena. Argi eta garbi uzten du hori hurrengo pasarte honek:

*“En la villa de Vergara, a veintey tres de abril demil seiscientos y un año. En la iglesia parroquial de San Pedro della recibyeron las bendiciones de la Santa Madre Yglesia Juanes de Amezqueta, natural y vecino de la villa de Villafranca, Secretario del Rey nuestro señor y del Presidente de Castilla y doña Maria de Achotegui y Olaso, vecina de la citada villa”.*

Bergaran jaio zela esaten dutenen artean dago F. Borja Aginagald aditua.

Kurtsiban ipini den pasarte horretan esaten denez, berriz, bistan da Juanes de Amezqueta hori Ordiziako semea zela. Era berean, 1625ean argitara eman zen Lope Martinez de Isasiren *Compendio historial de Guipuzcoa* liburuan ere Ordiziako dela esaten da.

Beraz, auzia erabat argitu gabe dago oraindik. Badakigu, era berean, seme bakarra izan zuela Amezketa-Atxotegi bikoteak: Antonio. Ume-umetan hil zen Antonio Amezqueta. 1611ko irailaren 11an.

Oso ziur dagoena zera da: 1604ko apirilaren 26an, *El Quijote* obra plazaratzeko lizentzia berak sinatu zuela. Horrek egin du mundo zabalean ezagun *Amezqueta* izena.

Juan de Amezqueta hau 1608ko irailaren 9ean hil zen Madrilen.

#### **-Amundarain Tolosa Juan.**

1937an jaio zen Juanito. Buru onekoa da pasadizoak kontatzen. Horregatik dago bere ahotsa *Ahotsak.com* atarian. Laburbildurik biografia hauxe eskaintzen zaio webgune horretan:

*“Amezketako Beratetxeberri baserrian jaioa. Amezketako Urkulaparte auzoan dago Juanitoren jaiotetxea, Amezketako herritik aparte samar, eta Uharteko herrigunetik hurbil. Hala ere, ingurukoek "herbestekoak" deitzen bazieten ere urkulapartearrei, bera beti Amezketar sentitu da. Lanbide bat baino gehiago izan baditu ere (Agurainen morroi, igeltxero Donostian...) inoiz ez da baserriko lanetatik aparte ibili. Joxepa Tolosarekin ezkondu zen, eta bere jaiotetxean bizi da gaur egun ere”.*

#### **-Amundarain Tolosa Lorentzo. Soinujolea. Argazkigilea.**

Ugarte auzoko *Berantetxe berri* auzoan jaio zen 1939ko martxoaren 19an, San Jose egunez. Herriko eskolan ibili ondoren, Tolosako Sakramentinoetan egin zituen ikasketak. Han ikasi zituen solfeoa eta pianoa. Idiazabalgo aita Iparragirre eta Amezketako Aita Martin Gorostidi izan zituen irakasle.



Frailtzako ikasketak utzi eta herrira itzuli zenean, Tolosako Sanchoekin egin zituen soinuari zegozkionak. Don Emigdio Lizartza erretoreak erositako soinua erabili zuen garai hartan. Bera izan zen, seguru asko, Amezketako plazan erromerietan jo zuen azken soinujolea.

Juan Maria Imaz ataundarrak harmonioa jotzeari utzi zionean, Lontxok hartu zuen zeregin hura. Gero, 1963tik aurrera, organu berrian ere jardundakoa da.

Bere ofizioetako bat argazkigintza ere izan da. Laborategi propioa izan zuen. Asko ibili zen garai batean batetik bestera.

Bertsoak idazten ere egokia da oso. Sakramentinoen fundatzailearen bizitza bertsoan kontatzen duen liburua dauka idatzirik. Billabonako Eresargi koruan kantuan kantatzen zuen.

#### **-Amundarain Tolosa Maria Jesus. Lekamea.**

Ugarteko auzoan dagoen *Berantetxeberri* baserrian jaio zen Maria Jesus, 1941ean. Erlijiosa honek Bibliari buruzko ikasketa eta ikerketak egin ditu. Hizlari gisa, Bibliaz eta Fedez jardun izan da jende aurrean. Idatzi ere egin izan du gai hauen gainean.

**-Andruina Dominguez Esperanza Soledad.** Ezagutzen dugunontzat, *Sautseko Esperantxa*.

#### **-Arandia Irazusta Lazaro. Pilotaria. Lehendaziko errefuxiatu amezketarra.**

Tolosako Sakramentinoen ikastetxean egon ondoren, Eladio Balerdiren haroztegian hasi zen lanean. Handik Zarautzera joan zen lan bila, eta handik Leitzaera jotzea erabaki zuen. Hemen hasi zen egoera politikoaz jabetzen eta lehendabiziko ekintzetan parte hartzen. Hori zela eta, Iparraldera ihes egin behar izan zuen 1965an.

Urte honetan ezkondu zen Argitxu Nobliarekin. Hiru seme izan zituzten: Aitor (1966), Mikel eta Ellande (1969).

1969an, beste zenbaiten laguntzarekin, Iparraldeko lehenengo ikastola sortu zuten: *Seaska*.

1976ko apirilean deportatu zuten Lazaro Yeuko uhartera, beste sei ekintzailerekin batera. Ekainaren 3an epaitu zituzten, eta uztailaren 7an ihes egitea lortu zuten. Berrito atxilotu eta Yeura eraman zituzten.

1979an Hegoaldera itzultzeko eskubidea lortu zuen Arandia Irazustak.

Azken urteotan Amezketan bizi da.

Gaztaroan oso pilota fina zen. Amezketan, Tolosan, Zarautzen, Leitzaan, Altsasuan, Azkaraten eta abarretan jokatu zuen. Iparraldean ere bat trinkitean. Frantziako txapelketan aurreratxoraino joan zen.

#### **-Arandia Murgiondo Lazaro. Ugarteko elizan organujolea.**

Auzo honetan jaio zen Lazaro 1905ko otsailaren 24an. Ume umetatik erakutsi zuen musikarako zaletasuna. Tolosan, Eduardo Mokoroarekin jardun zen musika ikasten eta

organuan tratatzen. 66 urte gutxienez egin zituen Ugarteko elizan egiten ziren elizkizunak musikaz jatzten.

Musikoa izateaz gainera, okina-bizargina- autobus gidaria izan zen.

1983an urtarrilaren 9an hil zen.

#### **-Arandia Murgiondo Maria Dolores. Organujolea.**

Bistakoa denez, musika zaletasun handia zegoen Arandia-Murgiondo sendian. Aurreko pasarteetan aipatu den Lazaroz gainera, Maria Doloresek ere doain berezia izan zuen. 1916ko irailaren 28an jaio zen Ugarten.

Anaia Lazarok elizako musika jotzeari utzi zionean, Maria Doloresek hartu zuen bere gain zeregin hori. Pianoa jotzea ere oso gogokoa zuen. Gogotik saiatzen zen auzoko gazteenei musika irakasten.

2005eko abuztuaren 12an hil zen.

**-Arandia Tolosa Juan.** 1937ko abuztuaren 17koa da bere hil-agiria. Asturiasko frentean hilko zen, zauritu eta gero Luarcara eraman zuten eta: *herida de arma de fuego en región frontal con pérdida de masa encefálica.*

**-Arandia Tolosa Pedro.** Azken gerratean hila. Bere familiak 1936ko abenduan jakin zuen Arabako Legutio (Villarreal) herrian zendu zela. Arrazoia: *“A consecuencia de las heridas sufridas al conducir una camioneta”.*

#### **-Artola Jose Maria. Zirujaua.**

1829an, Lezoko herrian, zirujauna hil zenean, amezketar batek bere burua aurkeztu zuen lanbide horretaz arduratzeko. Jose Maria honek Juan Luis Sagastume zirujau amezketarrak utzitako hutsunea betetzeko prest zegoela adierazi zuen.

Egoera ere bihurri samarra zelako, Lezoko alkateak Amezketara eskatu zituen informeak:

*“...para proceder con el pulso que se requiere en un asunto de tanto interes y transcendencia como lo es la salud publica, y creyendo que v. s. debe tener conocimientos de su pericia en su profesión, y de su conducta moral”.*

#### **-Artola Juan Antonio. Amezketan eskribaua izana luzaroan.**

Bai, urte asko egin zuen Amezketako kontuak agirietara eramaten: 1760-1792. Horregatik da oso pertsonaia interesgarria, batipat.

1763an herrian dirua behar eta Donostiara jo zuten amezketarrek. Hipoteka eskatzen zuten San Bartolome komentuko lekaimeek. Bere ondasunak hipotekan utzi zituenetako bat Juan Antonio Artola izan zen:

*“Y como vienes de mi el dicho Juan Antonio de Artola escrivano las casas nombradas la Torre, Miraballes, Zabalgoena, Sagaizar, Maribacarrena y la nueva que esta haciendo en el*

*paraje de Calbario Zarra, que se hallan con sus tierras montes y demas pertenecidos en jurisdiccion de esta villa”.*

Urte hartan, hau da, 1763an herriko alkate ere bera zen. Bere agiri batean esaten da non eginda zeukan etxe berria:

*“la casa nueva que ha fabricado en el paraje de San Martin”.*

Nire iritzian, gaur egungo *Letradunea* etxea ere berak egindakoa da.

Juan Antonio Artola 1793ko irailaren 5ean hil zen Amezketan.

#### **-Artano Zuriarrain Karlos. Apaiza. Ugarteko erretorea.**

#### **-Artano Zuriarrain Lukas. Artzaia eta bertsolaria.**

Etxeberri Haundian jaio zen Lukas. Bere gurasoak: Ignazio Artano Artola eta Maria Antonia Zuriarrain Altuna. Hauek 1909ko azaroaren 3an ezkondu ziren.

Lukasek bere txabola Aralarren *Buruntzuzin* deritzan parajeen zeukan; urte askotan, taberna-legea ere eduki zuen.

Uztapidek idatzitako *Lengo egunak gogoan* zera dio Lukas Etxeberri haundikoaz:

*“Batean tokatu nintzan Lukasekin jardun bearrean ere. Ez dakit zeñekin joatekoa nintzan, baño lagunak pallatu zidan. Ni joan nintzan eta bestea etzan azaldu. Lukasi esan genion eta etzan bereala konpromatu; baño atzenerako esan zuan orregatik baietz.*

*Igo genduan aiuntamentuko balkoira, ta an esan giñuzen geureak. Etzan iñor kejatu beintzat, gaizki kantatu gendualako”.*

#### **-Artola Benito. Alkatea.**

Seguru asko, Loidin jaiotakoa zen Benito, 1674ko maiatzaren 4an. Bere gurasoak: Juanes Artola *Loidikoa* eta Maria Migel Sagastume *Irigoenekoa*.

Benito hau Amezketako alkatetzan 1705-1706an egon zen. Bere udal-errejidore/zinegotziak: Bartolome Etxeberria eta Martin Etxeberria *Danzariena*.

Bere emaztea Benita Galartza izan zen.

#### **-Artola Jose. Alkatea. Alkatea.**

1635ean Jose Artola zen agintari nagusia gure herrian. Bere errejidoreak: Migel Agirre *Apatxekoa* eta Rodrigo Lizeaga *Seroretzekoa*. Sindiko prokuradore nagusia: Manuel Pagola *Tomasenekoa*.

Aberatsa zen Jose Artola hau. Bereak ziren Torrea, Miraballes, Zabalgoena eta Sagaizar.

#### **-Artola Altuna Juan Antonio. Pilotaria.**

Oso maila oneko aurrelaria zen Juan Antonio. Beti amateur mailan jardun zen. Bere biografian bi txapela azpimarratu behar dira, besteak beste. Batetik, herriko taldean parte hartuz, 1993an lortutako Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. Bestetik, hurrengo urtean, 1994an, Xabier Imaz segurarrarekin bikotea osatuz, Donibane Lohitzunen lortutako Munduko Txapelketa.

Profesionalen mailan jokatzeari uko egin zion, baina garaipen asko izandakoa da *Erreroretxe-zahar* etxean jaiotako pilotari ohia.

#### **-Artola Murua Jose. Korrikalaria.**

Gaur *Erretoretxe-zahar* esaten diogun etxe horretan jaio zen Jose. Bere gurasoak: Jose Bizente Artola Etxeberria eta Josefa Antonia Murua Labaien. 1924ean ezkondu ziren, azaroak bi egun zituela, Amezketako elizan.

Korrikalari fina izan zen bere gaztaroan. Apustu zenbait jokatu zituen. Esate baterako, 1950eko urtarrilaren 23, Jose eta Etxaiz barreneko Manuel Bedaioko Bernardo San Sebastianen aurka jardun ziren. Bedaiokoak hogeita bederatzita minutu eta segundu batean burutu zituen zortzi kilometroko lanak. Bukatzeko zortzi metro baino falta ez zitzaizela utzi zuen saioa bikoteak, apustua galduta zeukatela ikusita. Berrito neurtu ziren Jose eta Manuel Bedaioko Bernardorekin. Oraingoan, 12 kilometro nork lehenago egin. Baldintza: Hiru kilometroko erreleboak egin beharko zituen bikoteak. Bigarren apustuan amezketarrak irabazle: 43 minutu eta 8 segundu. Bi itzuli falta zitzaizkiola amore eman zuen Bedaiokoak.

Hala ere Jose Artolaren lanik aipatuena Rafael Agirre Francok dakarrena duzu:

*“No hace muchos años, el 14 de agosto de 1966 exactamente, a las 6 de la mañana, salió Jose Artola Murua, desde Lacunza (Navarra) para llegar a Amézqueta (Guipuzcoa), a través del monte, llevando sobre sus espaldas una carga de 50 kilos. Pretendía batir el record establecido por otro amezketarra, Pedro Sagastume, que había empleado 4 horas 1 minuto y 24 segundos en el año 1948. Cubrió el recorrido en tres horas, 40 minutos y diez segundos, en medio de una intensa lluvia”.*

Jose Artola Murua 2007ko irailaren 5ean hil zen, bere 77 urtetan.

#### **-Artola Murua Juan Jose. Artzaina eta bertsolaria.**

*Latosa* esaten zaion parajeen zeukan bere txabola Juan Josek. Hantxe pasatu ohi zuen udapartea. Negualdia berriz Erreterria-Oiartzun aldean, San Markosko gotorlekuaren inguruan.

Bera ez ezik, bere aurrekoa ere oso bertsozaleak ziren. Hori esan liteke Antonio Zavalak TXIRRITAZ idatzitako liburuan aitortzen dena sinisterra. Honela dio Aita Zavalak:

*“Amezketako Juan Joxe Artola k onela esan digu:*

*Txirrita askotan etorri o izan Amezketara bertsozotara, San Bartolometan, erriko festetan. Bere lengusu Saibururekin izaten zan; Prantzes-Txikiarekin ere baita; Fermin Imazekin ere joan izandu zala aditu izan det.*

*Ta bein baño gehiagotan gure etxera lo egitera. Erretoretxe-zar edo Garagartzanea gure etxearenn izena.*

*Gazta mindua esaten zion, gaztamanteka. Gazta txikituta egiten da, t aura jan bear izaten omen zuan beti. Ura jan da ardo-puska bate dan.*

*Gure aitona zanari ere bazuan kantatua. Aren besoetako naiz ni. Auskalo zeren gañean ariko ziran. Nik ez dakit orain bertso dana, baña onela bukatu zuala bai:*

***Ori gezurra edo egin dan***

***Juan Joxe artzaiari galdetu.***

*Batean, Amezketa´ko festak pasa ta bueltan zetorrela, zaldi-kotxean sartu ta denak bertsoa kantatzeko eta kantatzeko, ta auxe kantatzen asi omen zan:*

***Kotxerua, jo itzik***

***zaldi oiek fuerte,***

***gelditu ere gabe***

***Tolosa´ra arte.***

Uztapidek idatzitako *Lengo egunak gogoan* liburuan ere Juan Joserren aipamena egiten da; Juan Joserena, eta Etxeberri haundiko Lukas Artanorena. Honela gogoratzen zituen Uztapidek Juan Jose eta Lukas:

*“Amezketan bertan ere badira bertsolari politak; Artola bat, eta Lukas bat ere bai. Artzaiak dira oiek.*

*Artola baño txarragoak, asko ikusi ditut nik balkoitik bertsoan, da oso onak diralakoan. Berak ez izan gogorik, zenbaitek bezela. Ez da gustagarria, izan ere, beste denak ixilik daudela, itzegiten jardutea”.*

#### **-Argañabarrena Juan. Alkatea 1631an.**

Nahiz eta bere burujabetza 1615ean eskuratu, urte asko behar izan zen erabaki honek eskatu zituen ordainketak kitzeko. 1631ean, esate baterako, erabaki bat baino gehiago hartu behar izan zuten herriko agintariek. Alkatea, agintari nagusia alegia, Juan Argañabarrena zen.

Garai hartan, *Argaña* idazten zen eta ez, *Argaia*.

-Argañaras Otxoa kapitana

-Argañaras Otxoa Martin

**-Arrataka Garagartza Asentzio.**

Seguru asko, honek eman zion bere bigarren deitura *Larruntza* eraikinei. Gaur egun *Asentzinea* ere esaten baitiegu: *Asentzinea haundi* eta *Asentzinea txiki*. Ez dago noiz jaio zen esaterik. 1570-1575 aldera esango nuke. Bere emaztea Maria Larruntza 1577ko urtarrilaren 19an jaio zen. Bi seme izan zituzten: Ysencio (1615) eta Martin (1622).

1608an komeria dezente izan zuen Asentziok Jauregi Haundiko nagusia zen Migel Erasorekin. Hona hemen gatazkaren muina:

*“Y dijeron que por quanto entre ellos havia habido y ay diferencia en razon de una calzada que el dicho Asencio de Arrataca a echo hazer frente de su casa de Larrunza y el dicho don Miguel de eraso se havia echo contradizion diciendo que la dicha calzada estava echa en tierra propia de la casa solar de Amezqueta”.*

Atzera egin zuen Asentziok bere asmoetan. Aurren-aurrena, errekonozitu egin zuen berari ez zegozkion lurretan egin zuela bidea. Bigarrenik, egindako bidea desegin egingo zuela, ez baitzuen lur haien jabe egiteko asmorik. Modu onean amaitu zen gatazka hura.

**-Artano Karlos.** Apaiza. Ugarteko erretorea izana urte askotan..

-Artano Lukas. Bertsolaria.

**-Artola Joseph. Alkatea.**

1735ko urtean bera zen Amezketako alkate. Zinegotzi-erregidore, berriz, Migel Agirre eta Rodrigo Lizeaga. Sindikoaren lanak Manuel Pagolaren esku zeuden urte hartan.

**-Artola Artano Jose Maria. Zirujaua.**

Amezketako *Ugaldetxiki* etxean jaio zen, gaurko Plaza alde horretan. Bere gurasoak Juan eta Joakina zituen. 1819ko urriaren 27 eta 28an Sendotza hartutakoen artean zegoen Jose Maria, bere bi anaia propioekin batean; Juan Ignazio eta Juan Frantzisko ziren hauek. Horiez gainera, etxe jasotako hiru haur ere bai: Kosme, Maria Magdalena eta Melitona.

Jose Maria Artolak 1826-1829 ikasurteak Madrilen, Medizina eta Zirugiako *San Karlos* Errege Kolegioak eman zituen. Hauek dira datuak:

*“Natural de Amézqueta (Guipúzcoa). Cirujano de 2ª clase sin estudios de ordenanza. Contiene: Solicitud de Admisión; Certificaciones de Estudios; Poder para recoger el Título; Partida de Bautismo e Información de limpieza de sangre”.*

**-Artola Ibarluzea Juan Lorentzo. Amezketako hilerria estrenatu zuena.**

Jakina denez, garai bateko ohitura zen hildakoei lurra eliza barruan ematea. Gauzak horrela egin ziren mendez mendez, harik eta bestelako agindua 1810ean zabaldu zen arte. Juan Lorentzo Artola izan zen lehena eliza gibelean, atzean egin zuten hilerrian lurreman ziotena. Don Juan Ignazio Urretabizkaia erretorearen oharrak hori esaten digu:

*“A las tres y media del día veinticuatro de marzo de mil ochocientos diez, murió de vejez de edad de 68 años, habiendo recibido los Santos Sacramentos de la Penitencia, Comunión y Extremaunción, y al día siguiente fue enterrado en el campo santo de la Yglesia Parroquial”.*

**-Artola Loidi Benito. Alkatea.**

1706an Benito zen Amezketan alkate eta epaile arrunta. Kontsejua osatzen zuten gainerakoak:

-Bartolome eta Martin Etxeberria *Danzariena* (sic), errexidoreak.

-Juan Oriazabala *Argaia barrena*, sindiko prokuradore nagusia.

**-Artola Maiz Jose Maria. Banka gizona.**

Felix Elejalde eta Juan Erentxunek idatziko *Alegria de Oria-Amezqueta-Ugarte-Alzo*- Bedayo liburuan, pertsonaia ezagunen zerrenda egiten ari direlarik, hau esaten da:

*“Don Juan Ignacio de Artola y Echeverria, bautizado en esta villa en 1779, casó con doña Madgalena de Maiz. Fue hijo de este matrimonio don José Maria de Artola, nacido en San Sebastián, que hizo una cuantiosa fortuna en América y fundó casas de banca en Londres, Paris y San Sebastián.*

*Este linaje tiene ilustres ramas en Astigarraga, Usúrbil, Tafalla, etc. Su escudo de armas es: de plata con una encina de sinople terrasado de los mismos y dos jabalíes de sable pasantes y afrontados”.*

Informazio hauetan oinarriturik, orain arte bildu ahal izan diren xehetasunak hauek lirateke:

Juan Ignazio Artola Etxeberriaren gurasoak Rafael Artola Sarasola eta Maria Ignazia Etxeberria Etxaniz ziren. Seguru asko, Bedaioko *Zumizketan* bizi izan ziren. Beren seme Juan Ignazio 1779an ez baino 1775ean jaio zen eta Amezketan bataiatu zuten.

Juan Ignazio Artola hau Maria Magdalena Maiz Sagastumerekin ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituzten; batzuk Donostian jaio ziren mundura, bestak Amezketan.

-Jose Maria Artola Maiz: 1799-08-12. Donostian.

-Josefa Bautista: 1801-03-20. Amezketan.

-Jose Frantzisko: 1804-12-03. Donostian.

-Jose Antonio Roke: 1805-07-08. Donostian.

-Jose Ramon Santiago: 1808-02-02. Donostian.

-Migel Ignazio: 1809-05-30: Amezketan.

Ameriketan aberastu eta banka-etxeak sortu zituenari buruz datu handirik ez dago. Honako hau, ordea, gure Artola honi buruzkoa izan daiteke:

### **“EI POTOSÍ**

*Quizá uno de los más bellos barcos de la marina mercante boliviana, el POTOSÍ era un navío Clase Clipper "Flying P Liner" de cuatro palos mayores, que aseaba orgulloso la bandera boliviana por los mares de Europa y América. Pertenecía a Don José María Artola, fundador de la prestigiosa firma Artola & Hermanos, comerciante de minerales con sucursal en Europa. La prestigiosa firma tenía agencias de importación en Cobija (sede de la aduana) y Antofagasta, depósitos de mercaderías en Calama además del gran mérito de haber instalado una Fundición de Cobre en la ciudad de Cobija. El POTOSÍ fue transferido a una firma inglesa después del asalto chileno a nuestras costas.*

Zer adierazi nahiko luke apunte honek? Jose Maria Artola Bolibian ibili zela, eta han aberastu zela. Besteak beste, *El Potosí* izeneko itsasuntziaren jabe egiteraino. XIX.mendearen bigarren zatiko kontuak dira. Ez da informazio handia, baina zerbait bada.

Hori bai, Donostian hil zen Jose Maria Artola Maiz: 1882-07-26. Bere ama Maria Magdalena ere Donostian hil zen: 1856-02-24.



**-Artola Murua Jose .Korrikalaria.**

*Erretoretxe zahar* esaten diogun etxean jaio zen Jose. Oso kirolari fin fina izan zen zen gazte gaztetatik. Korrikari ona izan zen bere gaztaroan. 1950 aldera norgehiagoka bat baino gehiago izan zuen Artolak. Hala ere, sona gehien emandako lana 1966ko bat izan zen. Rafael Agirre Francok honela kontatzen du:

*“No hace muchos años, el 14 de agosto de 1966 exactamente a las 6 de la mañana, salió José Artola Murua desde Lacunza (Navarra) para llegar al pueblo de Amézqueta (Guipúzcoa), a través del monte, llevando sobre sus espaldas una carga de 50 kilos. Pretendía batir el record establecido por otro amezketarra, Pedro Sagastume, que había empleado 4 horas 1 minuto y 24 segundos, en el año 1948. Cubrió el recorrido 3 horas, 40 minutos y 10 segundos, en medio de una intensa lluvia”.*

Urte asko eman zuen Amezketako Papel fabrikan lanean. Maria Teresa Altuna Muruarekin ezkondu zen. Bi seme izan zituzten: Jose eta Juan Antonio, hau pilotari ona izana.

2007ko irailaren 5ean hil zen Jose Artola Murua. Handik hiru urte eskasera bere emazte Maria Teresa (2010-07-08). Honi bertso hau eskaini zioten bere seme-alabek:

*Sortu zinen sortu gintuzun*

*bizitza degu jueza...*

*Orain bazoaz eta familiak,*

*A ze onartu nahi ezaj*

*Guztiontzako zure hutsuna*

*ez denez gauza erreza:*

*Txindokipean izango degu*

*betiko zure babesa.*

-Artola Murua Juan Jose. Artzain eta bertsolaria.

-Artola Toledo Josefa Ignazia. *Erromesa*.

-**Artola Silberio**. Harotza. Zurezko eskulanak egiten iaioa. Bere garaian, *argiola* sorta egindakoa.

-**Artola Toledo Josefa Ignazia**. *Erromesa* eskalea.

Bere izen-deitura propioz baino ezagunagoa da bere izengoitiarekin: *Erromesa*. Horrela esanda gogoratzen dira gaurko amezketar urtetsuenak oraiandik ere. Nondik ote zetorkion gaitzizen hori? Juan Garmendia Larrañagak emango digu erantzuna:

*“Tengo entendido a mis informantes que la Erromaixa (honela idazten du Garmendia Larrañagak) fue madre soltera y en cumplimiento de la pena impuesta en confesión hizo a pie el viaje a Roma. De ahí el nombre de Erromaixa, por el cual fue conocida ulteriormente”.*

Josefa Ignazia Artola Toledo Ugarteko Etxeberrin jaio zen: 1839-05-02.. Bere gurasoak: Jose Frantzisko Artola Zabala eta Bautista Ignazia Toledo Otamendik. Gure Josefa Ignaziak zazpi senide ezagutu zituen etxean.

Erromatik itzuli ondoan, esketik bizi izan zen *Erromesa*. Aldian aldi, baserririk alden duenetara ere joaten zen; batez ere uda partean. Neguan, gutxiago. Eta elurrak bazterrak zuritzen zituenean, kale aldean ibili ohi zen. Erretiratu, ilunabarrero, Intxausti etxean egiten zen. Hantxe aurkitu zuten hilda 1918ko azaroaren 13an.

**-Astiasaran Sagastume Jazinto. Gurseko konzentrazio landatik pasatakoa.**

**-Astiz Josefa Antonia.**

1797ko uztailaren 27an Lepasoroko parajeen bere buruaz beste egindako Migel Ignazio Galartzaren emaztea. 1779an ezkondu ziren, Migel Ignaziok 37 urte zituelarik eta Josefa Antoniak 24. Bi seme-alaba ekarri zituzten mundura: Maria Juakina eta Jose Antonio. Maria Juakinak 9 urte zituen aita galdu zutenean, eta Jose Antoniok 6.

**-Balda Manuel. Ataungo hargina. Urretanea etxea jaso zuena.**

**-Balerdi Zirako Jose Antonio. Mendiguarda eta kontu-esataria.**

*Arretxe* deritzan baserrian jaio zen Jose Antonio 1889ko abenduaren 11an. Bere gurasoak: Migel Jose Balerdi Luloaga eta Ana Maria Zirako Ibarluzea. *Zirako* deituraz zalantzaren bat egon diteke, zenbait kasutan *Ziriako* bezala ere azaltzen baita.

Jose Antoniok bere ama izan zuen ipuin-kontalari trebe. Amezketa aldeko kontakizun asko eskaini zion Ana Mariak Resurrección Maria de Azkueri. Bere seme Jose Antoniok, berriz, Jesus Elozegi Irazustari. Tolosar honek aipamen bat baino gehiago eskaintzen dio Jose Antoniori. Ez da batere harritzekoa.

Urte sorta dezentea egin zuen Balerdik Aralarko mendi-guarda bezala. Jesus Elosegik, bere aldetik, sarritan bisitatzen zuen Aralar. Ahal zuen bakoitzean. Bien artean oso lotura estua sortu zen.

**-Balerdi Urreta Prudentzio. Musikaria.**

Gure herrian jaio zen 1880ko apirilaren 28an, *Maixuetxean*. Aia Amezketako maixua zen garai hartan. Gasteizko Apaiztegira joan eta, ohiko ikasketez gainera, solfeoa eta musikari dagozkion gainerako estudioak egin zituen Prudentziok. Apaiz egin eta gero, Calahorrako organujole plaza lortu zuen. Aldi labor bat bertan egin ondoan, Getariara etorri zen, bere anaia Balerianok utzitako organist-plazaz jabetzera. Arrasaten hil zen 1927ko urriaren 7an.

Ezagutu zutenei sinestera, organuan ez ezik pianoan ere trebea zen oso; jotzaile fina. Konposizio arloan, eta Eresbilen gordetzen dituzten obrak hauek dira: "*Anuntio vobis*" (6V, órg.), "*Ave Verun*" (4V), "*O sacrum convivium*" (4V, órg.), "*O Cor amoris*" (4V, órg.), "*Liberame, Domine*" (4V), "*Gozos al Sagrado Corazón*" (3V, órg.), "*Gozos a la Virgen del Carmen*" (3V, órg.).

-Balerdi Eladio. Zurgin aparta. Obrarik ezagunena: Amezketako elizaren kanpoko atea.

#### **-Balerdi Urreta Victoriano. Musikaria.**

Amezketan jaio zen 1870ko urtarrilaren 11an. Aita maisua zuen Amezketan. Umetan hasi zen musika ikasten. Horretarako Alegiara joaten zen, Juan Jose Oñederra organujolearen irakatsiak jasotzera. Tolosan eman zuen hurrengo aurrera-pausoa, Felipe Gorriti musikari eta organujolearekin. 1883an bukatu zen aldi hori.

Ondoko urteetan Madrilen ikusiko dugu, maisu handien esanetara: Emilio Arrieta, Manuel Mendizabal, Rafael Hernando, Tomas F. Grajal eta abarrekin.

1888an, Gipuzkako Diputazioak emandako beka bati esker, Madrilen jarraitzeko modua lortu zuen. 1892an bukatu zen Madrilen egindako egonaldia.

Gipuzkoara itzuli eta, Arrasaten organista-plaza lortu zuen. Herri honetan bizi izan zen. Oso gazterik hil zen, 33 urterekin. Eguna: 1903ko maiatzaren 9an.

Asko estimatzen zuten Arrasaten, nola organujole bezala ala musikagile gisa. Idatzi zituen obra gehientsuenak erlijiosoak izan ziren: 2 *Salve*, *O sacrum convivium*, *Moteteak*, *O gloriosa*, *Anuntio bobis*, eta abar.

-Barrenetxea Migel Antonio. Amezketan eskribau izana: 1802-1829.

-Bengoetxea Altuna Fernando

#### **-Bengoetxea Artano Frantzisko Ignazio. "Patxi gaizto". Fernandez birbilobeetako.**

Gaitzizen horrekin ezagutzen zuten Amezketa eta inguruetan. Fernando Amezketarraren odolekoa zen; birbiloba. Frantzisko Ignazio 1871kako apirilaren 10ean jaio zen. Bere gurasoak: Karlos Bengoetxea Oriozabala eta Tomasa Artano Artola.

Ezkonberritan, seguru asko, *Espilla saketxe* zuten bere aterpea. Gero, *Unanbide txiki* baserrian bizi ziren Karlos eta Tomasa bere azken urteetan. Bost seme-alaba izan zituzten: Ana Joakina (1859-07-03), Maria Dominika (1861-08-20), Ignazio Antonio (1863-08-26), Martin Antonio (1865-10-22) eta Frantzisko Ignazio, **Patxi Gaizto** (1871-04-10). Hau zen gazteena.

Juan Garmendia Larrañaga tolosarrak idatzitakoa da:

*"En Amezketa supe de la vida y milagros de un amezketarra singular, apodado Patxi Gaiztoa (Patxi el Malo), que fijaba la residencia en el caserío Iñanbide Txiki, hoy desaparecido, que era de su propiedad.*

*Haciendo honor a su sobrenombre, Patxi Gaiztoa quemó el caserío, no sin antes poner a salvo un par de vacas y los enseres más precisos. Cobró el seguro y con el dinero obtenido sostenía a la familia que se trasladó a vivir a una casa de la calle de la misma villa. Y cuando remató sus reservas monetarias, dio comienzo a su azarosa y accidentada vida de mendigante.*

*En los primeros años de esta su nueva actividad, haciendo caso omiso al acuerdo de las Juntas Generales celebradas en Tolosa el año 1829, que resolvieron “no se concedan licencias para pedir limosna con el título de casas quemadas por los abusos a que se da margen con semejantes permisos, que en todo caso deben ser limitados al radio de dos leguas del paraje en que se hubiese verificado el incendio”. Patxi Gaiztoa explotó la quema del caserío, llevó a cabo la “etxe errearen eskea” (petición por la casa quemada), que la recuerdo como una pretérita conducta generalizada, de manera especial en el medio rural.*

*A la “etxe errearen eskea” siguió la mendicidad por Gipuzkoa y la Montaña de Navarra.*

*Patxi Gaiztoa vistió el hábito de fraile para hacer más rentable su labor, y se cuenta que enterado de la vida de un hombre encamado durante tres años, se acercó a las puertas del caserío de éste diciendo que por inspiración del Espíritu Santo sabía de la presencia de un hombre enfermo en aquella casa.*

*-Soy como un santo y adivino las cosas-dijo el farsante de Amezketa.*

*Patxi Gaiztoa pidió el dinero de cuatro misas para curar al enfermo, y junto a la cama de éste recitó varias oraciones. En vista de esta conducta ejemplar, la familia le hizo entrega del estipendio de diez misas. Me dicen que el “fraile” se alejó del caserío sin dejar de persignarse una y otra vez.*

*Mas fue esta suplantación la que dio con sus huesos en la cárcel. Según se pudo saber, una mujer alertó a la autoridad eclesiástica acerca de las andanzas del desaprensivo amezketarra cuando pedía ayuda para la restauración de una ermita de Hondarribia”.*

Frantzisko Ignazio Bengoetxea Artano 1900.urteko azaroaren 24an ezkondu zen Frantziska Artola Oriozabalarekin.

-Bengoetxea Karrera Maria Dolores.*Errementarinoko Dolox.*

**-Bengoetxea Oriozabala Karlos Joakin. Fernando Amezketarraren bilobetakoa.**

Karlos Joakin 1829ko maiatzaren 7an jaio zen mundura. Gurasoak: Bartolome Bengoetxea Sagastume eta Maria Ignazia Oriozabala Egilegor. Bartolome Fernando Amezketarraren seme zaharrena zen.

Karlos Joakin Bengoetxea gaztea Tomasa Artano Artolarekin ezkondu zen: 1858-02-09. Bost seme-alabaren guraso izan ziren. Gazteenak sona nabarmena izan zuen XX.mendearen hasieran: Patxi Gaizto. Hona hemen familia osoaren jaiotza-datak: Ana Joakina (1859-07-03), Maria Dominika (1861-08-20), Ignazio Antonio (1863-08-26), Martin Antonio (1865-10-22) eta Frantzisko Ignazio (1871-04-10)

Fernandoren XX. 69 urte zituela, 1898ko irailaren 1ean hil zen Unuanbide txikin.

-Bengoetxea Sagastume Bartolome

-Bengoetxea Sagastume

-Bengoetxea Sagastume

-Benito Martinez Angelita.

-Benito Martinez Marcelino

-Bernaras Altuna Jose Ignazio. 1916-1995. Mendiak eta basoak asko maite zituen.

**-Berraondo Ramon. Kazetari eta idazlea.**

Zer dela eta hemen Ramon Berraondo kazetari eta idazlea? Besteak beste, *El Caballero de Amezqueta* eleberria idatzi zuelako. 1927an eman zuen argitara Eibarko *Nerea* argitaletxearen babesean. Egia esan, liburuak bere egilea *Martin de Angiozar* dela esaten du, baina gaitzizen, izengoiti horren pean sinatzen zituelako bere lan guztiak.

Idazle oparoa zen. *Euskalerraren alde, Yakintza, La Baskonia* eta abarretan irakur daitezke bere lanak; txukun askoak guztiak ere. Aurrez idatzitako artikulua askorekin *En el Pirineo Vasco* liburua osatu zuen eta 1944an plazaratu.

Zer nolako liburua ote dugu *El Caballero de Amezqueta*? Bere iritzia: *Novela histórica de la edad caballeresca*. Amezketa familiako Pedro Senperara deitua izan zen; Ezpeletako jaunarekin neurtu behar zituen indarrak. Ordurako maitemindurik zegoen Pedro Senpereko Juanarekin...Amodioa, ezinikusiak, gorrotoa, ohorea...Guztia zegoen jokoan. Pedrok menderatu egin zuen Ezpeletako *Beltxa*.

Geroztikakoan Senpere eta Amezketako Jauretdeen jabe izan zen Pedro.

Historia hori bildu du Ramon Berraondok idatzitako eleberriak.

Agortua dago liburua. Ale bat Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean dago.

Politikagintzan ere murgildu zen Berraondo. Eusko Ekintza Abertzalea/ Acción Nacionalista Vasca partiduan ibili zen; buruzagien artean zegoen.

Donostian hil zen euskal gai askotan oso luma xexena erakutsi zuen idazlea.

-Campomanes Ricardo. Técnico minero filipino.

**-Egileor Sagastume Juan Antonio. Meatzaria. Venezuelara joan eta itzulia.**

1792ko irailaren 10ean, Venezuelara joateko baimena eskatu zuen Amezketako Kontsejuan. Maria Manuela Fermina Gomendio Lantzekin ezkondua: 1776-01-02. Bere asmoa Cerros de Cocorotera joatea zen. Hori eman zuen aditzera bere emazteak:

*“En la N. y L. Villa de Amezqueta, á diez de septiembre de mil setecientos noventa y dos ante mi el infraescrito escribano Real de su magestad y del numero de la villa de Alzo, y testigos que abajo se dirán, pareció presente Maria Manuela de Gomendio natural y vecina de*

*esta dicha villa de Amezqueta, muger legitima de Juan Antonio de Eguileor, vecino de ella. Y dijo que este obteniendo permiso Real intenta pasar a la Provincia de Benezuela, para emplearse en el oficio de fundidor, en una mina de cobre, que en el partido llamado los Cerros de Cocorote en Aroa Arriva de dicha Provincia, tienen y manejan a medias Don Francisco de Recalde y Don Francisco de Sagarzazu vecinos de la ciudad de Caracas, para cuio efecto ha sido llamado por don Carlos de Recalde Padre de dicho Francisco que de un año a esta parte...a Juan Antonio su marido a la referida Provincia de Benezuela, colocándose por fundidor de dicha mina de cobre... hallándose presentes por testigos Joseph Antonio de Aguirre, Martin Antonio de Arizmendi y Juan Ygnacio de Otermin. Testigo: Martin Antonio de Arizmendi”.*

Venezuela hamar bat urteko egonaldia egin ondoren, Amezketara itzuli zen. Bere asmoa meategian lana egiteko bazen hasiera, Pedro Jose Arbide oiartzuarraren añil plantazio batean eginez amaitu zuen. Arbidek eta Egileorrek ekarri zuten Benezuelatik Ramon Antonio Oreja pikaro amezketarraren berri. Hauen ustez, urkaturik bukatu zuen bere mundualdia Orejak Venezuelan.

Juan Antonio Egileor Sagastumen Amezketan hil zen, 1811-06-14an.

**-Elizalde Juan.** *Aierbeneko Aito.* Pelotari fina. Saiatua oso bere eskubiarekin. Lasterkaria ere maila onekoa.

-Elurbe Kosme.

**-Eraso eta Amezketa Jose. Alkatea.**

1745ean don Jose zen herriko alkate. Bere laguntzarako errejidore-zinegotzi lanetan Juan Etxeberria eta Karlos Toledoren aritu ziren. Sindiko prokuradore nagusia berriz Bartolome Artola *Loidi* izan zen urte hartan.

Alkate izateaz gainera, *Jauregi Haundikoa* jabea bera zen. Dirua eskatu behar izan zuen 1745ean ere Amezketa, eta Juan Erasok, hipoteka gisa, etxe hauek eman zituen:

*“las casas de Mendico, Yrigoien de la parte de Mendico, Aiacio, Auzaechea”.*

-Etxarri Frantzisko

-Etxarri Hilario. Kotxero.

**-Etxarri Luluaga Jesus.** Gurseko konzentrazio landan hil zena.

**-Etxeberria Joan. Zirujaua.**

Zeregin hori zuen Joanek 1655ean. Bere emaztea Maria Gastesi zen. Besteak beste alaba bat izan zuten, Domenja zeritzana.

1655ko otsailaren 26an letraduaren aurrera azaldu ziren Joan Etxeberria zirujaua eta bere alaba Domenja. Salaketa oso gogorra egin zuten:

*“Dixeron que ellos tratavan de querellarse criminalmente ante el Señor Correjidor de esta provincia de Guipuzcoa contra Martin de Aguirre Çavala vecino desta dicha villa en raçon*

*de que el susodicho con poco temor de Dios y de su conciencia la havia solicitado de amores a la dicha Domenxa de Hecheverria y siendo ella hija dalgo noble de sangre, donzela virtuosa onesta y recogida y por tal havida y tenida y comúnmente reputada, de hedad de veinte y quatro años. El dia siguiente de la fiesta de San Pedro vente y nueve de junio proximo pasado, beniendo del valle de Arayz la espero y XXXX de proposito y con malo y dañado animo, el dicho Martin de Aguirre Çavala en un monte despoblado llamado Ezquerberro la solícito para que se dexase gozar carnalmente y por que no quiso, con fuerza y violencia la cogio forzó carnalmente y dexandola asi forzada y marcada se fue por donde le parecio y ella bolvio a su casa y por temor de los dichos sus padres callo por entonces lo que le havia sucedido asta que se sintio preñada y lo descubrio y el dicho Martin despues dello se jacto en diversas ocasiones alavandose de lo que havia hecho con la dicha Domenja y agora un mes mas o menos no contento con lo hecho se determino a entrar como de hecho entro una noche en la casa de Joan de Hecheverria hallandose ausente de ella, con intencion de goçar otra vez a la dicha Domenja y fue allado in fraganti dentro en la dicha casa con ella por la dicha Maria de Gastesi su madre y otros y haviendole echo cargo del atrevimiento y segundo confeso y reconocio claramente la fuerça y violencia que havia hecho a la dicha Domenja en el dicho monte diciendo que havia usado de aquel medio por que de otra manera no havia podido conseguir el deseo que havia tenido en mucho tiempo de goçarla y por entonces no pudo executar su intento pero despues de allí a diez dias poco mas o menos la saco y llevo de casa del dicho su padre sin su saviduria ni consentimiento y la ha tenido oculta y secretamente a donde ha querido haciendo de ella su gusto y agora la ha dexado y no hace quenta della estando como esta preñada con mlo y dañado animo de ofender y burlarla y les ha injuriado gravemente siendo como son de las dichas buenas partes y calidades sobre que ha incurrido en en graves penas en que debe ser condenado y a la satisfacion de los daños, que lo estiman en mas de mil ducados de plata como mas largamente consta todo lo susodicho y otras cosas por la querella y acusación firmada del licenciado Oçaeta abogado a que se refirieron”.*

Agiriak erakusten duen jarrera oso gogorra izanarren, arazoa konponbidean jarri nahi izan zuten Joan Etxeberria eta bere alaba Domenjak. Horretarako, epaile bi izendatu zituzten, auzitara joan beharra alde batera utzi eta, beren artean konpontzeko. Etxeberriatarrek Zeraingo Domingo Galfarsoro aukeratu zuten, eta Agirre Zabalatarrek beren oso Martin Agirre

#### **-Etxeberria Aierbe Ramon. Apaiza.**

*Don Ramon izenez ezagutzen genuen apaiza Amezketan jaio zen 1904ko otsailaren 8an. Bere bataioko agiriak honela dio:*

*“En la villa de Amezqueta, provincia de Guipúzcoa, obispado de Vitoria, a ocho de febrero del mil novecientos cuatro, yo el infrascrito presbítero Don Juan Bautista Imaz, coadjutor de la iglesia parroquial de San Bartolomé, por comisión e imposibilidad física del párroco, bauticé solemnemente a un niño que a quien puse por nombre Raimundo.*

*Es hijo legítimo de don Bautista Echeverria Eceiza, de profesión carpintero, y de doña Ygnacia Ayerbe Saralegui, naturales y vecinos de Amézqueta, feligreses de dicha Parroquia.*

*Nació, según declaración del padrino, a las cinco de la mañana del día de ayer, en la calle de San Bartolomé, número 31, piso 1º.*

Hamabi urte zituela Arantzazuko ikastetxera joan zen. Lau urte egin ondoren, Gasteizko Seminarioan sartu zen. Hiru urte eman zituen Filosofiako ikasketak egiten. 1923tik 1927ra Teologiako karrera egin zuen.

Ikasketak amaitu, 1927ko ekainaren 11an apaiztu eta Arabako Mendixur herrira bidali zuten. Aldi labur bat ere egin zuen Ziortzako monastegian, organujole gisa. Urte hartan bertan, 1927an, Bedaioko erretore izendatu zuten. Hiru urte egin kargu horretan egin ondoan, 1930ean Saturrarango Seminario txikian zeuden apaizgaien aita espiritual bilakatu zen. Handik zazpi urtera, 1937an, Bizkaiko La Arboleda herrian ikusiko dugu.

1941an Gipuzkoara itzuliko da eta Donostiako Santa Teresa Gogojardun-etxeko ardura hartuko du eskuetan. 1973an utziko du kargu hori. Kanariar Irletan egingo du hurrengo egonaldia. Urtebete inguru.

1985ean bere osasuna beratzten hasi zen. Bi ebakuntza egin zizkioten. Hobera egin zuela zirudien.

1997ko apirilean gaisotu zen berriro. Ekainaren 21ean eman zuen azken arnasa. Donostiako gotzaina zen Jose Maria Setien eta Angel Sukia kardinalak parte hartu zuten Don Ramonen hileta-elizkizunean.

Bere santutasuna Elizak aintzakotzat har dezan, gogotik ari da talde bat lanean, kasu hauetan bete behar den prozedura aurrera eraman nahiean.

**-Etxeberria Altuna Joakin. Erremontista.**

**-Etxeberria Ergoiena Jose. Maisu hargina.**

1671eko abenduaren 27an bilera egin zuten Jose Etxeberria Ergoienak eta Maria Garagartzak. Azken hau Frantzisko Arratakaren alarguna zen. Amezketar hauen asmoa zera zen: Jose Etxeberria Ergoiena eta Maria Lopez Arratakaren ezkontzako hitzarmenaren nondik norakoak erabaki uztea.

Bilera hasi eta berehala aitortu zuen Etxeberriak bere lanbidea: *Maestro de obras de cantería*. Hori horrela, zer utzi nahi ote zion bere semeari? Ikus:

*“El dicho Joseph de Echeverria dixo y declaro tener por bienes de capital para el dicho casamiento dos mil ducados en los efectos de las obras de cantería que estan a su cargo y actualmente esta fabricando en la Yglesia Parroquial de la Villa Ceztona, asi en lo que tiene obrado como en lo que hay que obrar hasta acabarselas las dichas obras que son un estribo de treinta pies de alto que le ha alzado y levantado por quarenta y dos pies mas con su corneja.*

*Y dos estribos grandes que ha hecho desde sus cepas hasta la altura de sesenta y dos pies cada uno con sus cornejas.*

*Y una capilla de queranta y dos pies de largo en lo exterior y quince de ancho que se ha de levantado en altura de veinte y quatro pies con paredes de cinco pies de grueso de piedra*



*caliza labrada y por la parte de fuera y por la de dentro de manposteria con sus formas para elegir las capillas, y tiene todo el material necesario para acavar las dichas menos algunos cruzeros que faltan para las tres capillas de la Yglesia". PT1045.*

#### **-Etxeberria Ergoiena Rodrigo. Alkatea.**

Boza, botoa emateko eskubidea zuten amezketarrek Rodrigo Etxeberria aukeratu zuten 1662an alkate izateko. Errejidore edo zinegotzi Martin Toledo eta Juan Lopez Etxeberria izan zituen. Sindiko prokuradore nagusi, berriz, Migel Saagastume *Yrigoyena*.

#### **-Etxeberria Etxeberria Ana. Estankoko Anita.**

1922an jaio zen Anita Amezketako plaza plazan. *Ahotsak.com* webgunean daude bere istorioak bildurik. Zer esaten da Anitaz? Begira:

*"Amezketako "Ortuzarrenea" etxean jaioa. Etxekoek taberna eta pentsu almazena zuten, eta hortik bizi ziren. Aita nazionalista zuen, eta gerra garaian nahiko komeri bizitako familia da berea. Horrez gain, txikitari polio gaixotasuna izan zuen, eta herren gelditu zen geroztik. Metalezko aparato batekin ibili ohi zen kalean zehar, eta hainbat ebakuntza ere egin zizkioten. Gerra garaiko kontuak azaldu dizkigu, bere txikitako lagun mina duen Feli Etxeberria Galartzarekin batera".*

#### **-Etxeberria Galartza Dionisio. Soinujolea.**

Zalantzarik gabe, Amezketak eman duen soinu-jolerik famatuena izan da Dionisio. *Letradunea* edo *Domingonea* etxean jaio zen 1923ko urriaren 8an.

Aitak erositako soinua izan zuen lehendabizikoa. Zaletasuna eta gogoia erakusten zituen horretarako. Belarri fin finekoa izaki, berehala ikasi zituen lehendabiziko piezak. Laister hasi zituzkion han eta hemen jotzeko aukerak. Bere errepertorioa nahiko murrizta izanik ere, dei asko izaten zituen soinua dantzatzeko.

Amezketan jazbana sortzeko aukera izan zen. Kideen artean zegoen Dionisio. Gainerakoak: Jose Antonio Zabala saxofoian eta Antonio Etxeberria, *Anton Fitero* baterian. Inoiz Mateo Sanz ere aritu izan zen laugarren kide bezala. Honek klarinetea jotzen zuen. Berebiziko arrakasta izan zuen talde honek. Jende asko etortzen zen Amezketara dantzan egiteko asmotan, baina baita musika Saioa aditzera ere.

Donostian ere sarritan jo izan zuen Jose eta Mateo Sanz anaiekin. Nafarroan ere ezaguna zen. Burgosen, soldaduska garaian, lan asko egindakoa da Dionisio bere soinuarekin. Behin, ustekabean, Muñoz Grandes generalaren etxean jo zuen Oronoz-Mugairen. *El Sitio de Zaragoza* bi bider jo behar izan omen zuen militar ezagunaren aurrean.

Duda handia sortu zitzaion Dionisiori bere bizitzaren une batean: soinuarekin jarraitu ala beste lanbide bati heldu...Kamioi-enpresari izanez bukatu zuen.

Donostian bizi da, erretiroa hartu zuenetik.

#### **-Etxeberria Galartza Feli.**

Kale kalekoa da Feli Etxeberria Galartza ere. 1926an jaio zen. Bere aurkezpen hauxe egiten dute *Ahotsak.com* webgunean:

*“Amezketako Letradunea kaleko etxean jaioa. Taberna zuten bere gurasoek, bere aitonarengandik jasoa. Domingo zuen izena aitonak, eta bere etxe eta tabernari Domingoenea deitu izan zaio. Gerra garaiko tentsioez hitz egin digu, eta baita orduko baserritarren eta kaletarren arteko harremanez ere”.*

**-Etxeberria Larreta Jose Ignazio. Artzaina: 1833/1885.**

Antonio Zavala haundiak ematen digu artzain honek izan zuen bukaera tristearen berri. 1992n *Auspoaren sail nagusia* bilduman *TXIRRITA Jose Manuel Lujanbio Retegi* liburua argitara eman zuen. Liburuko atal baten titulua hauxe duzu: *“Zuk il zenduen artzaia”*. Artzain hori amezketarra da.

Jose Ignazio Etxeberria Larreta 1833ko irailaren 10ean jaio zen. Bere gurasoak: Ignazio Maria Etxeberria Olaso eta Josefa Antonia Larreta Garmendia.

Jose Ignazio hogeita hamaika urte beteta, Agustina Oriozabala Goikoetxearekin ezkondu zen Alegiako herrian: 1864-10-11. Lehengo seme-alabak Amezketan jaio zitzaizkien:

-Jose Manuel: 1865-07-24.

-Mariano: 1867-01-08.

Hurrengo Etxeberria-Oriozabalak Abaltzisketan jaiotakoak dira:

-Benantzio: 1870-04-01

-Maria Josefa: 1872-02-19

-Jose Biktor: 1875-07-22.

Hementxe utziko dira datu hauek eta Aita Zavalaren idatzia eskainiko da bere osotasunean. Oso interesgarria da; gogorra, aldi berean. Ekin diezaiozun bere irakurketari:

*“Liberalen eta karlisten artean Bergara’ko Besarkada egin zanean (1839-VIII-31), konforme etziran karlistak Frantzi’ra alde egin zuten; eta gaiñerakoak, armak entregatu eta norbere etxera joan ziran. Orrela bukatu zan Euskalerrian lenengo gerratea (1833-1839).*

*Uxategieta edo Urepel izeneko mendietan soldadu mordoxka bat gelditu zan. Toki ori Urumea eta Leizaran ibaien artean dago, Gipuzkoa eta Naparroa’ko mugan.*

*Zer egin etzekitela zeuden, eta beretako bati onela esan zioten:*

*-Joan adi i Tolosa’ra, eta gero bueltan esaiguk nola tratatu auten.*

*Joan zan eta fusilla kendu, duro bat zillar eta bazkaria eman eta libre utzi zuten.*

*Pirala kondairalariak dionez, Bergara’n, leen esandako Besarkada ori egin zanean, karlisten buruzagiei beren soldatak eman zizkieten; soldadu bakoitzari, berriz, duro bana.*

*Seguru asko, beste errietan ere duro bana emango zioten arma entregatutako soldadu bakoitzari, eta ori izango da emen aitatzan dan duro zillar ori.*

*Bueltatu zan esan degun mutil ori lagunengana, eta onela esan zien:*

*-Motellek, ez natxiotek gaizki tratatu. Duro bat zillar eta bazkaria eman zizkidatek beintzat.*

*Orduan Tolosa´ra joan ziran bate z beste danak.*

*Joan gabe gelditu zan ori, Antonio Diostegi zeritzan. Ijitoa omen zan.*

*Bakarrik gelditu eta zenbait egunetan an bertan egon zan. Baiña jatekoak aitu zitzaizkionean, abiatu zan ura ere bere fusilla eta guzti, baiña bera jaiotako txokora, Ernani´ko Fagollaga´ra, joateko asmoz.*

*Artzai bat aurkitu zuan eta onela esan zion:*

*-Egidazu mesede Fagollaga´ko bidea erakustea.*

*Agidanean, artzaia bildurto egin zan gizo armatu ura ikusita, eta onela esan zion:*

*-Eguraldi txarra dator eta aziendak bildu bear ditut, ordea.*

*-Aziendak beren gisa utzi eta atoz nere aurretik bidea erakusten.*

*Ez dago gizon armatu baten esanetara jarriko ez danik, eta abiatu ziran artzaia aurretik eta Diostegi ori fusillarekin atzetik.*

*Bide puska bat ibili eta gero, onela esan zion artzaiak:*

*-Adiskidea, neretzat diferentzi aundia dago zurekin joan edo aziendak bildu. Igo zaite or aurreko gain ortara (Mandoegi mendiko tontorrera), ta segi gero gaiñez-gaiñ. Onyi mendia ikusiko dezu; eta, ara irixtean, jetxi besterik ez daukazu, Fagollaga´ra joateko.*

*Baiña Diostegi´k onela erantzun zion:*

*-Bi urte auetan makiña bat vuelta eman izan det mendi auetan; baiña beti toki ontara atera naiz, bidea ezin asmatu. Segi, bada, gelditu gabe.*

*Jarraitu zuten, beraz, aurrera, artzaia aurretik eta Diostegi fusillarekin atzetik.*

*Gaiñez-gaiñ zijoazen, esker-ezkubi Leizaran eta Urumea ibaiak zituztela, mendi-tarte sakon eta estuan biak ere.*

*Bide luzea ibilita, iritxi ziran Lepatxiki´ra. Andik Fagollaga ikusten da.*

*Artzaiak esan zion:*

*-Ara: orixe dezu Fagollaga.*

*Eta Diostegi´k:*

*-Bai; ortxe da nere jaotetxea.*

*Baiña gero, segituan, onela esan zion:*

*-Fusil ontako kargazoiak gizona nola iltzen duan ikusi bear det orain.*

*Eta tiroa tira eta artzaia il zuan. Gero, etxera abiatu zan.*

*Urte asko igaro ziran. Diostegi ori oso zaartua zegoan: gorputza makurtua, eta ibili ere bi makulurekin egiten zan, anka ankari ezin aurreraturik. Larogei bat urte bazituan. Bakarrik bizi zan. Eskean-da ibiltzen zan. Iñork etzuan maite. Aurrak ere aren bildurrez egoten ziran. Zearo gaiztotua zegoan.*

*Mundu ontako gauzak jakin egiten dira eta, nola edo ala, jendeak bazekian Diostegi zala artzaia il zuana.*

*Egun batean, Txirrita Fagollaga'ko tabernan zegoan. Izbidea ola etorrita, Diostegi ortaz ari ziran izketan. Bazekiten nunbait ara etorriko zana eta onela esan zuan Txirritak:*

*Batere biotzik baldin badu, jo gabe ere jarriko det nik ura marruz.*

*-Naiko lan! Zearo gogortua ziok ori.*

*-Bai. Jo gabe jarriko det nik ura marruz, sartu bezin laster. Gogoratuko zaio oraindik ere.*

*Alako batean, sartu zan Diostegi ori eta esan zuan:*

*-Egun on!*

*Baiña inork etzion ez "baita zuri ere" esan, ezta ere kasorik egin. Jendea ixil-ixilik zegoen, Txirritak zer esango zion zai.*

*Diostegi'k baso aundi bat ardo artu zuan, eta maiera alderatu zan, basoa eskuan zuala.*

*Orduan, bat batean. Bertso au bota zion Txirritak:*

***Larogei urte pasatu ditu***

***dirudiyela etsaya,***

***orain bi anak arrastaka ta***

***burua soiltzen asiya;***

***gizarajuak badu beregan***

***makiña bat desgraziya,***

***ez dago garai batian bezin***

***arrua eta lasaya,***

**beste munduan ikusiko du**

**emen il zuan artzaiya.**

*Diostegi'k onela esan zuan orduan:*

*-Zergatikan etzidan bidea erakutsi bear neri?*

*Baiña oraingoan ere etzion iñork erantzunik eman. Danak ixil-ixilik eta begira zeuden. Taberna guztian etzan txintik ere aditzen.*

*Eta Txirritak beste bertso au bota zion:*

**Kulparik gabe bota zenion**

**fusillako kargazoia,**

**gizon gaxuak aserretzia**

**ez al zuen arrazoia?**

**deabru zarrak aditzen dute**

**zure animan usaia,**

**eriotzaren etor-bildurrak**

**estututzen du lasaia,**

**zu baño gizon formalago zan**

**zuk il zenduen artzaia.**

*Orduan Diostegi'k, dak!, maiean basoa kolpean utzi ta alde egin omen zuen.*

*Andik egun asko gabe i lomen zan.*

\*\*\*\*\*

*Bertsoak berdin, baiña gertaera guztiz beste aldera ere jaso degu. Onela esan digu Amezketa'ko Garaikoetxea'ko Jose Etxeberria'k:*

*"Gure aita zana-ta, gure aitona-ta, artzaiak ziran. Ni ere artzai ibili nintzan gaztetan. Udaran Aralar-mendi'n izaten giñan, Pardeluts'en. Pardeluts goien dago, iru txabola daude an; ta beraxeago iturri ederra. Pardeluts'ko iturria.*

*Bañan neguero Ernani'ra jaixten giñan. Negua an pasa ta mendira ardiekin abiatzen giñanean, Ernani'tik onuntza etxe bat bada gain batean Aitzola esaten diotena, ta Aitzola'ko gain ortara etortzen giñanean, ikaragarritzko irrintzia, irrintzi aundi bat egiten zuan gure aita zanak, mendirako pozarekin:*

*-leeufiii!*

*Alegia:*

*Negua bukatu diagu!*

*Ta inguru artako jendeak, baserritarrak-eta, irrintzi ori entzun eta onela esaten zuten:*

*-Ara! Artzaia badijoa.*

*Ta nik beti, nere aita zanari-ta, orixe aditu izandu nien: aitonaren aita, gure aita zanaren aitona, soldadu batek il zuala Ernani'ko Santa Barbara'n.*

*Ardiak faltatzen zitzaizkiola, ta baten batek esan ziola:*

*-Olakok il ditu! Zure ardiak iltzen dituana, olako soldadu da!.*

*Ta egunen batean soldadu orrekin arkitu zala eta nunbait fuerte xamar-edo asi zitzaiola, ta soldaduak tiroa eman da il zuala.*

*Gurutzea an dago, edo an zegoan, Marrakane baserriko ixkiña-ixkiñan. Burnizko gurutze koxkor bat da, Santa Barbara'ren goiko aldetik Galarreta aldera; atzeko aldetik Marrakane baserria, ta baserritik beraxeago olako bide-gurutze bat, eta antxe, paretaren gañean, gurutze txiki bat, bañan letrarik ez.*

*Aita zanak neri beti erakutsi izandu zidan:*

*-Au gure aitonaren gurutzea dek, soldaduak ildako aitonarena!*

*Ta errezatzen aritu izandu giña biok, bein baiño geiagotan, gurutzearen aurrean.*

*Inguru artako zarrak ere esan izandu ziguten guri:*

*-Zuen aitonaren gurutzea dek au! Zuen aitona soldaduak il zien! Soldaduak ardiak jaten, eta arpegi eman zielako, tiroz bota zien, eta gero Txirritak bi bertso bota zizkion.*

*Ta Txirritaren bertso oiek, gu beti aitonarenak ziralakoan egoten giñan, alegia, gure aitona il zuanari kantatuak".*

*Ta Jose Etxeberria orren osaba batek, Amezketa'ko Domingoene edo Letradune'ko Jose Inazio Etxeberria'k, onela esan zigun:*

*"-Orduan gerrarik ez eta Santa Barbara'ko fuerte ori ustuta zegoan; soldadu pare bat-edo kontu egiteko; besterik ez.*

*Ta gure aitona ere inguru artan ibiltzen zan ardiekin; ta artzaia libre izaten da askotan, eta soldadu oiekin pelota-da ibiltzen ziran alkarrekin.*

*Alako batean, ardiak faltatzen asi, ta ezin iñondik antzeman nola faltatzen ziran.*

*Bañan batenbatek ikusi soldadu oiek ardien tripak sasian gordetzen, eta gure aitanari esan. Joan da gure aitona soldadu oiengana, ta kargu artzen asi:*

*-Zer egin didazute?*

*Gure aitona ori ez agertzen. Billa asi dira, ta, dabiltzala-dabiltzala, or billatu zuten gorputza Marrakane baserriaren azpian, esi-ondo batean.*

*Gure aiton orri, Ernani'n lur eman zioten, lengo kanposantu zarrean.*

*Ta soldadu oiei, beste toki batera bialdu edo ez dakit zer egin zieten.*

*Ta bertso oiek, andik urteetara, gure aitona il zuanari Txirritak botatakoak dira”.*

\*\*\*\*\*

*Amezketako artzai orren eriotz-agiria Ernani'ko eliz-artxihoan azaldu da, 7'garren eriotz-liburuan, 107 orrian. Onela dio:*

**En la villa de Hernani, Provincia de Guipúzcoa, Diocesis de Vitoria á siete de Febrero de mil ochocientos ochenta y cinco, yo el infrascrito cura de la Parroquial de san Juan Bautista de la misma dispuse dar sepultura eclesiástica en el dia de la fecha al cadaver de Jose Ygnacio Echeberria, marido en primeras nupcias de Agustina Odriozola, é hijo legitimo de Ignacio Echeberria y Josefa Antonia Larrañaga, naturales los cuatro de Amezqueta. Falleció de muerte violenta y a los cincuenta años de edad. No se le administraron los Santos Sacramentos por habersle encontrado muerto...**

*Abizenetan bi oker ageri dira: andrearena, Oriozabala da; ez Odriozola; ta amarena Larreta; ez Larrañaga. Gaiñontzean, oso batera dator ildakoaren ondorengoak kontatu dituztenekin.*

\*\*\*\*\*

*Eguna jakiñik, periodikoetan ere aztertu degu. Onela dio 1885-II-7'ko El Eco de San Sebastian'ek:*

**Ha llegado á nuestras noticias que ayer se encontró asesinado un pastor en lo alto de Santa Bárbara, jurisdicción de Hernani, habiendo sido producida su muerte por arma de fuego. La causa parece ser el haber querido defenderse de los que intentaron quitarle una oveja.**

**Los tribunales entienden en el asunto, por lo que nos abstenemos de dar más detalles de que no podemos salir garantes.**

*Ta egun bereko El Urumea'k:*

**El pacífico vecindario de Hernani se halla afectado con un crimen cometido en las inmediaciones del fuerte de Santa Bárbara.**

**Parece que había desaparecido un pastor que cuidaba de un rebaño de ovejas y después de varias pesquisas se halló anteayer el cadáver de aquel.**

**Dos individuos han sido presos por sospechosos. Creese que el crimen es consecuencia de una venganza personal.**

**El juzgado se personó ayer mañana en el monte de Santa Bárbara a practicar las primeras diligencias.**

*La Voz de Guipúzcoa'k ere ematen du eriotz orren berri, baiña laburrago eta txeetasun berririk gabe. Andik aurrera, periodikoak ez dute eriotz orren aitamenik ere egiten. Obeto esateko, olakorik ez degu arkitu, azterka ibiliarren. Baiña auzia edo olako zerbait egingo zan noski, ta orduko paperakl or eongo dira nunbait ere.*

\*\*\*\*\*

*Beraz, bertso pare bat eta bi kontaera ditugu emen; auek, oso ezberdinak.*

*Kontaera oiek ez dira bearbada txeetasun guztietan egiazkoak izango; baiña sustraiez bai noski. Eriotz bana aitatzen dueta esan nai degu, eta biak gertatua.*

*Txirritak noski, iltzaille oietako bati kantatuko zizkion bertsoak; baiña gero, denborarekin, bertso oiek bi eriotzei erantsiko zizkien jendeak. Ori da guztia.*

\*\*\*\*\*

*Amezketako artzai ori il zuten tokia ezagutzearren, Ernani'ko Makarrene baserrira joan giñan arratsalde batean. Ara iritxi eta Jose Jenua bertako etxejaunarekin topo egin genduan. Galdetu genion eta baietz, antxe artzai bat il zutela esan zigun; bere aurrekoei orrela aditu ziela.*

*Urrengo gure galdera, gurutzerik-edo ba ote zan. Onela erantzun zigun:*

*-Arria ortxe dago bide kurutze orretan. Gurutzea len bazan; orain ez dakit eraman duten edo zer egin duan.*

*Biok jetxi giñan bide kurutzeraño. Arria antxe zegoan; harri landua, ederra. Eta gurutzearen puska batzuk ere bai, oraindik ere arriari itsatsita.*

*Arriaren inguru guzia belarrak eta sasiak artua zegoan. Makil bat eskuratu eta an asi giñan velar eta sasi oiek badaezpada ere astintzen, eta antxe agertu zan gurutzea. Burnizko gurutze txiki plit bat, erdoiak erdi jana.*

*Marrakane'ko Jose Jenua'ren baimenarekin, Amezketara eraman genduan eta artzaiaren ondorengoei eman".*

Honelaxe bukatzen du Aita Zavalak istorio triste hau.

**-Etxeberria Murua Jose. Jose Garaikoetxea.**

**-Etxeberria Murua Margarita.**

Bere kontuak eta esanak [Ahotsak.com](http://Ahotsak.com) atarian daude bildurik. Hauxe da bere aurkezpena:

*"Amezketan, eliza inguruko "Garaikoetxea" kaletxean jaioa. Etxeko gazteena eta bihurriena. Txirritak baditu bi bertso artzai bat hil zuen gizonari jarriak, eta bere birraitona omen zen artzai hori. Buruz kantatu dizkigu bertso horiek Margarik".*



Margarita 1935ean jaio zen. Artzaina zuen zuen aita: Jose Maria Etxeberria.

**-Etxeberria Olano Antonio. Bateriajolea.**

1940 aldera sortu zen *Umore Ona* jazbanean, bateria jotzen zuen. *Anton Fitero* deitzen zitzaion herrian. 1916ko otsailaren 1ean jaio zen. 1973ko maiatzaren 12ean eman zuen azken arnasa.

**-Etxeberria Sagastume Feli. Doktorea eta Katedraduna.**

Psikologian Lizentziatua eta Pedagogian doktorea da Amezketako *Jauregi Txiki* deritzan etxean. Bestalde, Hizkuntzaren Pedagogiako Katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Artikulu asko idatzia. Liburua: *Hizkuntzaren Psikopedagogia*. Ikastaro, Simposium eta Kongresu askotan parte hartu du mundo osoan. Berari utziko diogu bere biografia egiten:

*“Ez dut gogoan nola demontre suertatu zen ni Amezketan sortua izatea, baina aitortu behar dut harro sentitzen naizela bertakoa izateaz. Jauregi Txiki baserrikoa naiz. Maria eta Ramonen alaba, hamairu senidetatik zaharrena, Joxe zena ez beste guztiok bizi gara. Etxean asko izatearen sentimendua beti bizi izan nuen; senide asko batetik, eta izeba-osaba-lehengusu eta baserri lanetarako laguntzailereren bat edo beste, gainera. Famili haundikoa izatearen gozogaizak garaiz probatu nituen; horrek nere garapenean bere eragina izan zuela uste osoa dut. Oroitzapenik ederrena oso maitatua eta sorte haundikoa izatearena dut; besteenganako zorraren sentimendua esnatzen dit sentipen horrek.*

*Oso ttikitatik jaso nuen familian eskolatua izatearen balioa. Gogoratzen dut nere amaren pena gutxitxo ikastearena, edota aitaren poza Gasteizen osaba-izeben etxean igarotako egunetako pasadizoak kontatzen zizkigunekoa, eta baita bertara soldaduskarako gaztelera ikastera joan zenekoa ere, eta etxeko izebaren irakurri egarrria letradun paper puskarik eskuratuz gero. Etxeko sukaldean falta ez zen eguneroko irakurgaia, euskal egutegia eta zaragozano kalendarioak eskeinitakoa genuen. Giro xume hori jakinminaren iturri ere bazen eta nire ikasteko gogo indartzen hasi zen. Noiz hasi nintzen ziurtasunez esateko moduan ez nago, baina hiru edo lau urterekin ahizpa Arantxarekin batera Kontxixiren eskola ttikira joaten nintzenekoa atzo balitz bezala gogoratzen dut. Bertan biltzen ginen neska eta mutil koadrila otoitzak ikasi, abestu eta eskola handirako aurreprestakuntza egiteko.*

*Oker ez banago harbela, kartila eta Kontxixiren esku-makiltxoak oinarrizko materialak ziren gu arrastoan sartzeko. Ikasgaiak aho batez behin eta berriz errepikatuz gauza franko sartu genuen gure burutxoetan. Lotsatia nintzenez, ez nuen zarata handirik egiten; beraz, kaskarreko gutxi jaso nuen. Denbora asko baino lehen izan nuen hori probatzeko aukera.*

*Eskola handian, ikasgela batean neska maistrarekin eta mutilak maisuarekin bestean biltzen ginean, gaztelera ez jakiteak eragindako zaplaztakoak ditut gogoan.*

*Etxean guztiak nituen irakasle leial, nik irakurri, multipikazio-aulak ikasi, eta bainika txukuna egin nezan ere denbora eta pazientzia izan zuten nereko; behar bada oso estu hartzen nituen ikasi beharrekoak eta maistraren aginduak zorrotzegiak ziren zazpi urte inguruko haurrentzat. Lanak egitea ez zen nahikoa, gaztelera komunikazio gaitasun eza hamaika sufrimenduren iturri bihurtu zen Ramona maistrarekin, baina ez zen betirakoa izan eta geroko maistrak askoz goxoagoak eta maitagarriagoak izan ziren, nere kasuan behintzat. Bizi esperientzi hauen baitan handia egiten nintzenerako desioak amesten nituen; baserritarren maistra izatea desiratuenakoa bazen ere, hori lortzea ezinezkotzat jotzen nuen. Gertakari majikoa, amets honen inguruan, han zegoen ama eskolako maistra eta herriko apaizaren kontseiluekin. Ikasketei ekiteko erabakia familian aztertu zen. Hala, bi monja kolegiotatik pasa nintzen lau hilabete barru. Ezin etsirik, etxeratzeko bidea egin nuen eta artean pazientzia osoz ikasten segitzeko modua egin zidaten. Batxilergoa Tolosan egin nuen, egunero estankeroren autobusean joan- etorriak eginez. Azterketak, Donostiako Institutuan. Irakasletzarako ikasketak Donostiako Irakasle Eskolan amaitu nituen 1963an. Ondoren Oposaketak etorri ziren. Aspaldiko ametsa bete ahal izan dut, alegia, maistra izatearena. Lehenik, Erdoiztara (Errezil) joan nintzen; hantxe nuen amestutako aukera, baina aldi berean ikastolan andereño izateteko eskeintza nuen eskuetan eta oposaketaz nuen lortutako plaza alde batera utzi eta ixilpean irekitzen ari ziren ikastoletarako praktikak Donostian egin ondoren, Lazkaoko ikastolara joan nintzen. Buruauste franko eman zidan, funtzionario lanari uko egin eta, segurtasun gutxiko lan munduan murgiltzeak. Bide horretan abiatzeak galdera asko egitera eramanez ninduen eta hezkuntza Pedagogia berri baten atarira bultzatu. 1960ko kultur susperraldiak herrien eta pertsonen eskubideez ohartarazi ninduen; begiak zabaldu eta bide zabalagoak ikusteko premia konturatu nintzen. Esate baterako, egoera larrian aurkitzen zirenen alde konprometitu beharra: euskaldunen eskola premia, emakume askoren etsipena, gazteen ahotsaren gabezia...*

*Hori horrela, jaioterritik abiatzea zen bidezkoena; neska gazte modura, amezketartzat neukan nere burua eta elkar lanean, OARGI elkarte sortu genuen; gure herriak aide berriak ezagutu zitzaizkion nahi genuen eta gora-behera guztietan parteartzaile izan zedila. Ez da harrizkoa herriko zenbaiten ustetan mamu fidagaitzak izatea, baina garai haiek majikoak ziren niretzat. Gogoratzen dut neska gazteentzat hedatu genuen gau eskola, gutxienez, txofertzarako karneta eskuratu ahal izateko, eskatzen zitzaizkien proba bereziko eskakizunak lantzeko. Bilgune kritikatuak izan zen OARGI. Herri kultura xuxpertzat asmoz antolatutako ekitaldi*

asko (antzerki, euskal jai, hitzaldi, ikastaro eta beste zenbait ekintza) oso arrakastatsuak gertatu baitziren ekintzaren erroko eztabaidarako. Herri kontzientziazkoa piztu eta zabaltzeko derrigorrezkoa zen ilusioa eta ekimenaren zentzua sentierazteko gai zela garaiko herri giro hura.

Bitartean, gehiago ikasi beharraren arantza barneratua nuen eguneroko lanean. Nolabait ere garaiaren garaiko baloreak eta neska gazte baten sentipenak ezkontza bidearen hautua egitera bultzatu ninduten 1968an, hogeitau urterekin. Beraz, handik aurrera, emakume ezkondua eta ama izatea nere ibilbide sarean sartzea apostu berria izan zen. Zinez sinesten nuen etxetxokoratzetik aldendutako bideak jorratzen segi behar genuela emakumeok. Begi bistan dago honetarako ere ezkontidearen babesa premiazkoa dela eta gizarte espektatibak askotan bestelakoak direla. Baliteke esperientzi berrietan murgiltzearen jokuan, leon-kastiloan, beti irabazle nintzela. Euskara zutabe nagusi den eremuan jokatu dut gehienetan. Ikastoletako andereño, 1978 arte.

Eskolak emateaz gain andereño Formaziorako ikastaro askotan esperientzi pedagogikoa azaldu eta materialen sorkuntzan ere partaide izan naiz. Garai haietan matematikak irakasteko egin nuen materiala gida liburuarekin argitaratua izan zen. Lan egitearekin batera Filosofiako lehen bi urtetako ikasketak egin nituen Donostian, Deustoko Unibertsitateko Filosofi eta Letretako Fakultatean. Jarraian, Valentziako Unibertsitatean Pedagogiako Lizenziatura. Berehala, Madrilan, Complutense Unibertsitatean Psikologiako Lizenziatura lortu nuen eta suerte haundikoa naizenez, 1978az geroztik Euskal Herriko Unibertsitatean Filosofia eta Hezkuntz Zientzietako irakasle naiz; gaur egun Hizkuntza Pedagogiako katedraduna.

Hemen Unibertsitaterik ez eta, aipatu sailaren sortze lanetan aritzea egokitu zitzaidan. Hasieran euskarak ez zuen lekurik; poliki poliki indartzen joan da euskararen lekua akademi gaietan eta ikerkuntzan ere. Beraz, hemen euskaraz irakastea zailagoa da liburu eta material eskasagoa dugulako. Hau dela eta, liburu eta materialak egin behar izan ditut, Doktoradutza, zenbait ikerketa, artikulua eta talde liburuetan argitara eman diren lanak alboan utzi gabe. Lanari esker munduko txoko batzuetara ailegatutakoa naiz; biziberritzeko egokierak, muzintzeko ez baina, eskertzekoak dira. Europakoetan ez ezik, Ameriketako zenbait Unibertsitatean jardundakoa naiz. Esaterako, Nevadan, New Yorken, Californian eta beste batzuetan. Batzutan ikastera joan naiz eta baita hemengo lanen aurkezpena egitera ere. Beraz, herri ttikian jaio izana ez da traba mundu berrietara jotzeko.

**-Etxeberria Sagastume Jose. ETako kidea.**

**-Etxeberria Zubeldia Amagoia. Moda diseinatzailea.**

Prestakuntza oso zabalekoa: Margolaritza (Matxin Labaienekin),” *Koloreak eta formak gizakiak nola beregatzten dituen*” ikastaroa, Serigrafia eta Aerografia ikasketak, Diseinu Grafikoa. 1979tik 1997ra arteko urteak prestakuntzari emanak izan ziren.

Aldi berean, ordea, proiektu askotan parte hartu zuen, mosaikoen diseinuan batipat. Beste zenbaitetan bera izan zen buru. Aldi emankorra eta oparoa izan du 2000.urteaz gerozkoa:

- 2002: lehendabiziko moda kolekzioa.
- 2003: zapata, poltsa, eskumuturreko, belarritako, lepoken sortze lana.
- 2007: Amagoia i Etxekar,S.L. empresa sortzea.
- 2008: Lehenengo kolekzio handia enpresarekin.
- 2008: AiE denda-estudioaren bideratzea.
- 2008: AiE boutique onlinean.
- 2008: udaberri/uda 2009ko kolekzioa plazaratzea.
- 2008: Bitxien kolekzioa.

Donostian izango du aurrerantzea bere erakusleku propioa.

**-Etxeberria Zuriarrain Antonio. Errotaria.**

*Arantzasti Behekoa* errotan ezagutu genuen lanean. Bera izan zen azken errotaria. 1966 aldera egin ziren azken ehotze lanak Arantzastiko errotan. Hiru harri pare mugitzen zituen turbina zeraman errota honek.

Antonio Etxeberria 1981eko azaroaren 1ean hil zen.

**-Etxeberria Zuriarrain Kaietano. Apaiza. Musikaria.**

1908an jaio zen Amezketan *Arantzasti-behekoa* errotan. Apaiz egin ondoan, Arabako Ametzaga eta Asparrenan egin zuen aldi bat. Handik Beasainera destinatu zuten. Besteak

beste, Mariaren Alabak kongregaziaren ardura eraman zuen. Apaiz-ardurez gainera, organujole titular izan zen Beasaingo parrokiari.

Herriko haur eta gaztetxoei solfeoa irakasten ahalegin handia egin zuen. Eztarri ederreko kantaria zela esaten dute Goierri. Primerako baritonoa.

1980an osasunez kili-kolo zebilen. Ebakuntza Donostian egin zioten. Oso denbora gutxi iraun zuen bizirik, uda hartan bertan hil baitzen.

#### **-Ezker gain Galartza Garikoitz.**

Larrunarri/Txindoki barrenean hil zen, mendi istripuz, 2004ko apirilaren 24an. Hogeita sei urte zituen.

- Fat Christobal. Alemaniarra.

#### **--Galartza Migel. 1630 aldera, erretorea Amezketan.**

Hori adierazten du Rodrigo Igerabide eskribauak idatzitako ohar honek:

*“...doy fee que oy dia domingo que se quantan diez deste mes de octubre del año de mill y seiscientos y treinta y dos, don Miguel de Galarça Rector de la Yglesia Parrochial de señor san Bartolome desta villa de Amezqueta publico el mandamiento y proclama de suso en la dicha Yglesia al tiempo del ofertorio de la misa mayor declarando su contenimiento en lengua bascongada de manera que todos los que se allaron en la dicha yglesia lo pudieron comprender y para que dello conste de la presente en esta dicha villa de Amezqueta...hallándose presentes por testigos Martin de Aguirre de Çabala, Juan Lopez de Toledo y Juan Lopez de Çabala...en testimonio de Verdad. Rodrigo de Yguerabide”.AGGPT1002.*

Interesgarria iruditzen zait ohar honetan datorrena. Agiria idatzi zen urtean, 1632an, oso gutxi izango ziren Amezketan gaztelaniaz egiten zutenak. Hala ere, hartutako erabaki guztiak hizkuntza horretan idazten zituen eskribauak. Hori bai, hartutako erabakiaren berri Meza Nagusian don Migelek eman behar izan zuenean, euskaraz egin zuen, *elizan zeuden guztiak ulertzeko.*

#### **-Galartza Garmendia Juan Bautista. Pilotari, alkate, zinegotzi.**

1979ko udal-hauteskundeak egin zirenean, Batista izan zen zen Amezketan zerrendaburu, *Amezketako Herri Batzarra* osatzen zuten hautagaien artean. Bera izan zen diktadura ondoko lehendabiziko alkatea. 9 zinegotzi egokitzen zitzaizkion orduan Amezketa herriari.

Handik hogeitaz urtera, 1999an, berriro hautagaien artean egon zen *Euskal Herritarrok* kandidaturan.

#### **-Galartza Garmendia Jokin.**

#### **-Galartza Garmendia Jose Maria. Pilotaria.**

**-Galartza Garmendia Jose Vicente.**

**-Galartza Goñi Josefa. Ehun urteren muga gainditu zuen lehendabizikoa Amezketan.**

Josefa Amezketako *Perutxonea* baserrian jaio zen 1907ko urriaren 18an jaio zen. Tolosako taberna batean lan egin ondoren, Amezketara itzuli eta *Aundiko* baserriko semea zen Frantzisko Sarasolarekin ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituzten; hiru neska eta hiru mutil.

Ehun urtera ailegatzeko zer egin behar den galdetuz gero, Josefak bi aholku eman ohi ditu:

-“Lana, gogotik”.

-“Horrez gain, osasuna mantendu”.

Oso berandutxo arte egin izan ditu etxeko lanak *Aundikoko amonak*.

**-Galartza Larrinaga Iker. Aktore eta gidoigilea.**

1977ko maiatzaren 17an jaio zen. Gaztea denarren, ibilbide luzea darama aktoretzan. Hiru barruti berezi behar dira bere joan-etorrian: telebista, antzerki eta pailazo lanak.

Telebista: - *Zoombados*, ETB2

-*Goenkale* (1994, ETB1)

-*Vaya Semanita* (2006, ETB2)

-*Euskolegas* (2009, ETB2)

Antzerkia: -*Erreleboa*

-*Ate joka* (2008)

-*Bota patsa*

Pailazo-lanak: *Poxpolo eta Mokolo* bikotean.

Gidoigiletzan 1994an, *Goenkale* idazten zutenen artean jardun zen.

Komedia maite du gainerako generoen gainetik.

**-Galartza Olano Eneko. Pilotaria.**

1975eko apirilaren 26an jaio zen Eneko. Oso umetan erakutsi zuen pilota egiteko egokitasuna. Afizionatuen mailan sari asko jasotakoa. Horien artean, Gipuzkoako Herriartekoan txapelduna 1993an, Usurbilgo taldeari nagusitu zitzaionean.

22 urte azpikoen mailan, Banakako Mundu Txapelduna izan zen Argentinan 1996an.

Bibitara: -Elkarteen arteko Euskal Ligan, txapeldun: 1995 eta 1997an.

-Federazioen arteko Lehiaketan, txapeldun: 1995 eta 1997an.

1997ko uztailaren 6an jokatu zuen bere lehengo partidua profesional gisa. Zarautzen izan zen. ALTI enpresan zegoen izena emanik. Ia lau urte jokatu zituen empresa horrekin, harik eta 2001an utzi zuen arte.

Gero, GARFE enpresarekin jardun zen.

#### **-Galartza Mendizabal Elena. Kontalaria.**

Resurrección María de Azkuek Amezketara visita egin zuen bakoitzean, Elenarekin ere egon nahi izaten zuen. Elenak Amezketako kontu zahar asko eskaitzen zion Azkueri.

Elena Amezketan jaio zen 1876ko abuztuaren 18an. Jose Ignazio Galartza Sagastume eta Benantzia Mendizabal Labakaren alaba zen. Gaia hartan Galartza-Mendizabal familia *Elizalde* esaten diogun etxean bizi zen. 1877an hartu zuen Elena haurrak Sendotzako sakramentua.

Braulio Galartza Karrararekin ezkondu zen 1901an, urtarrilaren 31an.

#### **-Felipe Frantzisko de. Amezketakoa erretorea: 1894-1899.**

-Galartza Olano Eneko. Pilotaria.

#### **-Galartza Uzkudun Luis. Soinujolea.**

*Luixito* izenarekin ezagutzen zen herrian. Amezketan jaio zen 1905ko martxoaren 24an. Kamio-gidari bezala gogoratzen dut. 1936-1939ko gerratea hasi aurretik, bi kamioien jabe izan zen. Gerrate garaian biak kendu zizkieten. Ez zuen berreskuratzerik izan. Gero, Papelerako kamioekin ibili zen lanean.

*Domingonea* tabernara etortzen zen soinujole donostiar bat izan zen *Luixitoren* lehendabiziko eta erakusle bakarra. Bi soinu zituen.

Soldaduska Ceutan egin zuen, eta han ere soinua ezin utzi... Gure artean, Amezketatik hasita, Bedaion, Larraitzen, Abaltzisketan eta abarretan.

1987ko uztailaren 7an hil zen, San Fermin egunez.

#### **-Galartza Migel Ignazio. Meatzaria.**

1797ko uztailaren 27an bere buruaz beste egin zuen Arrondon, *Lepasoro* deitzen den parajea. Urte hartako udaberrian, langile mordoska bota zuten Arritzagako meategitik, errentagarritasuna galdu zuela eta. Bertan jarraitzeko modua izan zutenen artean Migel Ignazio zegoen, baina burutik nahastuxea zebilen bolada hartan eta osasunez makal.

Uztaileko arratsalde bero hartan bere mundualdiari bukaera ematea deliberatu zuen, gaitzainon baten adarrean bere burua zitzilikatuz. Fernando Amezketarra izan zen lehenengoetako hildakoaren gorpua ikusten. Kontsejura ekarri zuten eta bi zirujau izan ziren Galartzaren heriotzari buruzko gorabeherei buruz txostena egiten.

Migel Ignazioren lurrematea zela eta, giroa gogotik bihurritu zen Amezketako alkatea eta elizgizonen artean. Josefa Antonia Astiz emaztea eta bi ondorengo utzi zituen *Galartza garaikoan* bizi zen meatzari tristeak.

#### **-Garagarza Dugiols Eugenio. Ingeniari Agronomoa.**

Nahiz eta jaiotzez amezketarra ez izan, lotura handia izan zuen gure herriarekin. Jose Antonio Garagartza amezketarra eta Maria Ramona Lopina Dugiolsen semea zen. Hauek 1826ko martxoaren 7an ezkondu ziren eta, Eugenio Asteasun etorri zen mundura 1827ko azaroaren 16an.

Bere aita, bai, Jose Antonio Garagartza, Amezketan jaio zen 1795an. Seguru asko, *Garagartzanea* edo *Erretoretxe zahar* etxean. Botikaria izan zen Tolosan.

Eugenio seme zaharrenak Frantzian, Grignon deitu hiriko Nekazal Eskolan egin zuen Ingenieritzako Karrera. Horretarako Diputazioak emandako bekaz baliatu zen 1850an. Ikasketak bukatu ondoan, Tolosan, lurreamendiko Granja Modeloan hasi zen lanean. Handik urte batzuetara Gasteizko Granja sortu zuen. Oso estimatua izan zen han egindako lana. Horregatik Arabako Diputazioak Gurutze artistiko bat opari egin zion bere esker ona azaldu nahirik. Azken urteetan goi mailako ardura izan zuen bere esku: Madrileko Paseo eta Zuhaiztien Zuzendaria zen.

Donostian hil zen Eugenio Garagartza 1889ko abenduaren 18an.

#### **-Garagarza Dugiols Fausto Kintin. Goi mailako kimikaria.**

Aurreko biografian aipatu den Eugenioren anaia zen. Hondarribian jaio zen: 1829-10-14. Gurasoak: Jose Antonio Garagartza eta Maria Ramona Lopina Dugiols.

Ikasketak Madrilen egin zituen Faustok. Amezketan ezkondu zen 1869ko uztailaren 5ean, gure herriko eliza nagusian. Bere ezkontidea Alfonsa Agirrezabala Lasa izan zen. Alfonsa, seguru asko, Madrilen jaiotakoa zen, baina bere gurasoak amezketarrak ziren: Migel Antonio Agirrezabala eta Antonia Lasa Garagartza. Migel Antonio Madrilen bizi zen aldi batean *merkatal agente* bezala. Amezketako herriak arazoak zituenean, bere esku uzten zituen Madrileko agintariekin negoziatzeko.

Beraz, nahiz eta Madrilen jaiotakoa izan bata-Alfontsa- eta beste- Fausto-Hondarribian, beren gurasoen herrira etorri ziren ezkontzera.

Bada Internet Fausto Garagartzari buruz xehetasun zuzenak ematen dituen lan bat: *El Laboratorio Municipal de Madrid en el último tercio del siglo XIX*. Bere egileak F. Javier Puerto Sarmiento eta Josefa Cobo Cobo dira. Hauen lanetik zatiok aukeratu ditut:

*“Poco tiempo duró Villanueva como director del Laboratorio, ya que murió en 1880.*



*Su sustituto, Fausto Garagarza (1830?-1905) dio un gran impulso a la recién creada institución y renovó la tradicional colaboración entre el Ayuntamiento y los farmacéuticos.*

*Nada más tomar posesión del cargo se trasladaron las instalaciones a la tercera casa consistorial, mejorándolas notablemente; se formó un **Reglamento para el servicio público del Laboratorio Químico Municipal**, que regulaba la posibilidad de que cualquier ciudadano solicitase sus servicios, siempre que hiciera frente a las tarifas establecidas, diferentes si el análisis pretendido era cualitativo o cuantitativo”.*

Artikulu honetan bertan esaten da zer nolako mailako zientifikoa zen Fausto Garagartzak:

*“Se licenció en Farmacia en la Universidad de Madrid, alcanzando también el grado de doctor (1867). Con anterioridad estudió Ciencias, carrera que no finalizó.*

*Su actividad académica comenzó al ser nombrado ayudante de Ampliación de Física, de la Facultad de Filosofía de la Universidad Central (1854); catedrático de Práctica de Operaciones Farmacéuticas de la Facultad de Farmacia de Santiago (1867); catedrático de Materia Farmacéutica Animal y Mineral de la Facultad de Farmacia de Madrid (1876). Posteriormente fue catedrático de esa Facultad de Análisis Químico, y de esa asignatura y Técnica Física.*

*Decano de la Facultad de Farmacia de Santiago (1876) y también de la de Madrid (1883-1884 y 1887-1900).*

*Entre sus actividades industriales, destaca la dedicación a la obtención de “barrilla”, en una fábrica de Ciempozuelos, y el establecimiento de un laboratorio químico en Madrid (ambas antes de ser nombrado catedrático).*

*Políticamente era cercano a Montero Ríos, del partido progresista democrático; fue gobernador civil de Pontevedra (1870 y 1872) y de La Coruña (1872-1873). Se le concedieron honores de jefe superior de Administración Civil (1888) y fue consejero de Instrucción Pública (1885-1895)”.*

*Fausto Garagartzak hamasei urtez zuzendu zuen Madrileko Laborategi Munizipala (1800-1896).*

*Oso ezaguna zen bere nortasuna. Pio Barojak *El árbol de la ciencia* liburuan aipatzen du. 1882an Fausto Garagartzak inauguratu zuen Medizina Fakultatean ikasurtea:*

*«Apertura del curso universitario. Ayer tarde, a la una, se celebró con gran solemnidad en la Universidad central esta fiesta escolar, habiendo asistido numerosa concurrencia. (...) Previa la venia del señor ministro, subió a la tribuna el catedrático de materia farmacéutica de la Escuela de farmacia, doctor D. Fausto Garagarza, quien leyó un erudito discurso sobre el Desarrollo del método experimental en las ciencias. Después de llamar la atención hacia el regenerador movimiento que se nota en todas las*

*manifestaciones de la vida de nuestro pueblo, singularmente en la enseñanza, hace constar en su discurso el doctor Garagarza, que ese cambio notable en nuestras costumbres se debe en gran parte al desarrollo y extensión que ha adquirido el método experimental. (...) A continuación procedióse al reparto de los premios, siendo entregados por el Sr. Albareda a los alumnos que los han obtenido. He aquí sus nombres: Facultad de filosofía y letras: (...) don Miguel Unamuno (...) Facultad de medicina: (...) D. José Verdes Montenegro (...).» La Iberia, Madrid, lunes 2 de octubre de 1882, pág. 2.)*

**-Garagartza Irulegi Ignazio. Ameriketan hila.**

1661ean, Maria Irulegi herriko agintariengana joan zen zera esateko:

*“Maria de Yrulegui vecina desta Villa viuda de Martin de Garagarza, como mejor aya lugar parezco ante vmd y digo que durante nuestro matrimonio tuvimos y procreamos entre otros por nuestro hijo legitimo a Ygnacio de Garagarza que agora puede aver veinte y seis años poco mas o menos partio destos Reynos a los de las Yndias y segun la noticia que ha dado Sebastian de Armendariz vecino de la ciudad de Lyma en carta que nos escrivia al dicho mi marido y a mi su fecha de veinte y seis del mes de Julio del año proximo pasado de mil y seiscientos y sesenta residiendo el dicho mi hijo en la villa de Yca quarenta leguas de distancia de la dicha ciudad de Lyma y estando casado y acomodado con doña Juliana XXX a tres meses que contrajo el dicho matrimonio murió y paso de la presente vida a los once dias del mes de noviembre de mil y seiscientos y cinquenta y ocho sin sucesión y abintestado y porque segun la dicha noticia ha dexado el dicho mi hijo alguna hazienda y caudal en la dicha villa y otras partes en poder de otras personas que se refieren en la dicha carta y el dicho Martin de Garagarza su padre legitimo y marido murió tambien agora catorce años poco mas o menos e yo como madre legitima y heredera forçada abintestato he sucedido conforme las leyes de estos Reynos en todos y qualesquiera bienes derechos y acciones que han quedado por fin y muerte del dicho mi hijo para su cobranza”.*

Aitorpen hau eginda, garai hartan horrelako kasuetan erabiltzen zen prozedura abian, martxan jartzeko eskatu zuen Maria Irulegik:

*“Por tanto a vm pido y suplico mande recibirme la dicha informacion de testigos que la ofrezco in continente en raçon de que durante el matrimonio entre mi y el dicho Martin de Garagarza hubimos y procreamos por nuestro hijo legitimo al dicho Ygnacio de Garagarza al qual le cuidamos (¿) y alimentamos llamándole hijo y el a nosotros padre y madre y despues que le dimos escuela y le enviamos a la ciudad de Sevilla, paso a los Reynos de Indias de edad de veinte años poco mas o menos y es el mismo que se contiene en la dicha carta y que el dicho Martin de Garagarça su padre y mi marido murió agora catorce años e yo soy su madre legitima y heredera forçosa...”.PT1042.*

**-Garagartza Lantz Josefa Ignazia.**

Amezketan jaio zen 1750eko uztailaren 31an. Gure herrian eman zuen azken arnasa:1828ko abenduaren 17an.

Juan Bautista Urretabizkaia alegiarraren bigarren emaztea eta Fernando Amezketarrak zuen Erretore adiskidearen ama. Urretabizkaia eta Josefa Ignazia Garagartza Amezketan ezkondu ziren 1776ko azaroaren 25ean. Hamar seme-alabaren guraso izan ziren: Ana Joakina (1777-10-20), Maria Antonia (1778-10-22), Juan Ignazio (1780-01-26), Juan Antonio (1782-03-04), Frantzisko Maria (1783-10-04), Jose Joakin (1785-01-25), Karlos Joakin (1787-01-06), Juan Antonio (1788-08-06), Josefa Joakina (1790-07-14) eta Juan Bautista (1792-11-09).

#### **-Garagartza Jose Manuel. Apaiza.**

Juan Bautista Urretabizkaiaren koinatua. Fernando Amezketaran bere nebazaroan ezagutu zuen Erretorea. Kargu honetan 1775etik 1794ra bitartean jardun zen. Amezketan hil zen 62 urerekin: 1805-03-01.

#### **- Goñi Pedro. 1831an Albizturko pelotazaleekin burrukan ibilitakoa.**

*Pedro Haundi* esaten zioten Amezketan. *Irigoena harunzkoan* bizi ziren Ignazio Antonio Sagastumek eta Juana Martina Etxeberriak Iruñeko Inklusatik ekarritako mutila zen. Sendotzako Sakramentua 1819ko urrian hartu zuen.

Pedro Goñi hau Maria Jose Egileor Galartzarekin ezkondu zen 1830ko azaroaren 28an eta *Espillan* jarri ziren bizitzen.

Hilabete gutxi barru, 1831ko uztailaren 28an amezketarrek Albizturko zenbaitekin Ibarra izandako sesioan parte hartu zuela eta, gogor hartu zuen gure Pedro Tolosako epaileak. Bere ondasunak bahitu, enbargatu zizkioten. Hobeto esan, bere emaztearenak egin zituzten, zeren, Pedro esku hutsik joan baitzen ezkontzera.

#### **-Goñi Ignazio. Inazio Galartzegei korrikaria.**

#### **-Gorostegi Artola Migel Ignazio. Korsarioa.**

Juan Gorostegi eta Paskuala Artolaren seme, 1817ko apirilaren 4an mundura jaio zen. Bere itsasontzian hil zen XVIII. mendearen erdi aldera. Amezketan hileta-elizkizuna 1743ko azaroaren 3an egin zitzaion: *Celebracion de sentimiento* esaten da agirian.

#### **-Gorostidi Altuna Aszensio. Apaiza.**

Zubiarrain baserrian jaioa. Apaiza. Bere azken urteak Caceresko Guijo de Santa Barbara herrian eman zituen. Asko maite zuten herri hartan, besteak beste, mendian Elurretako Amaren ermita eraiki zuelako. Diru asko behar, baina, gogotik saiatuaren poderioz, handik eta hemendik biltzea lortu zuen. Amezketatik ere sos batzuk joan omen ziren Guijo de Santa Barbarara.

Bestalde, joan den mendearen erdi aldera, gazte dezenteri lan aukerak aurkitu zizkien Gipuzkoan. Legazpin, batipat.

Osasu berakoa izaki, nahikoa gazterik, hil zen Caceresko Guijo de Santa Barbara herrian, 1966an. Bere oroitzapenean *Don Ascensio Gorostidi* izena eman zioten herriko kale bati.

**- Gorostidi Altuna Gregorio. Azken gerratean hila.**

*Zuriarraingo* semea zen. Ebroko frentean abuztuaren 11 zendu zen, *a consecuencia de hierro enemigo, según consta en el parte recibido*. 29 urte zeuzkan. Ezkongabea. Gurasoak, Lazaro eta Josefa. Hileta-eguna: irailak 9.

**-Gorostidi Altuna Martin. Sakramentinoa eta musikaria.**

*Zubiarraingo* semea hau ere. 1913ko uztailaren 13an jaio zen. Oso gazterik, Tolosako Sakramentinoen ikastetxera joan zen eta han ekin zien musika ikasketei. Tolosan bertan Eduardo Mokoroa musikari handiaren esanetara jardun zen aldi batean. Luis Urteagarekin ere ibilia zen.

Apaizgintzako sakramentua hartu ostean, Madrilen bi Eskolania zuzendu zituen: Santísimo Sacramento eta Sagrada Familia.

La Habanan ere urte batzuk eman zituen, organujoletzan.

1949an *Escolanía de Niños: su formación, su historia* liburua argitaratu zuen. Horrez gainera, musikagile oparoa izan zen: *Misa de Angelis*, *Misa comunitaria infantil*, *Misa de la Asamblea Santa*, *Junto al Sagrario (20 motete)*, *Laudate (18 motete)*, *Misa Solemnis*, *Misa in honoren Sanctissimi Sacramenti*, *Misa in honoren Sancti Pio X*, *Cantantibus organis*, *24 euskal pieza*, *12 euskal melodia...*

Bere azken urteak Iruñean eta Bilbon egin zituen. 1988an, ekainaren 19an hil zen Bilboko Zurbaranbarri auzoan Sakramentinoek duten etxean.

**-Gorostidi Loidi Bixente. Alkate izana. Bertsolaria.**

Amezketako *Iparragirre txikian* jaio zen 1973ko urtarrilaren 18an.

1995 aldera hasi zen bertsogintzan murgiltzen, Urretxuko herrian plazaratu ondoan. Gerozkoan lehiaketa askotan parte hartutakoa da: Gipuzkoakoan, Herriartekoan, Orixe, Lizardi...Osinalde saria irabazitakoa da Bixente. Adituek esaten dutenez, bertsolari atsegina, gozoa eta entzungarria da oso bertsolari amezketarra.

2010ean, *Fernando eta bere garaiko Amezketa* liburuaren aurkezpenean, apirilaren 15.zen egun hura, bertso hau bota zien herritarrei eta bertara agertutakoei:

*Orain artean gure Pernandok*

*kanpoan izan du fama*

*han kantatua, han ibilia,  
halakori hau esana...  
Bertsoak eta pasadizoak  
bildu ditu banan bana  
Amezketantzat urre bitxi da  
Joxemarik egin dun lana  
gero ta gehio mattetzen baita  
geho ezagutzen dana.*

Herriko Alkate izan zen 1999tik 2002ra artean. Gaur egun bertso-irakasletzan dihardu.

**-Gorostieta Gorostegi Martin Bernardo.** Aurreneko maisu tituloduna Amezketan.

**-Gurrutxaga Otamendi Maite. Marrazkilaria.**

Bere anaia Mikelen testua marraztuz, album ilustratuen saria irabazi zuen 2010ko martxoan. Maite Gurrutxagak zenbait liburutako ilustrazioak eginak ditu jadanik:

*-Zein beste mundukoa. Karlos linazasoro. Elkar.2008.*

*-Gau ilunekoak. Joseba Sarrionaindia. Elkar.2008.*

*-Izarra artzaina. Josu Waliño. Txalaparta. 2009.*

*-Kakauete, dortoka da bidea.cc. 2010.*

**-Gurrutxaga Otamendi Mikel. Idazlea.**

Album ilustratuen Etxepare Saria 2009 irabazi zuen. Lanaren titulua: *Alex, nire munstro-lagun on ona*. Bere arreba Maite izan zuen marrazkilari. Bere lehengo plazareatzea zen idazle modura. Pamiela etxeak 2010eko udazkenean argitaratu behar zuen lan saritua.

-Huarte Bernardo

-Huarte Martin

-Huarte Pedro

**-Mendiola Martin Joan.** Apaiza. Kalixto III aita santuak 1455an baimena ematen dio Amezketako San Bartolome elizazeta Ugarteko Santa Mariaren jabe egin dadin. Amezketako elizgizonen artean hauxe da zaharrena.

-

**-Igerabide Rodrigo. Bozueko Eskribaua.**

Seguru asko, Alegian jaiotako eskribaua. Amezketak *herri* maila hartu zuenean, 1615ean, ez zeukan letradu propiorik. Horregatik, *Bozueko letraduaz* baliatzen zen hartutako erabakiak papelera eramateko. 1630 aldera Rodrigo Igerabidek hartu zuen bere gain zeregin hori. Hona hemen adibide bat:

*“Escriptura de benta de tierras.*

*En la villa de Amezqueta a veinte y dos dias de mes de febrero de mill y seiscientos y treinta y un años ante mi Rodrigo de Igueravide escrivano de Su Magestad y del numero de Bozue y testigo de suso escriptos...”.*

Gehienetan horrela ekiten zion Rodrigok akta idazteareri. Bazituen,ordea, beste hasierak ere. Esate baterako:

*“Yo Rodrigo de Ygueravide escrivano de Su Magestad y del numero de Bozue doy fee que oy dia domingo que se quentan diez deste mes de octubre del año mill y seiscientos y treinta y dos, don Miguel de Galarza Rector de la Iglesia Parrochial de Señor San Bartolome desta villa de Amezqueta...”.*AGGPT1002.

Agiri asko dago Amezketako herriaz Rodrigo Igerabidek sinaturik.

-Imaz Juan Maria. Ataundarra. Sekretarioa.

-Intxausti German. Alegiako semea. Txistularia eta argazkilaria.

-Intxausti Rikardo. Legorretan jaiotakoa. Txistularia.

-Inurrita Benito Jesus. Alkatea.

**-Iñurrita Benito Jose. Musikaria. Organojotzailea.**

Donostiako Seminarioan egon zen garaian, beste zenbait ikaskiderekin batera *Enarak* zeritzan musika taldea osatu zuen 1968an Josek. *Kitxi* izengoitiz zen ezaguna. Euskal kanta zaharrak bezala nazioarteko hitak jo eta kantatzen zituzten. Anton Aranburu usurbildarrak laguntzen zien kanta-letrak sortu nahiz egokitzen; Joan Mari Lekuonak ere bai.

Taldea sortu eta handik bi urtera, 1970an, taldekide aldaketa izan zen. 1971ean eskaini zituen azken saioak. Bizirik egon zen hiru urte haietan herri askotan jotako Euskal Herri osoan. Disko bat grabatu ere egin zuten, besteak beste *Solferinoko itsua* eta *Ama* kantekin.

-Irazusta Juan Antonio. *Joañixio* eleberria egin zuena.

-Iriarte Santos *Errekartetxo*. **Kargajasotzailea**. Loiolako *Errekartetxo* baserrian jaiotakoa. Indartsu azpeitiarrak apustu askotan parte hartu zuen, baina bere balentriairik handiena *Albitzuri Haundi* harri gaiztoa bizkarreratzea izan zen. 1947ko azaroaren 31an lortu zuen hori.

Egun hartan, Amezketan dirutza handia jokatu zela esaten da, eta amezketar asko izan zela galtzaile. Azpeitian aldiz oso konforme ziren. Santosek harria menderatu zuela jakin zenean, etxaferoak eta guzti erre zituzten Azpeitian.

-Iriarte Artano Migel Frantzisko. Amezketako eskribaua izana: 1810-1866.

-**Berraondo Ramon.** Bere gaitzizena: *Martin de Anguiozar.*

-**Izurategi Lasagabaster Eusebia.**

Aretxabaletakoa zen jaiotzez, Arkarazo hauzokoa, baina Amezketan urte asko egindakoa. Juan Maria Imaz sekretarioaren emaztea eta don Manuel Lizarribarren neskaemakria.

1940ko azaroaren 7an bere jaiotetxera joan nahi izan zuen *Euxebik*, Arkarazo aldean, Aretxabaletako herria atzean utzi ondoan. Mutil gazte batek labanaz pasatu zuen bidean. Zauri larriak zituen *Euxebik*. Ordu batzuk bizirik egin bazituen ere, azkenean azken arnasa eman behar izan zuen.

Amezketan eman zitzaion lurra *Euxebiri*. Don Manuel Lizarribar erretoreak ohar hau idatzi zuen eliz-liburuan:

*“A nueve de noviembre de 1940, mandé dar sepultura a Doña Eusebia Izurategui Lasagabaster, natural de Arcarazo de de Arechavaleta, de 48 años de edad.*

*Falleció, según certificación facultativa, á las seis y media de la mañana de ayer en la casa parroquial de ésta, a consecuencia de “herida de arma blanca”.*

*En el acto del fallecimiento se hallaba casada con don Don Juan María Imaz, Secretario Municipal de esta Villa”.*

Asko estimatzen omen zuten amezketarrek *Euxebi*. Berebiziko zirarra eragin zuen gertaera honek 1940an, Amezketan.

-**Jaureguibarria Mendibil Martin. Kapitaina eta Amezketako alkatea.**

Arrasatekoa zen jaiotzez, baina Amezketan jarri zen bizitzen ezkondu zenean. Agiri askotan ageri da bere izen-deitura. Beti, aurretik *Capitan* izena jartzen zaio. Behin baino gehiagotan izan zen agintari nagusi Amezketan. 1641an, esate baterako, herriko alkatetzaren bere eskuetan zegoen. Laguntzaileak: *Santsategiko* Juan Lopez Toledo eta Juan Sarasola.

Bere emaztea Maria Igerabide amezketarra izan zen.

1648an ere herriko alkate izan zen bigarren aldiz. Bere inguruan, zinegotzi-erregidore moduan, Martin Toledo eta Migel Galartza *gaztea* jardun ziren, eta sindiko prokuradore nagusi, Asentzio Arrataka.

1657an ere bere esku egon zen alkatetzako aginte-makila. Hirugarren agintealdi honetan laguntzaileak Juan Lizeaga eta Juan Sarasola izan zituen.

-**Karrera Martin. Alkate bi bider.**

Amezketarrek 1734an bera aukeratu zuten alkatetza eramateko. Bere laguntzaile nagusia urte hartan, sindiko prokuradore nagusi bezala, Frantzisko Zubeldia izan zuen. *Fransenea/Francena* etxean bizi zen, Amezketako Plazan.

Hurrengo agintealdia 1737koa izan zuen Martinek. Errejidore-zinegotzietako bat Juakin Sarasola izan zen eta Rodrigo Lizeaga jardun zen sindiko prokuradore nagusiaren lanetan.

Garai hartan berea zen *Francena* (sic) esaten zitzaion etxea. Guk *Plantxanea* bezala ezagutu duguna zen etxe hura.

#### **-Karrera Agirrebarrena Antonio. Politikoa. Ingeniarria.**

*Lizeaga* baserrian jaio zen 1943an. Hamazazpi urtez baserri lanetan ibili ondoren, ikasketei heltzea erabaki zuen. Bi urte eman zituen Batxillergoa egiten. Gero, Nekazaritzako Ingeniero titulua lortu zuen.

1967an detenitua izan zen, eta hamabost egun komisaldegian egona. Burgosko epaiketan zigortu zituztenen artean dago Antonio. 12 urteko espetxe zigorra ezarri zioten.

1976ko martxoaren 3an aske utzi zuten. Hurrengo urtean Fraisoroko Nekazal Eskolan sartu zen. Berak inoiz aitortu duenez, asko kostata izan bazen ere. Azkenean, epaitegian hartu zen erabakia. Hasieran, irakasle izan zen Fraisoron. Azken hamasei urteak zuzendari lanetan egin zituen.

ETAn egindako aldia bukatu ondoren, LKI eta IU-Ezker Batuan ibilia da. Azken honen ordezkari izan zen Eusko Legebiltzarrean. Ez da hori bere eginkizun bakarra izan politika arloan: zinergotzi Donostiako Udalean, Koordinatzaile Gipuzkoan bi bider.

#### **-Karrera Agirrebarrena Maria.**

*Ahotsak.com* atarian aurkezpen hau egin zioten Mariari: *“Amezketako Lizeaga baserrian jaioa. Herreran neskame eta Amezketako Estankoa lanean aritua. Tabernara sartu izanagatik herriko apaizak pulpilotik hartu zien kargu berari eta beste neska gazte batzuei”*.

1935ean jaio zen Maria. Urte asko daramatza *Azintzine txikian* bizitzen. Bere senarra Antonio Telletxea Galartza zen.

#### **-Karrera Aranburu Iker. Mendiko lasterkaria.**

Bere fama 2004an hasi zen kirolzaleen artean zabaltzen. Urte hartako uztailaren 31an Txindokira hamaika bider igo zen. Marka aparta. Beroa neurritz kanpoko izan zen 24 ordu haietan. 45 gradura igo zen termometroa zenbait parajetan.

Balentria hau egin eta handik bi urtera, 2006ko uztailaren 30ean beste marka berria lortu zuen. Oraingo honetan, Huescan. Torlako herritik Monte Perdidoan joan-etorrian probatu nahi izan zuen bere burua:

-Cola de Caballo: 80 minutuan sartu zen.

-Gorizko aterpera: 110 minutuan.



-Monte Perdido gailurrera: 173 minutuan (2 ordu 53 minutu)

Guztira, 4 ordu eta 48 minutu behar izan zituen.

2006an, Espainiako Mendi Lasterketa Kopan hirugarren sailkatu zen. Bere probarik onena Palencian jokatu zena izan zuen.

Ez da harritzekoa, beraz, merituok kontuan izanik, Euskal Herriko Mendi Federazioak 2006ko Mendiko Lasterkari Onenaren Saria Iker Karrera Aranburu ematea. Sariaren berri izan zuenean zera aitortu zuen:

*«Ezustean hartu dut, baina poztekoa da. Aintzat hartzen zaituztela ikustea pozgarria da beti».*

Iker Karrera Aranburu, 1975ean, *Lizeaga* baserrian jaiotako atleta da.

#### **-Karrera Garmendia Andres. Alkatea.**

Seguru asko, Amezketako haurrak eta gaztetxoak eskolatzeko lehenengo ahalegina 1693an egin zen. Urte hartan herriko agintari nagusia gazte bat zen: Karrera Garmendia Andres. Bere lankideak Kontsejuan: Juan Garagartza, errejidore eta *Toledo* baserriko Frantzisko Lizeaga.

1693ko urriaren 25ean bilera garrantzitsua egin zuten Bernardo Murugarrieta hondarrabiarrarekin. Hau prest zegoen Amezketako ume eta gaztetxoei eskola emateko.

Ikusten denez, aspaldikoa zen horrela zerbait abian jartzeko asmoa, eta Andres Karreraren agintealdian lortu zen proiektu hura gauzatzea.

**-Karrera Ormaetxea Jose.**1937ko maiatzaren 25ean desagertu zen Leridan: *desaparecido en acción de guerra*. Batallón de Montaña Arapiles nº 7ko soldadua zen.

**-Labaian Garin Ignazio.** *Etxaizkoa*. Gerratea amaitu eta handik aldi batera hil zen Ignazio Labaien Garin. Frentean nozitutako zauriak sendatu ezin, eta gangrenak eraman zuen mundu honetatik.

#### **-Lardizabal Juan Bautista. Alkatea.**

Usadioa zen bezala, urtebeteko agintealdia izan zuen Juan Bautistak ere, hau da, 1706ko San Migel egunean hasi eta 1707kora artekoa. Aguazila gara hartan Migel Goikoetxea zen herrian.

#### **-Lardizabal Xabier Frantzisko. Zirujaua.**

Aste egunetan lana izango zuen, baina jai eta igande egunetan ere bai. Zurrut pixka bat eginez gero, batzu batzuk zenbait indartu egin ohi dira. Horrela da orain eta horrela zen 1790 aldera ere.

1789. urtean, *Barabarrena* esaten zioten etxeko Domingo eta Jose Altuna jipoitu zituztenean, Xabier Frantziskorengana jo zuten laguntza eske. Antzeko zerbait gertatu zen

1790ko martxoan, seguru asko, aurreneko igandean. Kontua da behintzat, arratsaldeko 8ak jo zutenean, jendeak utzi egin behar izan zuela Kontseju zaharreko taberna. Tente jaisten ari zen jendea ere bazen, baina baita balantza egiten zutenak. Eskailerak jaisten ari zirenen artean zeuden Juan Ignazio Aguirrezabala eta Jose Altuna. Batek onbeharrez besotik heldu, besteari hori ez gustatu eta...hor non ekiten dioten burrukari. Auzitan bukatu zuen gorabehera honek.

1790 aldera utzi zuen Lardizabalek Amezketako zirujautza. Ondoko urteetan Jose Ramon Sagastumek hartu zuen bere gain lanbide hori.

**-Lantz Juan Antonio.** Amezketan eskribau izana: 1786-1818.

**-Larreta Jose Maria.** Konfiteroa. Amezketako zinegotzi eta alkate izana. El confitero José María Larreta fue nombrado Juez Municipal para el binomio 1897-1899. Más tarde llegó a ser Alcalde de la villa. Debió ser un defensor a ultranza del ideario carlista. Fue el progenitor de Concepción Larreta, *Kontxixion*, maestra de párvulos a mediados del siglo XX.

**-Lapatza Lizentziatua. Erretorea.**

Egia esan, ez dakigu zein zen bere izen propioa. 1615 aldera, Amezketak Tolosarengandik bereiztea lortu zuenean, gogotik saiatu omen zen Amezketako Erretore zen Lapatza Lizentziatua. Horrelako zerbait gertatu zen Andoainen ere Eguzkitza lizentziatuarekin ere. Hau apaiz benefiziaria zen Andoainen.

Ikusten denez, aski ezagunak ziren bi elizgizon hauek, eta Tolosako Udala ez zegoen batere konforme bere jokabidearekin. *Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615)* ikerketa interesgarrian honela diote egileek:

*Testigo Jose Alberto de Pagola*

*Antemi, Jph de Arrataca”.*

Akordio hau sinatu baino askoz lehenago galdu zuen bere emaztea: Maria Bizenta Olaskoaga Ariztegieta. 1814ko otsailaren 23an hil zen Maria Bizenta.

Jose Ramon Sagastume Artola, Amezketan zirujau estimatua 1835eko uztailaren 9an hil zen Amezketan, bere 70.urtean.

**-Sagastume Olaskoaga Juan Luis. Zirujaua. Gipuzkoako Gurutze Gorria sortu zuenaren aita.**

Juan Luisen gurasoak, aurreko artikuluan aurreratu denez, Jose Ramon Sagastume Artola eta Maria Bizenta Olaskoaga Ariztegieta ren semea zen. Jaiotza-data: 1798ko azaroaren 25ean.

Aitaren lanbide berberakoa zen, hau da, zirujaua. Amezketan ezkondu zen Josefa Ignazia Larretarekin: 18-05-02.

Seme-alabak:

-Jose Ramon: 1817-04-25. Bedaion.

-Juan Ignazio: 1819-05-31. Amezketan.

-Maria Dominika: 1822-02-11. Amezketan.

-Maria Ignazia Biktoriana: 1826-03-26. Lezon.

-Pedro: 1828-01-18. Lezon.

-Juan Jorge: 1829-04-23. Lezon.

Xehetasun interesgarria iruditzen zait honako hau. Jose Ramon Bedaion jaio bazen ere, laister etorri ziren bere gurasoak Amezketara eta hemen jarri ziren bizitzen, *Sagastume* esaten zitzaion etxean. 1819ko urriaren 27-28 Sendotza hartzeko egunak izan ziren Amezketan. Hartu zutenen artean zeuden Jose Ramon eta Juan Ignazio.

Politikoki liberala zen Juan Luis Sagastume Olaskoaga. Hirurteko Liberalaren garaian Amezketan bizi izan zen Juan Luis. Areago. Amezketako Borondatezko Miliziakide zen. Trienio Liberaleko burruka egunetan gauzak okertzen ari zirela Juan Luisek ikusi zuenean, miliziako lana arintzeko eskatu zuen. Bere zirujau lana zela eta, urrutiko baserrietara joatek zituen arrizkuez oharturik, kontrarioen eskuetan erortzeko beldurra zuen, noski.

Urte hartan J. A. Gorostegi zen Amezketako alkatea. Honi zegokion Juan Luis Sagastumeren eskariari, eta baita erantzun ere. Eskari hori aintzakotzat ez hartzeko agindu zuen Gorostegik:

*“especialmente en estas circunstancias tan apuradas en qué la defensa debe ser más firme que nunca”.*

Liberalen kontrarioak Amezketan sartu zirenean, 1822ko abuztuaren 7an gertatu zen hori, multa handiak ezarri zituzten herrian. Zigortuen artean Juan Luis Sagastume zegoen. Mila erreal ordaindu behar izan zituen Sagastumek. Horrez gainera hiru mando eta zaldi bat eraman zituzten.

Handik aurrera bere egoera larria izan zitekeela pentsatuz, herritik irtetea erabaki zuen, eta Nafarroaren jo zuen. Unanu eta Dorrauko zirujauna izan zen aldi labur batean.

Nafarroatik...Lezora. Bai, herri honetan jaio ziren bere azken hiru alaba-  
semeak: Maria Ignazia Biktoriana, Pedro eta Juan Jorge.

**-Sagastume Saralegi Jose Fermin. Artzaina eta korrikaria.**

Korrikazaleak ziren **Larramendi** baserrian 1946-1948 aldera; bizkorrak ziren mendian. Jose Fermin eta Kosme Elurbek beren indarrak neurtu nahi izan zituzten Amezketeta-Igaratza-Amezketeta ibilbidean. 1946ko urtarrilaren 27an egin jokatu zuten apustua. Jose Ferminen egindako denbora: ordu bat, 46 minutu eta 32 segundo. Koxmek bi minutu eta erdi gehiago behar izan zituen.

**-Sagastume Saralegi Pedro. Larramendiko Pello. Apustu asko egina.**

Oso gaztetan nabarmendu zen atleta modura. Bere markarik aipagarriena, 50 kilo zituela, Lakuntzatik Amezketara egindakoa da. 1948an lortu zuen: lau ordu, minutu bat eta hogeita lau segundo. Harri eta zur utzi zituen Pello gazteak apustuzaleak, eta baita herritar asko ere. Gaur egun ere meritu handikotzat jotzen da Larramendiko semearen marka.

Goizeko 7.30etan irten zen Lakuntzatik. Martxoaren 14.garrena zen egun hura. Amezketako apustuzale asko zuen bere inguruan, animoak emateko joanda. Goizeko 11.30ak jo eta berehala sartu zen Amezketako plazan.

Oso atleta ezaguna egin zen bolada hartan. Sona handia ekarri zion Aralarren egindako markak. Hori horrela, 1948an bertan J. Maritxalarrekin neurtu zen Tolosako zezenplazan, 8 kilometro lehenago nork egin. Oraingoan ere 50 kilo eraman behar zituzten bizkarrean. Pello, irabazle berriro ere. Bere denbora: 61 minutu eta 6 segundo. Maritxalarrek: 64 minutu eta 2 segundo.

Galdutako apustua ere izan zuen Larramediko Pellok. 1948an gertatu zen hori, Tolosako plazan. Migel Sukuntza atletak 7000 metro egin behar zituen lasterka, eta Pellok 4000, baina 50 kiloko zamarekin. Sukuntzak irabazi zuen: 25 minutu eta 9 segundotan. Pellok, 3775 metro eginda zeuzkanean, apustua galduta zeukala ikusirik, lasterketa bertan behera uztea erabaki zuen.

**-Saralegi Ulazia Joakin Antonio. 1831an, Ibarren tiroz zauritu zuten pilotazalea.**

1831ko uztailaren 28an berebiziko pilota partida jokatu zen Lizartzako plazan. Alde batetik, Amezketako pilotariak; bestetik, Albizturkoak. Bigarren neurketa zuten beren artean. Lehendabizikoa Amezketan jokatu zuten eta herrikoek irabazi. Errebantxan, ordea, Albizturkoak nagusitu ziren.

Bazkalondoan, irabazleak bezala galtzaileak, Tolosako bidean jarri ziren. Leaburuko *Telleria* ingurutik Ibarako *Gurutzera* sartu nahi zuten.

*Gurutze* baserriko baratze inguruan burrukan egin zuten, eta ondorioz, hildako bat izan zen. Bizirik atera baina zauririk handienak Joakin Saralegirenak ziren. *Larramendi* baserrian bizi zen. Hilabete batzuk behar izan zituen bere zauriak sendatzen.

Joakin Antonio 1801ean jaio zen, uztailaren 16an. Bere gurasoak: Ignazio Saralegi Garaialde eta Maria Felipa Ulazia Pagola.

**-Saralegi Mujika Ekaitz. Eskuzko pilotaria.**

Eskuzko pilotan Amezketak eman duen azken pilotaría dan Saralegi Mujika. Bere ibilbide profesionala estimagarria da oso.

Ekaitz 1979ko abuztuaren 14an jaio zen. Oso umetan hasi zen pilotan, eta baita berehala nabarmendu ere. 1993an, Gipuzkoako Herriarteko txapelketa irabazi zuen Amezketako taldearekin. 1996 eta 1997an Antiguako Torneoko txapelak beretzat izan ziren.

199an, *El Diario Vasco* torneoa irabazi zuen bi bitara. 2001ean profesional egin zen Asegarce enpresan. Geroztikako urteak empresa horretan egin ditu.

Aurrelari artetsua da, eta trebea. Bere jokoa ikusgarria eta bizia dela diote teknikariek eta pilotazale guztiek ere.

Urratsez urrats, poliki poliki, gero eta maila hobea erakusten ari da Saralegi. 2010. urtean lortu du lehen mailako partidetan parte hartzea eta bai Txapelketa Nagusian zenbait partida jokatzea. Bigarren mailakoan finalera ailegatu zen, baina txapelak ihes egin zion.

Iruñeko Labrit pilotalekuan, Iñaki Eskudero eratsundarrarekin bat eginik, Arretxe II eta Unai Zabalararekin neurtu zen Ekaitz. Ez zuen zorterik izan, eta finalista izatearen ohorearekin geratu zen.

**-Saralegi Joxepi. Amezketako ikastolan lehenengo andereño izana.**

**- Saralegi Zabala Felipe. Azken gerratean hildako gaztea.**

*Auzoetxekoa.* 1938ko urtarrilaren 3an eskaini zitzaion hileta soldadu amezketar honi. 26 urte zituen. Jose eta Josefaren semea zen.

**-Sarasola Juan Kruz.** Amezketan eskribau izana: 1830-1860.

**-Sarasola Altuna Jose Joakin. Alkatea.**

1860an, apirilaren 7an jaio zen herri-arazoetan sarritan parte hartutako gizona. Bere gurasoak: Joakin Sarasola Balerdi eta Maria Josefa Altuna Loidi.

1910 aldera bera zen herriko alkatea. Gainerako zinegotziak: Juan Ignazio Aierbe, Domingo Garin, Juan Migel Ezeiza, Juan Agirrezabala, Pedro Bernarats, Frantzisko Karrera, Ramon Altuna eta Felipe Agirrebarrena.

**-Sarasola Espilla Martin. Alkatea.**

1691ko San Migel egunez, Amezketako herriak Martin Sarasola *Espillakoa* aukeratu zuen alkatetzarako. *Asentziona* edo *Larrantza haundiko* Asentzio Arrataka zuen zinegotzi-errejidore; prokuradore sindiko nagusi berriz *Etar*teko Antonio Lizeaga.

**-Sarasola Zelaitxik Andoni. Futbolaria.**

Alaves taldeko jokalaria zelarik, 1969ko ekainaren 13an auto-istripua izan zuen Eginu herri inguruan, Arabako lurretan. Bere eguna gurasoen etxean pasatu, eta Gasteiza itzultzen ari zela nozitu zuen ezbeharra. Bi egun egin zituen hartutako kolpeei buelta eman ezinik.

Aurreneko orduak Gasteizko Ospitalean eman zituen, baina bere egoera oso larria zela ikusirik, Poliklinikara eramatea erabaki zuten medikuek. Alferrik izan zen.

Oso ongi ari zen bolada hartan futbolean. Denboraldia amaitzean, Barcelonako Español taldera joatekoa zela zabaldu zen. Hori esaten zen Gasteizen. Valencia ere bere atzetik ote zebilen zabaldu zen.

1965-1966 denboraldian hasi zen Alaves taldean jokatzen; aurretik, Ondarroako Aurreran ibilia zen.

Gorpuzkeraz garaia zen; bizkorra eta saiatu izaeraz. Asko estimatzen zuten Gasteizen. Horren leluo 1970eko martxoaren 19an eskaini zioten omenaldia. Real Madrid eta Athleticen jokatutako jokalariek ezagun asko aritu ziren Andoniren omenez: Di Stefano, Marquitos, Alonso, Pachin, Atienza, Puskas...eta Carmelo, Orue, Garai, Etura...Festa handia izan zen hura.

#### **-Sarasola Zelaitxiki Ignazio. Pilotaria eta soinujolea.**

Kotxetako *Garagartzanea* edo *Erretoretxe zahar* etxean jaio zen 1931ko otsailaren 11an. Pilotazalea zen oso umetan, eta urteetan aurrera egin ahala pilotari egin zen. Herri askotan ibili zen zuriz jantzita. Donostian ere ezaguna zen. Madrilen ere jokatutakoa zen bere anaia Joxerekin. Trofeo asko irabazi zuen Ignaziok.

Bigarren zaletasuna soinua zuen. 17 urte bete eta berehala erosi zion *Domingoeneko* Dionisio Etxeberriari. Egia esan, Dionisiok Aralarko meategian ari zen bati saldu zion aurren-aurrena. Erosle honek uko egin zion meategiko lanari eta Amezketatik joatea erabaki zuen. Berriz ere hartu egin zion Dionisio Etxeberriak. Hurrengo eroslea Ignazio Sarasola izan zen. Urte eta istorio handiko soinua da. Ikusten denez, ehun urtetik gora izan omen ditzake. Gerrate zibilaren aurretik Amezketako batzokian egon omen zen, Luisito Galartzak jotzen omen zuen... Asko estimatzen du gaur egun ere Ignaziok bere soinu zaharra.

Amezketako plazan, Abaltzisketan, Bedaion, eta abarretan ezagutu zuten Ignazio soinua jotzen. 1960 aldera utzi zion jendeaurrean jotzeari.

-Sarasola Joakin. Amezketako alkatea izana.

-**Tolosa Rafael.** Ugarteko elizan erretore izana XX.mendean.

#### **-Tolosa Agirrezabala Juan Martin. Korrikalaria.**

Bere izena Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiari lotua dago behin betirako. 2002an jokatu zen lehenengo aldiz, uztailaren 7an. 200 lasterkari bildu ziren Zegamako plazan. Ez zegoen faboritoen artean, baina Juan Martin Tolosak irabazi zuen. Bere marka: 4 ordu, 14 minutu eta 23 segundo. Bigarrenak, Asier Urdanpiletak 7 minutu gehiago behar izan zituen: 4-21-20. Hogeita hamasei urte zituen urte hartan Juan Martin Tolosak.

#### **-Tolosa Artola Ignazio. Azken gerratean hildako gaztea.**

1938ko urriaren 3an ospatu zen bere aldeko elizkizuna. 20 urteko ugartearra. Bere gurasoak Santiago eta Ignazia ziren. Irailaren 19 aldera hil zen frentean, Teruelgoan edota Kataluñaikoan. Sarrión herrian eman zitzaion lurra.

### **-Tolosa Barrenetxea Juan Nizeto. Ugarteko erretorea.**

1910 aldera bera zen Ugarteko elizaren arduraduna. Tolosan jaiotakoa zen Juan Nizeto Tolosa Barrenetxea: 1877-03-21.

Amezketan, 1924ko urtean eskolumeen hezkuntzaz bilera egin zenean, besteak beste, don Nizeto Tolosa egon zen.

### **-Tolosa Esnaola Jose Antonio. Pilotaria. Txapelduna.**

Joxean Tolosa 1955ko urriaren 27an jaio zen *Elizegi* etxean, Ugarten. Aurreneko urtean hantxe eman zituen, amaren jaiotetxean. Aita ere oso kirol-zalea zuen. Joxean txiki txikitatik hasi zen pilota astintzen. Ugarteko pilotaleku xahar eta txikian eman zituen lehendabiziko pilotakadak.

Honela kontatu ohi du Joxeanek nola murgildu zen pilota munduan:

*“Ni pilotan nola hasi nintzen ikaragarria da, sinisteko modukoa ez da. Ni beti bazter guztietan ibiltzen nintzen pilotan lehen, baina orduan ez zegoen txapelketarik edota delegaturik, eta ateratzeko inork esan ez. Donostian PREU egin arte egon nintzen, eta gero Arrasatera joan nintzen Politeknikora. Han ere ahal nuen bakoitzean kriston palizak hartzen nituen pilotan. Hantxe esan zidan lagun batek presentatu behar genuela, eta halaxe hasi nintzen, hemezortzi-hemeretzi urte nituela. Amari esan nion galtza zuriak egiteko...” Galtza zuriak zertarako dituk hik, eskolara joan eta pilotan zer egin behar duk?”, eta holaxe hasi nintzen”.*

Bere burua zuriz jantzita ikusteko aukera Arrasaten egokitu zitzaion, han ari baitzen ikasketak egiten. 1874an hasi zen afizionatu mailan jokatzeko. Lehiaketak: Cuenca del Deba, Herriartekoa Arrasateko taldean (1974-1975). Hala ere, bere titulurik estimagarriena maila honetan 1975ean lortu zuen, Azkoitiko Jabier Antsolarekin, Espainiako Txapelketaren finalean, Txoperena-Martinez nafarrak menderatuz. Titulu asko bereganatuen zuen aldi hartan: Antzuola, Altsasu, Antigua, Zumaia, Irun, Azpeitia....

Afizionatuen artean lortu beharrekoak lortu eta, 1976ko otsailaren 21ean debuta profesionalen mailan, gorenekoan. Lehenengo partidua: Pascual eta Tolosa, Tapia II eta Etxabe XI. ren aurka. Berehala hasi zen jaialdietako partidua nagusietan jokatzeko, estelarretan. Maila on ona ari baitzen erakusten Elizegiko mutila. Bere lehendabiziko estelarra: Clemente Arroyo “El Panaderito de Oyón” eta Joxean Tolosa, Mikel Berasaluze eta Elortzaren aurka. Pilota sonatuekin jokatu zuen, bere garaiko onenekin: Julian Lajos, Fernando Tapia, Luis Benito Nalda, Iñaki Gorostiza, Ladis Galartza, Antton Maiz, Juan Ignazio Retegi, Panpi Ladutxe, Elias Pierola, Juan Ramon Tapia, Julian Retegi, Bengoetxeatarrak, Berasaluze IV...

Pilotazaleek oso gogoan edukitzen dute Gasteizko Ogeta pilotalekuan gertatutakoa. Ladis Galartza eta Tolosa ari ziren buruz buru jokatzeko. Baraibarkoak berebiziko partidua jokatu zuen, markagailua 21 eta 7an jartzeraino. Orduantxe piztu zen Tolosa, 22raino zuzen-zuzen joanez. Hura zaplaztakoa diru-jokalarientzati

1980 aldera hasi zen Tolosa Esnaola izen handiko pilotariekin finaletan parte hartzen. Joan Mari Beristainekin jokatu zuen Tolosak 1981-1982ko txapelketa. Txapeldun izan ziren. Hurrengo txapela 1986-1987koak eman zion, Panpi Ladutxerekin bikotea osaturik.

Titulurik preziatuena, ordea, 1989ko finalak eman zion. Aurretik, eginahal asko egina zen, baina batez ere Julian Retegi nagusitzen zitzaion azken partiduan, bai 1986an eta 1987an ere. 1989an, ordea, Migel Letamendia aholkukari zuela, Eratsungo txapelduna menderatu zuen: 22-19. Txapela hura da egun pilotari gipuzkoak batek buruz buru irabazitako azken txapela.

1995ko azaroaren 15ean jokatu zuen bere azken partida Eibarko Astelenan. Gaur egun ETBko pilota partidak komentatzen ditu, Xabier Euzkitzerekin batera. Donostian bizi da Joxean Tolosa Esnaola txapelduna.

#### **-Tolosa Esnaola Ignazio. Pilotaria.**

-Tolosa Esnaola. XX.

#### **-Tolosa Tolosa Juan. Azken gerratean ibilitakoa.**

Oso gazterik eraman zuten frentera, 19 urterekin. Atleta konpletoa zen gaztetan: aizkoran, pilotan.

Bere emaztea *Elizegiko* Martina Esnaola izan zen. Bestak beste, Joxean Tolosa pilotari txapeldunaren gurasoak izan ziren Juanito eta Martina.

2009ko apirilaren 20an hil zen, 90 urte zituela, Sautsen (Sarobetxe) jaiotako gizona. Handik urtebettera, lerro hauek eskaini zizkion bere familiak:

*“Urtebete pasa da zu gabe*

*Baina egunik ez da izan*

*Zutaz oroitu ez garenik*

*Asko daukatugu zure maitasunetik*

*Zaindu gaitzazu, maitea,*

*Zauden lekuan zaudelarik”.*

**-Ugarte Juan.** Alkatea zen Eliza berria egiteko erabakia hartu zenean.

-Ulazia Letxona. Bertsolaria.

#### **-Urretabizkaia Errazkin Juan Bautista. Alkate eta Arritzagan administradore.**

Alegiarra zen jaiotzez, baina Amezketan eragin handia izandako gizona. 1738ko abenduaren 18an jaio zen mundura, Juan Bautista Urretabizkaia eta Katalina Errazkinen seme hau. Alegiako Joakin Ignazio Olozagaren amanuentse izana.



Lehendabiziko ezkontza, 1768an, Maria Manuela Joakina Altunarekin egin zuen. Hamaika hilabeteren buruan alargundu egin zen Urretabizkaia eta berriro ezkondu. Bigarren emaztea: Josefa Ignazia Garagartza Lantz amezketarra.

1768an Aralarko meategian ikusiko dugu Administradore zereginarekin. 1792an bukatu zen bere lana Arritzagako enpresaren alde. Juan Bautista Urretabizkaia eta Christobal Fatek utzi egin zuten Aralarko Meategia. Urterik emankorrenak bi buruzagi hauekin izan zituen meategiak. Utzi zutenean poliki poliki beheruntz etorri zen. Urretabizkaia hogeita hiru ta erdi egin zituen Arritzagako enpresaren administraritzan.

Amezketako alkate 1787 eta 1796an izan zen Urretabizkaia. 1790an etxe berria jaso zuen: *Urretanea*. Gerora deitura asko ezagutu dituena: Aierbene, Mielene, Bixentene. Ataungo Manuel Balda harginak egindakoa da eraikin hori.

78 urte zituela hil zen Amezketan, 78 urte zituela. Bere seme don Juan Ignazio erretoreak eman zuen hiletako meza.

**-Urretabizkaia Garagartza Juan Ignazio. Amezketako erretorea.** Bertsolaria. Fernandoren zirikatzailea. Liberal sutsua.

-Urretabizkaia Garagartza Karlos.

**-Zabala Migel. Alkatea.**

1664ean garrantzi handiko bilera egin zuten amezketarrek. Gaur egun *Mailoa* deitzen diogun lur eta baso sailari buruzko neurriak hartu nahi ziren. Nortzuen zuzendaritzapean egin ote zen batzar hura? Honatx erantzuna:

*“el señor Miguel de Çavala alcalde ordinario della y su Jurisdicion, Miguel de Aguirrezavala y Miguel de Toledo Sansategui Regidores del dicho Concejo, y Martin Arano de Aguirre Procurador Sindico general”.*PT1044

Erabaki oso hestuak eta argigarriak hartu zituzten bilera hartan. Migel Zabala zen urte hartan Amezketako alkatea.

**-Zabala Bengoetxea Jose Antonio. Alkate, eta zinegotzi; pilotazale; kantaria.**

*Errementarine* etxean jaio zen mundura Jose Antonio, 1951kako abenduaren 9an. Arantzazuko frantziskotarren ikastetxean hasi zen kantuan eta solfeoa ikasten. Kitarra jotzen bere kasa ikasi zuen. Bere gaztaroan asko ibili zen kantuan Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan.

Amezketako alkatetzarako aukeratua izan zen 1983an. *Amezketako Herri Batzarra* zerrendan plazaratu zen. Ez zuen lau urteko agintealdia amaitu. Harrezkero, sarritan parte hartu du zinegotzi gisa herriko erabakietan.

Pilotazalea da oso. Pilotari prestatzailea ere bada. Hogeita hamabost urte baino gehiago darama pilota munduan murgildurik: Herriarteko Txapelketan, Elkarteen Txapelketan, Berria lehiaketan.... 199ean, Gipuzkoako Herriartekoa irabazi zuen amezketarren taldea

gidatuz. 1994an eta 1997an ere finaletan egon zen Amezketako taldea. Gazte askoren aholku emaille izan da, nola herrikoentzat zein kanpotik etortzen direnentzat.

#### **-Zabala Bengoetxea Koro. Lehendabiziko andereñoa herriko Ikastolan.**

Egokitze ahalegin azkar eta probetxuzkoa egin ondoren, 1966/1967 ikasturtean hasi zen Amezketan andereño bezala lanean. Kasualitate baten ondorioz jakin zuen ikastolaren berri, hasiera batean, Amezketako gurasoen eta sortzaileen taldeak bere lehengusuari eskaini baitzioten lana. Kasualitateak kasualitate, Koro izan zen Amezketako ikastolako lehen andereñoa. Hasi bazen hasi, erretiroa hartu zuen bitartean Amezketan jardun izan zen. Haur askorentzat erreferentzia bihurtu da 1948an jaio zen andereñoa. *Errementarine* etxean jaio zen Koro.

#### **-Zabala Bengoetxea Iñaki. Urretxuko alkatea.**

Amezketako *Errementarine* etxean jaio zen 1947an. Lehengo ikasketak herrian egin ondoren, Arantzazuko Ikastetxera joan zen umetan.

Zumarragako Orbegozo fabrian jardun zen aldi batean lanean; gero, Arrasateko MCCren barruan. Informatikako teknikaria da.

Politikan EHAS zein HASIn militatu zuen.

2007ko udal hauteskundeetan izandako emaitzei esker, Urretxuko alkate aukeratu zuten.

2008an, Espainiako Senaturako zerrendaburu izendatu zuen EAE-ANVek Gipuzkoan.

#### **-Zabala Bengoetxea Pello. Frantziskotarra. Musikaria. Idazlea. Meteorologoa.**

Amezketako *Errementarine* etxean jaio zen 1943ko azaroaren 2an. Berebiziko kultura duen horietakoa da Pello. Orain urte batzuk, frantziskotar-musikari-meteorologo alderdietatik baten aukera egin zezan eskatu zioten Pellori. Hona hemen erantzuna:

*“Arantzazuko frantziskotarra esango nuke. Arantzazu niretzat berezia izan da. Txikitan, Amezketatik urtean behin etortzen ginen hona erromes, eta niri gustatu egin zitzaidan. Arantzazun baziren mutilak frailetarako ikasten, eta nik ere gauza bera egin nahi nuela erabaki nuen. Gainera, hemen futbolearen ere egiten zen, eta hori erakargarria zitzaidan. Zazpi urterekin hartu nuen hona etortzeko erabakia, eta aitari jakinarazi nion. Horrela, prestatzen hasi nintzen, latina ikasi, Espainiako historia...*

*Hala ere, ni txikitatik oso prestatua nengoen. Irakurtzen ikasi nuen oraindik lurrean arrastaka nenbilela. Amak irakatsi zidan. Doktrina ere berak irakatsi zidan, egunero hiru galdera egiten zizkidan, eta nik arratsaldean erantzuna eman behar izaten nion. Izugarritzko memoria*

*nuen, eta makina bat legez ikasten nuen. Bost edo sei urterekin, doktrinan hasi nintzenerako, nik guztia buruz nekien. Txikitatik irakurtzea asko gustatu zait, eta horrek ikasi beharra sortarazi zidan. Liburuekin primeran ibili naiz beti, nire deskantsua irakurtzea izaten da.*

*Arantzazura etorri nahi nuela esan nuenean, familian ez nuen arazorik izan, baina herriko apaizarekin bai, ez zidan hona etortzen utzi nahi, oso berea ninduen-eta. Donostiako seminariora joan behar nuela zioen. Nik, berriz, ez nuen hori nahi. Niretzat Donostia oso urruti zegoen. Hamar urterekin Arantzazura etorri nintzen”.*

Hamar urte bete zituen garaian Arantzazura joan zen egun batean fraile frantziskotarra egingo zen asmoz. Ordurako bazen musikaren ezagutza pittin bat. Don Emigdio Lizartza koadjutoreak eman zizkion lehenengo irakaspenak.

Arantzazuko ikastetxean musika lantzen ahalegindu zen. Eta hori bera egin zuen Foruan (Bizkaia), Zarautzen eta Nafarroako Oliten. Bere irakasleak: Marzelino Idoiaga, Leonardo Zelaia, Jose Maria Ibarbia.

Habitua hartzea 1958an egin zuen.

Ez da harritzekoa beraz 1962az geroztik Arantzazuko Basilikan organujolea bera izatea. Musika erlijioso asko konposatu du. Gandiagaren olerkiak, Iñaki Beristainen bertsoak...horietan oinarriturik konposatu izan du musika.

1964an eman zuen lehendabiziko Meza Amezketako elizan.

Idazle oparoa ere bada Pello amezketarra. Aldizkari askotarako idatzi izan du: Jakin, Habe, Argia, Egan...Azken bolada honetan *Berria* egunkarian irakurtzen ditugu bere pasadizo, burutazio eta kontsideroak.

Liburu alorrean *Naturaren mintzo, Mendiko behatokia, Eguraldia beti airean, El tiempo La meteorología al alcance de todos* idatzi ditu. Azken hiruok oso segidan gainera.

Euskadi Irratirako eguraldi iragarpenak egiten zituen Arantzazutik. Irrati hau abian jarri eta berehala hasi zen zeregin horrekin. Oso estimatuak ziren bere iragarpenak eta jende askorentzat hizpide bihurtu ziren. *Klasikoak Gaur* programa ere urte askotan egin zuen.

-Zabala Egileor Domingo.

**-Zabala Egileor Frantzisko Antonio. Ameriketara zentzatu zena.**

*Mendiko* baserrian jaio zen Frantzisko Antonio: 1772-04-28. Migel Ignazio Zabalak eta Maria Mikaela Egileorrek izandako zazpi seme-alabetan zaharrena zen. Hurrengo, Juan Ignazio, punta puntako bertsolaria izan zen bere garaian, XIX.gizaldiaren sarreran.

Frantzisko Antoniori buruzko lehendabiziko berrietako bat 1796koa dugu. *Mendiko* baserriko bi anaia zaharrenak, *Sasturaingo* Bautista Iriarte eta Martin Basterrika nafarra Bergarako kaleetan harrapatu zituzten, gauetz, Bilbora zihoaztela. Ofizioko pleitua nozitu zuten laurek, eta hilabete batzuk giltzapean egin behar izan zituzten.

Hala ere, Frantziskoren gorabeherarik gogorrena 1797ko bat izan zen eta bere bizitzan berebiziko eragina izango zuena. Arabako lurretan bene-benetako lapurreta, guztiz serioa, egin zen urte hartan. Talde baten azioa izan zen. Martin Jose Azkona nafarraren gidaritzapean, bost lagun elkartu ziren Barriako Monastegiari lapurtzeko erasoan:

-*Mendikoko* Frantzisko Zabala Egileor

-Bedaioko Jose Alberdi

-Aizarnako Jeronimo Elizasu

-Ulibarriko Juan Arrieta

-Dulantziko Jose Ignazio Osinaga.

Arabako Diputatu Nagusiak oso estu hartu zituen guztiak, atxilotu ondoan. Ramon Maria Urbina Gaitan de Aiala ez zegoen barkatzeko. Bost urte presondegian eduki ondoren, heriotza zigorra ezarri zion Martin Jose Azkona Iزابakoari. Gainerakoena askoz arinagoa zen, baina bihozgabea oso, krudela. Azkonaren urkatzea ikusi behar zuten, erremediorik gabe. 1803ko apirilaren 23an gertatu zen hori. Urkamendian garbitu gabe geratu zirenentzat, ordea, zigorrak bazuen bigarren alderdi bat ere: Puerto Rico edo Filipinetako espetxeetan hamar urte egin beharra. Jose Jauregi bedaioarra ihes eginda zebilen eta huraxe izan zen zigor hauetatik libratutakoa.

Kontua da 1808 aldera Argentinan zegoela Mendikoko semea. Hori ulertu daiteke idatzitako honetatik:

*"El horno de cal que cerraba aquellos días del año 1822 pertenecía al vasco Francisco Antonio Zabala, natural de Guipuzcoa, en el municipio de Amezqueta al sur de Tolosa; hijo de Miguel Zabala y Maria Conilegoa, había casado en La Matanza en junio de 1810 (16 egun) con María Mercedes Bordón, una hija de Don José Silvestre y Doña Marciala Atencio. En segundas nupcias don Francisco Antonio Zabala casó con Doña Brígida Escobar, y de este último matrimonio descienden los Frugoni-Zabala, de conocida actuación en Entre Ríos y Santa Fe. En 1844 doña Brígida, ya viuda, vende su casa a Juan Salaberry- hoy casa Doctora Daus Benavidez".*

Bistakoa da Mendikoko semeaz ari dela pasarte hau. Ohar gaitetzen zer idazkera hartzen zuten amaren Egileor abizenak. *Conilegoa* bilakatzen da. Kontua da, nahiz eta 1822an hestuasunak nozitu, bizirik irten zirenetako bat Frantzisko Antonio Mendikokoarena zen. Ikusi bestela:

*"En el año 1823 funciona nuevamente el horno de cal de don Francisco Antonio Zabala; por abril, mayo y junio paga \$6 de derecho. Hasta el año 1829 funcionaba el horno de cal de Zabala y su producción era remitida en parte al puerto de Las Conchas en Buenos Aires, unas veces en la chalana de Don Ignacio Espíndola, otras en la de Don José Galisteo 16 fanegas de cal. Los vascos fueron los primeros pobladores del Quinto Cuartel y de la zona de caleras que*

*se extendía desde la actual usina de electricidad hacia el sur. Ellos levantaron los primeros hornos y edificaron las primeras cancha de pelota”.*

Frantzisko Antonio Zabala Egileor 1842ko abenduaren 4an hil zen Quinto Realen.

**-Zabala Egileor Juan Ignazio. Amezketako bertsolaria.**

Paper zaharretan *El versista de Amezqueta* deitzen dio bere buruari. Bere izena ezaguna izan zen 1800 aldera bertsozaleen artean. *Mendiko* baserrian jaio zen 1774ko ekainaren 1ean. Bere gurasoak: Migel Ignazio Zabala eta Maria Mikaela Egileor. 1771eko irailaren 20an ezkondu eta seme-alaba hauek izan zituzten:

-Frantzisko Antonio: 1772-04-28

-Juan Ignazio: 1774-06-01

-Rafael Antonio: 1776-03-08

-Maria Antonia: 1778-02-21

-Pedro Ignazio: 1780-02-08

-Domingo: 1782-04-24

-Juan Ignazio: 1784-12-18

Oso gaztea zelarik, ezagutu zuen gartzelaren gogorra Juan Ignaziok. 1796an, anaia Frantzisko Antonio, *Sasturaingo* Bautista Iriarte eta Martin Basterrikarekin batera, gauez Bilbora zihoala Bergarako Bidakruzeta kalean detenitu zuten, gaizkileak izan zitezkeelakoan. Hilabete batzuk egin behar izan zituen itzalean.

Hilabete horiek ez dira deus handik urte batzutara eman zuen espetxealdiaren ondoan. Izan ere, 1801eko ekainean lapurreta sonatu izan zen Gaintzako herrian, Martin Antonio Aldasoro eskribauaren etxean. Epailaren iritzian, laukote baten azioa izan zen lapurreta hura:

-Juan Ignazio Zabala Egileor

-Beasaingo Domingo Kerejeta

-Alegiako Joakin Zalakain

-Juan Migel Berroeta.

Hala ere, zigorrik hestuen Zaldibiako Juan Ignazio Iztuetari ezarri zioten, lapurreta egin zutenen xaxatzaile bera izan zelako.

Zabala Mendikokoak hamar bat urte eman zituen Tolosako espetxean. Inoiz ihes ere egin zuen. Arabako Zalduondora, mediku jakin baten bila.

Gure bertsolaria Josefa Antonia Otamendi Isasarekin ezkondu zen: 1797-02-27. Oso oker ez bagaude, *Loidi saletxe* izeneko eraikinean jarri ziren bizitzen. Lanbidez, hargina eta nekazaria zela aitortu zuen behin epailearen aurrean. Hiru semeren guraso izan ziren Juan Ignazio eta Josefa Antonia:

-Pedro Migel: 1797-11-30

-Jose Maria: 1801-01-13

-Juan Lorentzo: 1801-10-29.

Hauek lirateke bere biografian azpimarratu beharreko puntuak. Hala ere, ez gara gauza izan noiz eta non hil zen argitzeko. Gauza bera gertatzen zaigu bere emazte Josefa Antonia Otamendirekin ere.

1801ko udazkenean espetxean sartu aurretik, izen handia zuen bertsozaleen artean. Izan ere, garai hartan izan zen bertso norgehiagokarik famatuena izan baitzuen Hernaniko Txabalategirekin Billabonako plazan. 4000 bertsozale baino gehiago bildu omen zen Billabonan. Epai-mahaikotza Aizarnazabalgo sakristauak, Tolosako Erretorea zen don Jose Mendizabalek eta Fernando Amezketak bete zuten. Hasiera batean, Juan Ignazio Zabalak Zaldibiako Juan Ignazio Iztueta aukeratu zuen zeregin horretarako. Iztuetak joaterik ez eta, Fernando Amezketak bete zuen zaldibiarrak utzitako hutsunea.

Oso saio ederra eskaini omen zuten Zabalak eta Txabalategik, eta irabazlerik ez izendatzea erabaki zuten aho batez epai-mahaikoek.

Hurrengo urtean, bi bitara neurtu ziren bertsolariak Tolosan. Juan Ignazio Zabala eta Fernando Amezketarra alde batetik: bestetik, Txabalategi eta Altamira. Bigarren neurketa honetan ere ez zen irabazlerik izan. Hori bai, luze aritu omen ziran, ilundu artean.

Mendiko baserriko bertsolariaren bertso sorta polita bildu zuen Aita Antonio Zavalak. Bere *Pernando Amezketarra bertsolaria* liburuak dakartza.

#### **-Zabala Etxeberria Juana Josefa. Oblata lekaimea.**

*Dantzarinea* etxean jaio zen Juana Josefa 1884ko otsailaren 14an. Bere gureasoak Jose Antonio Zabala San Sebastian eta Josefa Joakina Etxeberria Galartza izan ziren. Sei seme-alaba ekarri zituzten mundura:

-Juan Ignazio (1876)

-Dolores (1877)

-Gregorio (1881)

-Juan Josefa (1884)

-Pedro Antonio (1885)

-Jose Antonio (1889)

Oso umetatik nabaritu zuen erlijio kontuetarako joera. Neskame Adunan eta Irunen ibili ondoan, moja, lekame sartzea erabaki zuen. 1910ean sartu zen komentuan postulante moduan. Handik 3 urtera, 1913an, erlijiosoen hiru botoak egin zituen Juana Josefak, eta handik aurrera *sor Josefa de San Alfonso* izango zen.

Urte hartan bertan Donostiara destinatu zuten, eta bere zereginen artean, herriz herri eskean ibiltzea zegoen.

Hortik kanpo, Superioraren Laguntzaile izendatu zuten komentuan.

1926ko irailaren 28an berebiziko sutea izan zen Komentuko kapilan, hain zuzen, sakristian. Indarra hartzen ari ziren garrak itzaltzera joan eta habituek sua hartu zioten. Hura izan zen bere hondamendiaj Oso zauri larriak eragin zizkion soinean suak. Bere agonia latza izan zen.

Berebizikoak nozitu behar izan zituen Juana Josefa Zabalak, eta urriaren 6an hil zen hain estimatua zen moja amezketarra. Hil eta berehala liburuxka bat argitara eman zen bere bizitza kontatuz:

*“UNA VICTIMA DE LA CARIDAD*

*Reseña biográfica de*

*Sor Josefa de San Alfonso*

*Religiosa Oblata del Stmo. Redentor”*

Ezagutu zutenek idatzita utzi zutelako dakigu oso langilea zela erlijiosa hau. Erlijio aldetik berriz:

*“Tres cualidades suyas llamaron la atención en su noviciado: la sencillez candorosa e ingenua en todo, la piedad fervorosa en las prácticas de devoción y un singularísimo esmero en instruirse y formarse según el espíritu propio de su Cogragación”.*

**-Zabala Goñi Jose. Azken gerratean hildakoa.**

*Dantzarinea* etxean jaiotako gazte hau 1937ko maiatzaren 17an hil zen, Bizkaiko frentean: *“Murió gloriosamente por Dios y por la Patria”* dio bere rekordatorioak. Ordurako alargundua zuen ama Juana. Senideak: Jose Frantzisko, Jose Maria, Seberiana, Jose Antonio eta Modesta.

1915eko ekainaren 3an jaio zen mundura. Jose Luis Zabala eta Juana Goñiren semea zen. 1937ko maiatzaren 24an eman zioten lurra. 22 urte zituen orduan.

**-Zabala Oriá Juan. Alkatea.**

1674an bera zen Amezketako alkate. Besteak beste, Zuriarrain araurrena edo *Haundiko* konpontzeko erabakia bere aurrean hartu zen.

**-Zabala San Sebastian Jose Antonio. Saxofoijolea.**

1940 aldera, igande eta festa egunetako arratsaldeak zerbait bizituko baziren, musika talde bat sortzea erabaki zen herriko gazteen artean. *Umore Ona* deitura eman zioten jazbanari. Sortzaileetako bat Jose Antonio izan zen. Taldean egin zuen ibilibidean saxofoia jotzen zuen Zabalak.

Amezketako *Jakuexen* etorri zen mundura 1917ko uztailaren 20an. Dolores Bengoetxearekin ezkondu eta *Errementarine* etxean bizi zen. Oso gazterik hil zen. 35 urte zituen. Papeleran lanean ziharduela, elektrokutatuta hil zen 1952ko urriaren 9an. Bere seme Iñaki Zabalak honela gogoratzen du ezbehar hura:

*“Gure familiaren bizitza traumatikoa izan da, nik bost urte nituenean aita istripuz hil baitzen. Oso eroso bizitzetik, ezer ez izatera pasatu ginen. Garai hartan ez zegoen Gizarte Segurantzarik, ez ezer. Aita elektrizitate sarearen mantenuaren arduraduna zen eta elektrokutatuta hil zen, laguntzaile baten hanka-sartze bategatik. 35 urte zituen eta bost seme-alaba: hiru mutil eta bi neska. Saltseroa zen, saxofoia jotzen zuen eta taldetxo bat zuten Amezketan”.*

**-Zabala San Sebastian Jose. Jakuetxekoa.** 1939ko apirilaren 10ean egin zen hileta. Jose Antonio eta Manuelaren semea zen 24 urteko Jose. Badalonako hospitalean hil zen, *“a consecuencia de las heridas que en el frente recibió”*.

**-Zavala Etxeberria Antonio. Jesuita. Bertso biltzaile. Idazle.**

Tolosan jaio zen Antonio 1928an. Ez dago esaterik zenbaiterainoko langilea zen. Ez dago hitzik utzi duen ondareari goratarre egiteko. Nekaezina zen Zavala. Amezketako herria zordun dago berarekin. Lan bikainak utzi zituen gure herriari eskainita ere.

Besteak beste, orain arte Fernando Amezketarraz egin den lanik onena zor dioguna: *Pernando Amezketarra bertsolaria*. 1966an eman zuen argitara. Fernando bertsolariaz egin den lanik borobilena, zalantzarik gabe. *Auspoa liburutegia* sailean 54.alea izan zen tolosarrak Fernandori eskainitako liburu aberatsa.

Bi urte lehenago, 1964an, *Bosquejo de historia del bertsolarismo* lana zabaldu zuen Zavalak. Liburu honetan ere Fernando Amezketarra eta *Mendikoko* Juan Ignazio Zabalaren aipamenak.

1985ean, *Ezkondu bearreko bertsoak* tituluarekin, beste ale bat plazaratu zuen Zavalak. *Auspoa Liburutegia* sailean dator hau ere. 187.alea egiten du. Azala eta atzeko azala ere Amezketan egindako argazki batek apaintzen ditu. Bertso asko dator liburuan. Lehendabizikoak, *Bertso berriak* izenarekin, Fernandoren garaian Amezketan egindakoak omen dira. Hori aitortzen du Zavalak. Oso bertso gustagarri eta biziak dira guztiak ere.

Iruñeko ospitale batean hil zen Antonio Zavala 2009ko urtarrilaren 2an.

**-Zelaia Agirrezabala Jose. Ugarten, organuloa.**



Auzo honetan mundura jaio zen Jose, 1945eko abuztuaren 4an.

Lehen musika ikasketak auzoan egin ondoan, Ignazio Mokoroaren laguntzarekin eman zituen hurrengo urratsak, Tolosan.

Maria Dolores Arandiak utzi zuenean, Zelaiak hartu zuen elizkizunetan harmoniuma jotzeko zeregina. Hogeita bost urtetik gora daramatza horretan.

**-Zeregaien Ibaiola Pablo.** *Iparragirre txikikoa.* Azken gerratean hila: 1937-06-30. Fraisoroko semea zen. Amezketako Juan Loidi-Magdalena Mujikak adoptatu zuten.

**-Zirako Ibarluzea Maria Ana. Kontalaria.**

Amezketan gorde izan diren kontu-ipuina, errefracu, kanta, istorio eta leienda gehientsuenak berari zor dizkiogu. Bisita bat baino gehiago egin zion bere garaian Resurrección María de Azkue apaiz jakintsuak. Honek galdetu eta Ana Mariak erantzun, horrela gorde dira paperetan Amezketako gauza asko eta asko.

Maria Ana 1861ean jaio zen. Maria Ana 1939ko martxoaren 3an hil zen, 78 urtetan. Bere senarra, Migel Jose Balerdi sei urte geroago: 1945-12-15. Balerdi-Zirako bikoteak 8 seme-alaba izan zituen.

**-Zuaznabar Jose. Erretaula egilea.**

-Zubeldia Ignazio. Autobus zerbitzua antolatu zuena.

**-Zubeldia Etxeberria Izaskun. Bigarren andereñoa Amezketako ikastolan.**

**-Zubeldia Zuriarrain Ignazio. Autobus zerbitzua antolatu zuena gerrate aurrean.**

Bi zerbitzu zituen autobus enpresa honek. Bata, egunerokoa: Amezketatik-Tolosa eta Tolosa-Amezketatik. Bestea, astean behingoa: Amezketatik-Ordizia eta Ordiziatik-Amezketatik, asteazkenetan.

Amezketako bizilagunentzat ez ezik, mendizaleentzat batipat garrantzi handiko zerbitzua izan zen luzaroan. Igande eta jai-egunetan Tolosan eta Alegian hartzen zituen mendizaleak, ilunabarrean Alegia eta Tolosara itzultzeko.

1973ra arte Ignazio Zubeldia zen ustiatzailea. Urte hartako martxoaren 15ean bere seme Jesus Zubeldia Etxeberriaren esku utzi zuen.

**-Zubillaga Martin. Erretore eta koadjutore.**

Bedaiko *Belarmuga* baserrian jaio zen. Hantxe mundura jaio zen 1929an. Apaiztegiko lanak egin eta Matxinbentan hasi zen apaiz lanetan. 1953an etorri zen Amezketara koadjutore gisa. Gradu horretan egin zituen urte asko, 1977ra arte. Urte horretan hil zen don Emigdio Lizartza erretorea eta don Martinek hartu zuen ardura hori. 1992an utzi zuen erretoretza.

Azken urteotan koadjutore eta laguntzaile moduan aritu da. Amezketan bizi izan den artean *Erretoretxe* esaten zaion etxera erretiratzen zen. 2010an Alegiara joan zen bizitzera, baina aukera izaten zuen bakoitzean Amezketara etorri ohi da. Bere hitzetan, “*oso barru barruan daramat herria hau*”.

la hirurogei urtez entzun dugu bere hitza Amezketako San Bartolomeren elizan.

**- Zubillaga Santsategi Joanes. Arotza.**

Seguru asko, *Santsategi* etxean bizi zen 1631 aldera. Arotza zen lanbidez. Garai hartan Etzupel eta Etxaerri baserrietan obrak egin behar zirela eta, bere aukeratu zuten. Etzupelen egindako zurgintza lanengatik 62 dukat agindu zitzaizkion, eta hargintzakoak berriz 14 gehiago. Etxaerriko lanak arinak izan zirelako, 14 dukat baino ez zituen jaso.

**-Zuriarrain Martin. Alkatea.**

1700.urtean Martin Zuriarrain izan zen Amezketako alkatea. Laguntzaileak: *Irigoeneko* Benito Sagastume eta Atanasio Etxeberria, errejidore gisa.

**-Zuriarrain Galartza Jose Maria.** Esaten denez, 1875ean kargajasotzaile hau izan zen lehendabizikoa *Albitzuri Harria* jasotzen.

**-Zuriarrain Loidi Joanes. Korsarioa.**

Datuak ez dira erabat ziurrak, baina seguru asko 1667ko maiatzaren 10ean jaio zen Amezketan. Gurasoak: Mateo Zuriarrain eta Ursula Loidi. Itsasuntzi korsariar batean hil zela esaten da agirietan: *Murio en un navio corsario*. Hileta-elizkizuna 1712ko uztailaren 26an egin zitzaion: *-Celebración de sentimiento*.

---